

IOT

Social
Network

Social
Network

**Autonomoentzako
eta mikroETE-
entzako soluzioen
katalogoa**

EUSKADIKO AUTONOMOENTZ AKO ETA MIKROETE- ETARAKO EIKT SOLUZIOEN EZARPENA

IOT



EUSKADIKO AUTONOMOENTZAKO
ETA MIKROETE-ETARAKO EIKT
SOLUZIOEN EZARPENA

AURKIBIDEADICE

Autonomoentzako
eta mikroETE-
entzako soluzioen
katalogoa

- »» **HELBURUA**
- »» **ZURE ENPRESARAKO EIKT-EK DITUZTEN ONURAK**
- »» **ZURE ENPRESAN EIKT SOLUZIOAK ERABILTZEA**
- »» **EIKT SOLUZIOAK ESPARRUAREN**
- »» **EIKT SOLUZIOEN FITXAK**
- »» **ERANSKINAK**
 - »» **Ezarpenen ereduak**
 - »» **Edukiaren deskribapena**
 - »» **EIKT hiztegia**

Katalogo Honen HELBUERUA

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila, SPRI Saren Berrikuntza eta Teknologia arloaren bidez, da INPLANTALARIAK zerbitzuaren bultzatzailea eta MIKROENPRESETAN ETA AUTONOMOEN ARTEAN EIKT SOLUZIOAK EZARTZEN oinarritu da. Horixe bera izan da, hain zuzen ere, EIKT soluzioen katalogo honen abiapuntua.

Zerbitzu hau 2020ko Euskadiko Agenda Digitalaren baitan (ADE20 izenekoa) jasota dago. Sailen arteko plan hori Eusko Jaurlaritzak jarri du abian eta Euskadin Informazioaren Gizartea bultzatzera eta indartzera zuzenduta dago, eta egitura mikroenpresarialaren lehiakortasuna areagotzea du xede **ELEKTRONIKAREN, INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA (EIKT)** berriak modu aktiboan txertatuta.

Katalogo honen xedea da **autonomoei eta mikroenpresei** honako hauek lortzeko **bitartekoa** eskaintzea:

- **Beren beharretara aplikagarriak eta errazak** <diren eta enpresei, haien eguneroko lanean, hobekuntzak eskainiko dizkieten **EIKT soluzioak** ezagutzea.
- **Nola erabili** denbora-tarte laburrean **negoziarako lehiakortasun handiagoa eta hobekuntza** ekarriko dituzten EIKTak, EIKTen inguruko ezagutza zabala eduki beharrik izan gabe.

Katalogo honen aldizkako eguneraketari esker, **joera teknologikoetara edo mikroenpresen behar eta eskari “naturaletara” ez ezik, kanpoko gertaeretara ere egokituta dauden** eta enpresako eguneroko lanean eragina duten tresna teknologikoak izan ditzakegu.



HELBURUA

Euskadiko egitura mikroenpresarialaren lehiakortasuna eta produktibitatea areagotzen lagunduko duten EIKTak gehitzea erraztea.

EIKTen ONURAK

Elektronikaren, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (EIKT) modu adimentsuan erabiltzeak **berehalakoak eta ikus daitezkeen emaitzak** eskaintzen dizkiete enpresei eta honela adierazten dira horiek:

■ DENBORA ETA KOSTUAK AURREZTEA

Lan errepikakorrak, transakzio elektronikoak eta seguruak, Administrazioarekin egin beharreko izapidetze telematikoak eta dokumentuak partekatzeko hodeiko guneak edo onlineko komunikazioa automatizatuta, eguneroko kudeaketa-lanak bizkortzen dira eta, hala, beharrezkoak ez diren joan-etorri eta gastuak ekiditen dira eta elkarlana errazten da.

■ ERAGINGARRITASUN HANDIAGOA ENPRESAN

Edozein tokitatik irisgarriak diren kudeaketa-tresna errazen bidez, negozioa, salmentak, eskariak, stocka, txandak eta abarrak eragingarritasun handiagoz kudea daitezke eta, hala, bezeroarekin lotutako kudeaketa komertzialetarako denbora gehiago izaten da



ZURE ENPRESARAKO

■ BEZERO BERRIAK ETA SALMENTA GEHIAGO

Sare sozialen, mapa birtualen eta atari espezializatuen bidez enpresa Interneten kokatuta eta produktu-zerbitzuen onlineko katalogoa izanda, Internet bidez nabigatzen duten bezero berriengana iristeko aukera dago, salmentak oso kostu eta ahalegin txikiarekin indartuta.

■ BEZEROAREKIN HARREMAN HOBEA

Enpresak webgunean presentzia egokia badu (presentzia birtuala webgunearen edo blogaren bidez, sare sozialen moduko interakzio-kanalak, marketineko eta onlineko salmentako atariak...), bezeroen iritzi eta eskariak jasotzen dira gero haien beharren arabera sustapenak eskaini (sustapeneko mailinga) eta zerbitzu eta produktuak haien beharren arabera egokitzeko (onlineko katalogoa, onlineko erreserbak, onlineko bezeroaren arretarako zerbitzua), jasotako datu horiek aztertu ostean.

ONURA

Zure negozioan EIKT soluzio ezberdinak erabiltzeak kudeaketarekin lotutako eragingarritasuneko hobekuntzak eta hobekuntza ekonomikoak ekar diezazkizuke eta, hala, errentagarritasun eta lehiakortasun handiagoa lortu.

EIKT SOLUZIOEN ERABILERA

MIKROENPRESAN

Eraldaketa Digitala eta Industria 4.0 dira mikroETE-ek urrun eta aplikatzeko zail ikusten dituzten kontzeptuak (hau da, enpresa handien esku bakarrik daudela uste dutenak). Dena den, lehia mailako zer onura ekar diezaguketuen eta gudan zer eragin duten oso ondo ulertuta, bi kontzeptu horiek sektore eta neurri guztietako enpresetan aplika daitezkeela ikusiko dugu.

Enpresa bakoitzak **EIKT soluzio ezberdin** bat behar du EIKTekin gaur egun duen harremanaren eta erabilerarekin lotuta espero den onuraren arabera.

Hemen azaltzen diren [EIKT soluzioak Euskadiko autonomo eta mikroenpresentzako EIKT Soluzioak Ezartzeko zerbitzutik](#) eskaintzen den Aholkularitza Teknologikorako oinarria dira eta SPRIk modu indibidualizatuan eta pertsonalizatuan eskaintzen du enpresa eskatzaile bakoitzaren lehiakortasuna hobetzeko.

Aholkularitza hori eskatzeko (aholkulari teknologiko baten doako bisita jasotzea da), sartu SPRIren Mikroenpresa Digitala [Inplantariak](#) programara.



ERALDAKETA DIGITALA

“EIKTak enpresan barneratzeak, askotan, negozio-ereduetan eta pertsonen lan egiteko moduan izaten du eragina.”

EIKT SOLUZIOEN ERABILERA

NIRE MIKROENPRESAN

EREMUAK

Katalogo honetan jasota dauden EIKT soluzioak esparruen arabera antolatuta daude, erabilerarekin lotuta enpresa bakoitzak lortzen dituen onuren arabera.

EIKTak mikroenpresan duen erabilera mailaren arabera, soluzio bakoitzarekin lotutako erabilera-gomendioak eta sartzeko bidea eskainita, EIKTak modu aktiboan barneratzea errazten da.

Zerbitzuak ez du softwarearen edo gaur egun enpresan erabiltzen ari diren aplikazioetan aldaketarik jasotzen. Zerbitzuaren aholkularitza teknologikoak hemen jasota dauden teknologiak konfiguratzeko, egokitze eta ezartzeko aholkularitza biltzen du.



**ORDENA ETA
SEGURTASUNA
DIRA NIRE
LANAREN
OINARRIAK**

Laneko nire ohiko zereginak modu eragingarriago eta seguruagoan egiten ditut enpresako informazioa behar bezala manipulatu, gorde eta babesteko



**INFORMAZIOA
BILTEGIRATZEN
ETA
PARTEKATZEN
DUT**

Informazioa online eta hodeian bidaltzen eta partekatzen dut kostuak eta denbora aurrezteko eta elkarlana errazteko



**INTERNETEN
POSIZIONATZEN
NAIZ**

Nire enpresa presentzia birtualarekin posizionatzen dut (webgunea, adibidez) neure burua ezagutarazteko eta bezero berriengana iristeko



**ONLINE
SALTZEN DUT**

Nire produktu eta zerbitzuak webgunean ditut bezeroarekin elkarerragiteko eta salmentak handitzeko



**2.0
BALIABIDEETAN
SUSTATZEN DUT
NIRE LANA**

Kanal digitaletan sustatzen dut nire lana nire bezeroen eskariak jasotzeko eta haiekin elkarerragiteko, hala egokitutako zerbitzuak eskaintzeko



**HOBETO
KUDEATZEN
DUT NIRE
NEGOZIOA**

Kudeaketa modu integratuan automatizatzen dut (salmentak, eskariak, ordainketak, finantzak, txanden eta lanen kudeaketa...) eragingarriagoak eta lehiakorragoak izateko



**NIRE
BEZEROAREN
ARRETA
BEREIZTEN
DUT**

Nire bezeroei arreta ematen diet haien asebetetzea areagotzeko eta lehiakideengandik bereizteko zerbitzu aurreratuekin eta egokituekin



**NIRE
NEGOZIOA
MUGIKOR
EGITEN**

Nire negozioa, bulegoa eta agenda dauden tokira eramateko mugikortasuna dut eta nonahikotasunaren aukerak ustiatzen ditut



**NIRE ENPRESA
INDUSTRY 4.0
BIHURTZEN DUT**

Industry 4.0ren onurak nire enpresako balio- eta produkzio-prozesuetara eramaten dituzten teknologia eta jardunbideak erabiltzen ditut

GUNEAK

“Esparru bakoitza enpresa bateko negozio-prozesuetan garrantzia duen alderdietan oinarritzen da. Ez aplikatu EIKT soluzioak esparru guztietan; zure enpresari mesede egin diezaieketenak bakarrik aukeratu”

EIKT SOLUZIOAK

ESPARRUAREN ARABERA



EIKT SOLUZIOAK	ZER DA?
Eragingarriago izateko utilitateak	Aplikazioak ondo aprobetxatzeko utilitateak eta jardunbideak identifikatzen ditu: pakete ofimatikoa eta dokumentu edo fitxategi jakin batzuk erabiltzeko eta manipulatzeko tresnak, adibidez (neurria konprimatuta, kalitatea hobetuta, testuak itzultzen lagunduta, definizioak bilatuta...).
Zibersegurtasuna	Informazioa sistema informatiko baten barruan modu seguruan mantentzea ahalbidetzen du birusen aurkako programen, segurtasun-kopien kudeatzaileen (Backupa), pasahitzen kudeaketaren, nabigazio segururako jardunbideen zure bitarteko digitaletarako sarbidearen kudeaketaren eta abarren bidez. Bezeroekin, laguntzaileekin, hornitzaileekin eta abarrekin transakzio eta interakzio seguruak izateko jardunbideak errazten ditu...



EIKT SOLUZIOAK	ZER DA?
Biltegiratzea eta elkarlana	Hodeiko kokapen batean (Internet) enpresan erabilitako informazioa modu seguru eta ordenatuan gordetzea ahalbidetzen du, edozein tokitatik zehaztutako norbaitek erabilgarri izan dezan.
Onlineko komunikazioa	Hornitzaileekiko, bezeroekiko edo laguntzaileekiko komunikazioa eta dokumentu horien inguruko lana elkarrekin egitea errazten du toki fisiko berean egon beharrik izan gabe eta mezularitzako edo telefoniako kosturik gabe.
Escritorio On-line	Hasiera-orri pertsonalizatuaren bidez, edozein ekipotatik ohiko webguneetara zuzenean sartzeko ahalbidetzen du



EIKT SOLUZIOAK	ZER DA?
Posizionamendu birtuala	Gailu mugikorren bidez, negozioa mapa birtualetan kokatzea eta informazioa online edo sarbide bizkorrekin (QR kodeak) eskaintzea ahalbidetzen du negozioa eta sustapenak edo gertakari esanguratsuak bilatzeko.
Presencia virtual	Enpresaren inguruko datuak eskaintzen ditu: kokapena, produktu/zerbitzuen katalogoa, sustapenak eta eskaintzak. Etorkizuneko bezeroari negozioaren ezaugarriak begiratu bakarrean ezagutzea ahalbidetzen dio: markaren irudia, estiloa eta abar.
Atari interaktiboa	Bezeroarekin komunikatzeko eta, hala, haren eskariak eta iradokizunak jasotzeko eta presentzia integratu osoa harremanetarako puntu bakararen bidez (webgunea, sare sozialetako profila, inkestak, katalogoa
Sareko alertak	Gai jakin baten, enpresaren, produktu/zerbitzuen edo markaren edo lehiakideen inguruan foroetan, blogetan, sare sozialetan eta abarretan egindako iruzkinei buruzko abisua jasotzea ahalbidetzen du. Joerei, behar berriei edo sektorearekin lotutako iruzkinei buruzko jakinarazpen konfiguratuak eskaintzen ditu. Enpresak ingurune digitalean duen irudia "zaintzea" ahalbidetzen du.

SOLUCIONES TEIC

POR ÁMBITO



ONLINE SALTZEN DUT

EIKT SOLUZIOAK	ZER DA?
E-commerce atariak	Salmenta-atari espezializatuen bidez produktu eta zerbitzuak saltzea ahalbidetzen du, transakzioarako beharrezko zerbitzuak barne (ordainketa-kobrantza, bidalketa eta garraioa). Bezeroarekiko elkarrekintza (onlineko erreserbak, onlineko salmenta, eskarien egoera eta abar) lehenetsita dago, egokitzapena egiteko aukerarik gabe.
Denda birtualetan egindako salmenta	Produktu eta/edo zerbitzuak salmentarako plataforma batean saltzea ahalbidetzen du, denda birtuala eratuta eta plataforma horren baliabideak erabilia. Salmentaren kudeaketa jasota izaten du eta negozioaren irudian egokitzapenen bat egitea ahalbidetzen du.
Onlineko nire denda	Neurrira prestatutako salmenta-atari propioa izateari deitzen zaio. Bezeroekin eta hornitzaileekin onlineko interakzioa izatea ahalbidetzen du, eskariaren sustapena, eskariaren kudeaketa, onlineko erreserbak, onlineko salmenta, ordainketa, eskariaren egoera eta abarrak kontuan hartuta. Beharrezkoa da salmenta-kate osoa garatzea.
E-commerce errazten dutenak	Bezeroari onlineko dendan eskuragarri dauden produktu eta zerbitzuak online erosten laguntzeko bitartekoak ematen dituzte



2.0 BALIABIDEETAN SUSTATZEN DUT NIRE LANA

EIKT SOLUZIOAK	ZER DA?
Negozioa sarean dinamizatzea	Enpresa bateko produktu eta zerbitzuak modu dinamikoan eta zuzenduan ezagutaraztea ahalbidetzen du, negozio baten inguruan erabiltzaileen komunitatea sortuta (eta, aldi berean, komunitate horri berrikuntzei buruzko onlineko informazioa emanda).
Publizitatea Interneten	Produktuak eta zerbitzuak saltzeko, sustatzeko eta haiei buruzko informazioa emateko mezuak zabaltzea ahalbidetzen du bezero potentzialak eskaera mota horiek bilatzen dituen tokian. Gainera, hori guztia behar bezala sailkatzen du bezeroak beste eskaintza batzuk baino lehenago topa ditzan.
Marketineko E-mailinga	Bezeroei publizitatea eta informazioa zuzenean eta segmentatuta bidaltzeari deitzen zaio (bezero eta jokabide motaren arabera): kanpainak, sustapenak, zerbitzu edo produktu berriak... Horren helburua salmentak handitzea eta marka-irudia sortzea da.
Marketin sektoriala	Negozioaren informazio-, sustapen- eta salmenta-ekintzak sektoreko komunitateetan eta beste atari espezializatu batzuetan egitea ahalbidetzen du.
Marketin birala	Gaur egungo bezeroek edo etorkizunekoek mezu komertzial bat beste batzuei bizkor helaraztea bultzatzen du. Hala, mezu hori azaltzeko garaian hazkunde biderkatzailea sortzen da. Bere kabuz hedatzen den publizitatea da. Ahotik ahora egindakoa da, baina Internet bidezkoa.

SOLUCIONES TEIC

POR ÁMBITO



EIKT SOLUZIOAK	ZER DA?
Izapide seguruak	Internet bidez bankuko eta administrazio kudeaketak egitea ahalbidetzen du (Administrazioaren egoitza elektronikoen edo finantza-erakundearen webguneen bidez). Hainbat iturritatik (kreditu-txartela edo bankuko kontua) Internet bidez dirua hainbat hartzailei modu seguruan bidaltzea errazten eta berrmatzen dute, haiekin finantza-informazioa partekatu beharrik gabe.
Negozioaren kudeaketa integrala	Kudeaketa integratua duen (ST - Saltokiko Terminala) gailua da. Salmentatik hasi eta eskarien kudeaketara arteko eragiketak optimizatzeko gaitasuna eskaintzen du, eragiketa horietatik eratorritako kontularitza eramanda.
Lanak / Txandak kudeatzea	Negozio bateko langile ugarien laneko txandak, baimenak, bajak, oporrak eta abarrak online eta elkarlanean sortzea eta aldatzea ahalbidetzen du.
Erosketa zentralizatua kudeaketa	Hornikuntza orokorren erosketen berehalako kudeaketa errazten du era horretako erosketak zentralizatzen dituzten atariak erabilita..
On-lineko prestakuntza	Teknologia edo araudi mailako aldaketen eta joeren berri izatea eta Internet bidez prestakuntza jasotzea ahalbidetzen du e-learningeko plataformaren bidez, ordutegiei eta nonahikotasunari dagokienez malgutasuna eskainita



EIKT SOLUZIOAK	ZER DA?
Hitzordua / erreserbak / abisua kudeatzea	Bezeroari hitzordua bat edo negozioan erreserba bat online eskatzea edo hitzordua modu erosoan aldatzeko edo ezeztatzeko aukera ematen dio, telefonoz deitu beharrik izan gabe. Bezeroei telefono bidez arreta emateko garaian denbora galtzea ekiditen du eta hitzordua erosotasunez gordetzen dira agendan, akatsik egin gabe. Eskaintako zerbitzuari balio erantsia ematen dio bezeroekin eta ezagunekin harremanetan jartzeko aukera eskaintzen duelako hitzordua gogorarazteko, ordutegi-aldaketen berri emateko edo txandak aurreratu direla jakinarazteko. Hala, ohiko zerbitzuaren plus moduko bat eskaintzen da..
Bezeroen fluxuaren kudeaketa	Itxarote-denborak gutxitzen eta desagerrarazten ditu, edo bezeroarentzako atsegin eta negozioarako produktibo bihurtzen ditu. Izan ere, "alfer-denbora" horiek produktuak eta zerbitzuak sustatzeko aprobetxa ditzake.
Bezeroen kudeaketa	Bezeroen kudeaketa espezifikoak egitea ahalbidetzen du, bezero berari eskaintako jarduerak eta zerbitzu guztiak (erreserbak, bisitak, kontsumizioak, erabilitako eskaintzak...) integratuta
Floten kudeaketa	Garraio-flotak online kudeatzea ahalbidetzen du, uneoro eskariaren jarraipena berrmatuta..
Eskarien kudeaketa	Eskariak online eta modu digitalean jasotzea eta amaitutako zerbitzuen edo erreserbatutako hitzorduen inguruko abisua bidaltzea ahalbidetzen du, bezeroarekiko harremana erraztuta.
Zerbitzua arintzeko gailuak	Negozioaren zerbitzuaren etenaldiak ekiditeko gailuak: • Bideozaintza • Ateen irekiera automatikoa • Esku libreak

SOLUCIONES TEIC

POR ÁMBITO



EIKT SOLUZIOAK	ZER DA?
Bulego mugikorra / Kudeaketa mugikorra	Enpresan modu fisikoan kokatuta egon beharrik izan gabe, bulegoko lanak egitea errazten du (eskaneatzea, dokumentazioa sinatzea, informazioa eskuz idatzitakoa balitz bezala modu digitalean idaztea, informazio eta sistemetara urrunetik sarbidea izatea...). Hala, bezeroaren edozein behar, eskari edo gorabeherari erantzuna bizkor emateko aukera dago eta, horrenbestez, bezeroari eta negozioaren kudeaketari dagokienez zerbitzuarekin lotutako eragingarritasun bikaina eskain daiteke.
Geolokalizazioa	Enpresak haien kokapenaren arabera topatzeko eta ezagutzeko modua bizkortzea ahalbidetzen du. Hala, bezeroak eskaintzak edo zure negozioari buruzko informazioa gertuko kokapenaren arabera jaso dezake



EIKT SOLUZIOAK	ZER DA?
Errealitate areagotua eta birtuala	Lehenengoaren helburua errealitateari balioa ematea da ekintzak edo erabakiak hartzea errazteko. Hala, informazioa eta irudi artifizialak gainjartzen dira errealitatearekin konbinatuta harekiko traturik onena eskaini ahal izateko. Birtualari dagokionez, errealitatea ordezkatzen du, errealak ez diren eta egoera horiekin benetako etorkizuneko elkarrekintzetarako ikastea ahalbidetuko dieten sententzioak "sentitzea edo bizitzea" ahalbidetuta (makinen inguruko prestakuntza, adibidez).
Fabrikazio gehigarria	3D inprimatze-teknologiaren bidez, prototipoak eskuragarri izatea, eta neurri eta lote txikitan fabrikatzea ahalbidetzen du oso kostu onargarrian. Zerbitzu horiek eskaintzen dituzten plataformek inprimatze-algoritmoak eta diseinua biltzen dituzte.
Fabrikazio adimentsua	Produktzio-kateen onlineko datuetan, neurrirako zerbitzuen eskuragarritasunean edo arreta pertsonalizatuan oinarritutako automatizazioa lortzea du xede sententzioaren, IoT-aren eta Big edo Little Dataren bidez.
Serbitzu aurreratuak	Mikroenpresan epe ertainera begira aplikatzekoak diren edo pilotaje-egoeran dauden 4.0 zerbitzuak: Blockchain teknologia, adibidez, transakzioen erregistro fidagarria egiteko.



Ordena eta segurtasuna dira nire lanaren oinarriak	Eragingarriago izateko utilitateak	
	Zibersegurtasuna	
Informazioa biltegitratzen eta partekatzen dut	Biltegitratzea eta elkarlana	
	Onlineko komunikazioa	
	Onlineko idazmahaia	
Interneten posizionatzen naiz	Posizionamendu birtuala	
	Presentzia birtuala	
	Atari interaktiboa	
	Sareko alertak	
Online saltzen dut	E-commerce atariak	
	Denda birtualetan egindako salmenta	
	Onlineko nire denda	
	E-commercea errazten dutenak	
2.0 baliabideetan sustatzen dut nire lana	Negozia sarean dinamizatzea	
	Publizitatea interneten	
	Marketineko e-mailina	
	Marketin sektoriala	
	Marketin birala	
Hobeto kudeatzen dut nire negozioa	Negoziaren kudeaketa integrala	
	Lanak / txandak kudeatzea	
	Erosketa zentralizatuen kudeaketa	
	Tramite seguruak	
	Onlineko prestakuntza	
Nire bezeroaren arreta bereizten dut	Hitzordua / erreserbak / abisuak kudeatzea	
	Bezeroen kudeaketa	
	Floten kudeaketa	
	Zerbitzua arintzeko gailuak	
	Bezeroen fluxuaren kudeaketa	
Nire negozioa mugikor egiten dut	Bulego mugikorra / Kudeaketa mugikorra	
	Geolokalizazioa	
Nire empresa Industry 4.0 bihurtzen dut	Errealitate areagotua eta birtuala	
	Fabrikazio gehigarria	
	Fabrikazio adimentsua	
	Zerbitzu aurreratuak	

Katalogo honetan azaltzen diren aplikazioak dauden aplikazio guztien artetik ateratako lagina baino ez dira. Aipatutako ezaugarriak (kostua eta hizkuntza, adibidez) zerrenda honetara gehitu diren datako atributua dira; ondorioz, denboran zehar izan duen aldaketa ez da katalogoan jaso..



ZER DA?

Ordenagailuan instalatzen den sistema eragilea*, eta fitxategi eta aplikazioak kudeatzeko oinarrizko pakete ofimatikoa biltzen ditu. Zure ekipoen instalatuta edo hodeian eskuragarri daudenak izango dira, eta fitxategi jakin batzuen erabilera errazten dute zure enpresako eguneroko lanak modu arinagoan eta eragingarriagoan egiteko.



Inplantatzeko moduak



HORNITZAILEA



FORMAKUNTZA



INPLANTALARIAK



AUTO INPLANTAZIOA

ZER EGITEN DU?

Hauen moduko jarduerak egitea errazten du:

- Testuak sortzea edo material grafikoa prestatzea, kalkulu eta grafikoak, edo argazkietan ukituak egitea, logotipoak sortzea, testuak formateatzea, dokumentazioa eskaneatzea...
- Negoziari eta sektoreari, kontsumo-portaerei edo zure produktuen edo zerbitzuen bilakaerari edo joerei buruzko informaziora sartzea eta hura aztertzea lehiakideei aurre hartzeko.
- Administrazioko lanak arintzea, gero errazago bidali edo biltegitatu ahal izateko: itzulpenak, kalkuluak edo irudi eta fitxategien manipulazioa.
- Konpresoreen, urruneko konexio-zerbitzuen eta abarren bidez, fitxategi eta dokumentuen kudeaketa, erabilera eta biltegitatzea optimizatzen dira.



ZER EKARPEN EGITEN DIZU?

- Agiliza el trabajo en la empresa (escribir textos, cartas, realizar cálculos numéricos, organizar la información para explotarla en base de datos*, etc.), ahorrando tiempos.
- Mejora la imagen que los clientes o socios tienen de tu negocio al disponer de aplicaciones* y sistemas que agilizan y hacen más eficientes tus tareas.
- Se reduce el papel manejado y el espacio físico y permite un mayor orden.

NOLA FUNTZIONATZEN DU?

- Sistema eragilea* (OS) beharrezkoa da ordenagailuak funtziona dezan eta programa ugari instalatzea ahalbide dezan. Pakete ofimatikoak, ordenagailuan instalatutakoan, testuak, kalkulu-orriak, aurkezpenak, datu-baseak eta abarrak sortzea, kontsultatzea eta editatzea ahalbidetzen du.
- Enpresaren kudeaketa aplikazio hauetan* oinarri daitekeenez, uneoro izan behar duzu identifikatuta ordenagailu edo gailu bakoitzean zer aplikazio erabiltzen ari diren eta non instalatuta dauden programa horiek.
- Argazki-ukituen kasuan, ahalegin handia egin beharrik izan gabe irudiaren kalitatea nabarmen handitzea ahalbidetzen duten funtzioak daude: argazkien bereizmena* eta neurria aldatzea, kolore eta testurak aldatzea, eta inperfekzioak zuzentzea, adibidez.
- Datu-konpresorearen kasuan, nahikoa da partekatu* nahi dugun informazioa edo karpeta*, konpresioa egiteko erabili nahi dugun programa eta informazioa uzteko aukeratu dugun tokia hautatzea. Fitxategiak konprimatzeak horiek informatika-ekipoan betetzen duten espazioa gutxitzea ahalbidetuko du eta, gainera, posta elektronikoz* bidaliz gero, komunikazio-sarean kolapso-arazoak ekidingo dira.
- Hodeian* eskuragarri dauden beste utilitate batzuk ere badaude, instalatu beharrik gabe irisgarriak direnak:
 - Testu komertzialak euskaratzeko, edo erabiltzailearen eskuliburuak edo produktuen katalogoak ingelesera edo beste hizkuntza batzuetara itzultzeko onlineko itzultzaileak.
 - Hiztegiak, kalkulagailuak, txantiloak, zereginen kudeatzaileak, PDF bihurtzaileak, aplikazio eramangarriak, dokumentuen eskuzko sinadura, arbelak, argazkiak edo bisita-txartelak...
 - Fitxategien manipulatzailerak; logotipoen sorgailuak, ahotsa eta audio-fitxategiak testu bihurtzeko aplikazioak, mezu eta dokumentuen enkriptagailuak.



Katalogo honetan eskaintzen den zerrenda prestatzeko garaian laguntzaileek emandako erreferentzia baino ez da.

Soluzio hori eskaintzen duten produktuak ugari direnez, zure ohiko hornitzaile teknologikoarengana jotzea gomendatzen dizugu.

IKONOEN ESANAHIA



EUSKERA



ERDERA



INGELES



KOSTUA



DOAKOA

HIZKUNTZA

PREZIOA

PRODUKTUAK

PAKETE OFIMATIKOA

[MS Office](#)
[Office 365](#)



[WPS Office](#)



[Libre Office](#)

[Iwork](#)



[OpenOffice](#)

BIHURTZEKO APLIKAZIOAK

[Dragon NaturallySpeaking](#)



[NCH](#)



ERRAZTEKO APLIKAZIOAK

[Conversor PDF](#)

[SIGNply](#)

[Photo Grid](#)

[Office Lens](#)

[Portableapps](#)

[CopyQ](#)

[Add Watermark free](#)



[Rocket Book](#)

[Textespader](#)



[Atext](#)



Erlazionatutako produktu gehiago: www.spri.eus/euskadinnova

GOMENDIOAK



- ✚ **Kontuan izan:** aplikazio* ofimatiko batzuk edo beste batzuk erabiltzea ondo aztertu beharreko kontua da; zer behar dugun ikusi eta erabilgarria izango zaigun horretan inbertitu behar dugu. Ondorioz **aholkularitza profesionalera** jotzea gomendatzen dugu.
- ✚ Oso interesgarriak diren eta kalitate frogatua duten **software libreko** alternatibak daude.
- ✚ Erabiltzaile aditua ez bazara, **instalatu aurrez ezarritako bertsioa** zure ordenagailuan bertsio aurreratua edo pertsonalizatua instalatu beharrean.
- ✚ **Eguneratuta izan zure aplikazio*** ofimatikoetako bertsioak plataformari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.
- ✚ Hainbat ekipo baduzu, konfiguratu **tokiko sarea kable edo haririk gabeko konexio (wifi) bidez**, sarbide orokorreko informazio korporatiboa biltegitatu ahal izateko ekipo partekatuarekin. Hala, informazio bera bikoiztuta izatea eta manipulatzeko garaian akatsak egitea ekidingo duzu.
- ✚ Enpresako sistemak zibererasoren bat jaso izanaren inguruko susmoa edo zalantzak izanez gero, **jarri harremanetan Basque CyberSecurity Centre-rekin: arazoak@bcsc.eus**
- ✚ Pertsonok gara segurtasun-kateko kate-maila ahulena; ondorioz, **eman informazioa eta gaitasuna zure enpresako pertsonen teknologien erabilerarekin lotutako jardunbide onak ezagut ditzaten.**

Laguntza eta
euskarria

900 92 93 93



Katalogo honetan eskaintzen den zerrenda prestatzeko garaian laguntzaileek emandako erreferentzia baino ez da.

Soluzio hori eskaintzen duten produktuak ugari direnez, zure ohiko hornitzaile teknologikoarengana jotzea gomendatzen dizugu.

IKONOEN ESANAHIA



EUSKERA



ERDERA



INGELES



KOSTUA



DOAKOA

HIZKUNTZA

PREZIOA

PRODUKTUAK

IRUDI/VIDEO EDITOREAK

[Corel](#)



[Gimp](#)

[Openoffice Draw](#)

[Cooltext](#)

[Canva](#)



[Pixabay](#)

[Online video cutter](#)

[Quik](#)

[Filmora](#)

[Pixlr Express](#)

[Documents to go](#)



[King Kong Capture](#)

[Recordscreen](#)

KONPRIMATZAILEAK

[Winzip](#)



[Winrar](#)

[7Zip](#)



ITZULTZAILEAK - HIZTEGIAK

[Traductor de Google](#)



[Microsoft Traductor](#)

[Onetab](#)

Erlazionatutako produktu gehiago: www.spri.eus/euskadinnova



GOMENDIOAK

- Gogoan izan:** fitxategi batzuk oso handiak izaten dira; ondorioz, zaila da horiek biltegitratzea, manipulatzeko eta/edo Internet bidez bidaltzea. **Espazioa modu eragingarrian erabiltzeko** eta fitxategi horiek lortzeko prozesua bizkortzeko, erabili konpresoreak neurria txikitzeko.
- Atera etekina** zure produktu edo zerbitzuei **ukitu digitalarekin**. Interesgarria da enpresako produktu edo zerbitzuak zure katalogoan modu erakargarrian erakustea.
- Aprobetxatu** zure gailu mugikorra partekatu nahi duzun edozein dokumentu **eskaneatzeko**; gainera, nahi baduzu, zuzenean bertan **sina** dezakezu. Bestalde, edozein tokitatik beste ordenagailu batera urrunetik konektatzeko ere erabil dezakezu.
- Programa horien **eguneraketak** eguneratuta izan eta negozioaren eguneroko lanerako zure ustez erabilgarrienak direnak plataforma ofimatikora gehitu behar dituzu. Aldizkakotasunez, utilitate horien hornitzaileek Internet bidez edo hornitzaile teknologiko baten bidez irisgarriak diren bertsio berriak sortzen dituzte.

**Laguntza eta
euskarria**

900 92 93 93



ZER DA? Informatika-sistema baten barruan informazioa segurtasunez mantentzeko aplikazio eta praktikak. Ez du inporta ekipoak elkarri konektatuta edo isolatuta dauden.



Inplantatzeko moduak



FORMAKUNTZA



INPLANTALARIAK




AUTO
INPLANTAZIOA

ZER EGITEN DU?

Zure ekipo informatikoak prestatzea (berdin ekipo isolatua izan edo elkarri konektatuta dauden ekipoen sarea izan) elkarri konektatuta egotearen ondorio izan daitezkeen arriskuak ekiditeko:

- Segurtasuneko kopien sistema*. Zure negozioarako informazio garrantzitsua ez galtzea bermatzen du.
- Birusen aurkako programa*: Zure ekipoa birus informatiko batek erasotzea ekiditen du (horrek okerreko funtzionamendua edo haren erabateko akatsa eragiten du).
- Sarbide-kontrola: Ekipoak erabiltzen dituen pertsona bakoitzarentzako sarbide mota ezartzen du, informazioa manipulatzeko nahi ez ditugun sarbideak edo sarbide gaiztoak ekiditeko.
- DBLO* betetzea: Zure bezeroen datu pertsonalak jasotzen badituzu, horien kontrola, segurtasuna eta isilpekotasuna bermatu beharko duzu.
- Sistemen okerreko erabilerak ekiditen dituzten segurtasuneko jardunbideak.



ZER EKARPEN EGITEN DIZU?

- Informazioa galduz gero (birusa edo nahi gabe fitxategiak ezabatu izanagatik), bezeroen, fakturen eta enpresako kontularitzaren datuak berreskuratzea ahalbidetzen du.
- "Birusen erasoetatik" edo nahi ez ditugun sarreretatik babesten du (fitxategiak beste batzuekin partekatzeagatik edo Internetera sartzeagatik horiek jasateko arriskua duzu).
- DBLO betetzen laguntzen du bezeroen datu pertsonalak araudi horrek xedatutakoaren arabera erabilia.
- Zure informazioa eta sistemak arriskuan jar ditzaketen jardunbide txarrak ekiditen ditu.

NOLA FUNTZIONATZEN DU?

Hodeira* sartzeko, informazioa partekatzeko (*Kontsultatu "Hodeiko biltegitratzea" EIKT soluzioa*), edo Interneten negozioak duen presentzia eguneratzeko (*Kontsultatu "Presentzia birtuala" EIKT soluzioa*), beharrezkoak dira hauen moduko jardunbideak:

Antibirusa*:

- Infektatutako fitxategiak konpontzeaz arduratzen da, baina haren onura nagusia kutsadura ekiditea izaten da. Ondorioz, Internet bidez aldizkakotasunez eguneratzeko konfiguratu beharra dago, antibirusa* sortu berria den birusaren aurkako "txertoekin" eguneratuta egon dadin.

Segurtasun kopiak* (Backup):

- Programak aldizkako segurtasun-kopiak* automatikoki eta modu gardenean egingo ditu. Horretarako, kopiaren aldizkakotasuna, backupa egiteko erabiliko dugun karpeta* eta, azkenik, gorde nahi ditugun dokumentuak konfiguratu beharko ditugu.
- Kopia horiek beste gailu periferiko batzuetan (kanpoko memoria-diskoak edo beste sistema informatiko batzuk) gorde behar dira egungo ekipoa hautsi eta bertan biltegitratutako datuetara sarbidea ahalbidetuko ez balu horiek eskuragarri izatea bermatzeko.

Sarbide-kontrola:

- Erabiltzaile bakoitzaren funtzio edo beharren arabera, sarbide posibleak ezartzen dira sarbide mota (irakurketa, idazketa) eta tokiak (fitxategien karpetak*, aplikazioak* edo Interneterako sarbidea) identifikatuta. Horretarako, sistema eragileak* helburu horretarako dituen erraztasunak erabiltzen dira. *Kontsultatu "plataforma ofimatikoa" EIKT soluzioa.*

DBLO betetzea:

- Joan ikastaroen agendan eskuragarri dagoen "Egokitu zure enpresa DBLOra" ikastarora, edo egin ikastarua [online](#) horren inplikazioak ezagutzeko eta, hala, zure lan egiteko modua egokitu ahal izateko.

Segurtasuneko jardunbideak:

- Pasahitzen kudeaketa eta fitxategi eta mezuak enkriptatzea funtsezkoak dira enpresako informazio-segurtasunean eta sistemetan.



Katalogo honetan eskaintzen den zerrenda prestatzeko garaian laguntzaileek emandako erreferentzia baino ez da.

Soluzio hori eskaintzen duten produktuak ugari direnez, zure ohiko hornitzaile teknologikoarengana jotzea gomendatzen dizugu.

IKONOEN ESANAHIA



EUSKERA



ERDERA



INGELES



KOSTUA



DOAKOA

HIZKUNTZA

PREZIOA

PRODUKTUAK

SEGURTASUN KOPIAK

Fbackup	ES	GRATIS
Cobian	IN	GRATIS
Sbackup	IN	GRATIS

LEGALITATEA

LOPD	ES	€
----------------------	----	---

SARBIDE ETA ERABILERA SEGURUAK

Deseat.me	IN	GRATIS
My Activity	IN	GRATIS
Wifi Analyzer	IN	GRATIS
Google Take Out	IN	GRATIS
Haveibeenpwned	IN	GRATIS
Anydesk	ES	GRATIS
Latch	ES	€
Cl@vePIN	ES	GRATIS

ANTIBIRUSA*

AVG	ES	€
AVAST	ES	€
Virus Total	ES	GRATIS
Panda USB Vaccine	ES	GRATIS

SEGURTASUN PRAKTIKAK

Pasahitzen kudeatzaileak	ES	GRATIS
LastPass	ES	GRATIS
Secure mail for Gmail	ES	GRATIS
Enkriptagailuak	IN	GRATIS
Free Holder Hider	IN	GRATIS
Axcrypt	IN	GRATIS
Saltify	IN	GRATIS
Duplicati	IN	GRATIS
Hat (online)	ES	€
Cryptext	ES	GRATIS

Erlazionatutako produktu gehiago: www.spri.eus/euskadinnova



GOMENDIOAK

- ✚ **Garrantzitsua** da gure datuen **segurtasun-kopia*** bat egitea ekipo informatikoekin arazoren bat gertatzen bada egindako lana ez galtzeko. Segurtasun-kopia* horrek eguneratuta, irisgarri eta etiketatuta egon behar du.
- ✚ **Programatu abisu bat** aldizkakotasunez segurtasun-kopiak* egin behar dituzula gogorarazteko edo erabili astero segurtasuneko kopia bat programatzea ahalbidetzen duen programa bat.
- ✚ Garrantzitsua da segurtasun-kopiak gailu batean baino gehiagotan egitea eta haien **kokapena ez** izatea **berbera**.
- ✚ **Eguneratuta izan zure antibirusen* bertsioak**; izan ere, egunero birus gaizto berriak sortzen dira eta zure ekipoak eta informazio elektronikoa horietatik defendatu behar duzu.
- ✚ **Babestu zure ordenagailua gakoarekin** hirugarren batzuek ez ditzaten datuak eskuratu eta hala DBLOren baldintzak eta kalitate arlokoak bete ahal ditzazun.
- ✚ **Ez ahaztu**: tresna horiek instalatuta izan arren, **adi** egon behar dugu sor daitezkeen arazo posibleen aurrean. Informatuta egon hemen: www.basquecybersecurity.eus

Laguntza eta
euskarria

900 92 93 93



ZER DA?

Enpresan erabiltzen duzun informazio guztia Interneteko gune batean modu seguru eta antolatuan, sarbide bizkorrekin eta edozein tokitatik, baina finkatutako erabiltzaileen konfigurazioaren arabera kontrolatuta gordetzeko zerbitzuak dira.



Inplantatzeko moduak



HORNITZAILEA



FORMAKUNTZA



INPLANTALARIAK



AUTO
INPLANTAZIOA

ZER EGITEN DU?

- Edozein tokitatik eta Interneterako sarbidea duen edozein gailurekin (ordenagailua, telefonoa, tableta...) Interneteko postontzi horretan gordeta dauden fitxategietara, dokumentuetara, argazkietara eta abarretara segurtasunez sartzea ahalbidetzen du (zu eta/edo zuk nahi dituzun pertsonak bakarrik sartuko zarete) zure ordenagailua erabili beharrik gabe. Erabiltzaile-izena eta pasahitza behar dira bertara sartzeko.
- Interneteko zure gunean bezeroei, hornitzaileei edo laguntzaileei sarbidea ematen dienez, elkarlanean aritzeko aukera ematen du. Hala, informazioa partekatu edo dokumentu berberetan aldi berean lan egiteko aukera ematen du.



ZER EKARPEN EGITEN DIZU?

- Erosotasuna, informazioa eta aplikazioetara* edozein tokitatik eta edozein unetan sarbidea ematen duelako. Izan ere, Interneterako sarbidea duen edozein gailu erabil daiteke, eta ez du zurea izan beharrik.
- Kostuak eta denbora aurrezten dira hornitzaileak edo bezeroak informazioa sartzea ahalbidetzen baduzu. Horri esker, mezularitza-zerbitzuen bidez dokumentuak bidaltzea edo lekualdatzea ekiditen da.

NOLA FUNTZIONATZEN DU?

- Biltegiratu nahi duzun informazio motaren arabera, aplikazio* egokiena aukeratu behar da. Deskargatu edo erregistratu ondoren, segurtasunez biltegiratzea eta sartzea ahalbidetzeko konfiguratu beharko da.
- Karpeten* eta fitxategien egitura argi eta intuitiboan sortu beharko duzu. Partekatu nahi duzun karpetaren bat badagoen erabaki beharko duzu. Aplikazio* batzuetan, hodeiko zure gunean dauden karpeten eguneraketa automatikoki egiten da Interneterako konexioa dagoen unean zure ordenagailuan gordeta dauden karpetekin.
- Horren ondoren, besterik gabe, gorde edo partekatu nahi dituzun fitxategi eta artxiboak hodeian* biltegiratu beharko dituzu.
- Dokumentu horietarako sarbidea beste batzuek partekatutako sarbidea izan daiteke; hala, hainbat lagunek aldi berean dokumentu berean lan egiteko eta bertara sartzeko aukera izango lukete. Hau da, ez da beharrezkoa bakoitzak dokumentuak bere ordenagailuan deskargatzea; hori beharrean, Interneteko gune partekatu batean biltegiratuta dagoen dokumentuan egingo dute denek lan.
- Eskuratu hodeian biltegiratutako guneetan DBLOa betetzen dela ziurtatzeko bermeen inguruko informazioa. Eusko Jaurlaritzaren Metaposta zerbitzuak bermatutako zerbitzu hori eskaintzen du.
- Aurkezpenak edo material komertziala online eguneratzeko edo aurkezteko gorde dezakezu, eta kudeaketako aplikazioak diseinatu zure bezeroak hodeian dagoen datu-base batean biltegiratzeko.
- Bestalde, nahi duzuna idatzi eta marraztu ahal izateko eta gero beste aplikazio batzuekin sinkronizatzeko zure agenda digitala sortzea ahalbidetzen du. Horri esker, informazioa edozein gailu eta tokitatik izango zenuke eskuragarri.
- Konbinatu idazketa digitala sailkatzeko eta bilatzeko funtzio ahaltsuekin. Hori guztia hodeian biltegiratzea sinkronizatuz egingo da gailu ugariaren bidez (ordenagailua, smartphonea, tabletak) erregistratzeko eta/edo sarbidea izateko.



Katalogo honetan eskaintzen den zerrenda prestatzeko garaian laguntzaileek emandako erreferentzia baino ez da.

Soluzio hori eskaintzen duten produktuak ugari direnez, zure ohiko hornitzaile teknologikoarengana jotzea gomendatzen dizugu.

IKONOEN ESANAHIA



EUSKERA



ERDERA



INGELESA



KOSTUA



DOAKOA

HIZKUNTZA

PREZIOA

PRODUKTUAK

OROKORTASUNERAKO BILTEGIAK

[Metaposta](#)



[OwnCloud](#)

[Zoho Show](#)

[Zoho Creator](#)



[Dropbox](#)

[Scribd](#)

[Yousendit](#)

[Google Drive](#)



BIDEO-AURKEZPENETARAKO ARGAZKIETARAKO BILTEGIAK

[You tube](#)

[Slideshare](#)

[Powtoon](#)

[Flickr](#)

[Google Fotos](#)

[Prezi](#)

[Facetime](#)



DOKUMENTUEN KUDEATZAILEA

[OpenKM](#)



Erlazionatutako produktu gehiago: www.spri.eus/euskadinnova

GOMENDIOAK



- Etan zerbait gertatzen bazaio zure negozioaren informazio guztia biltegitratzen duzun ordenagailuari, diskoari edo beste gailu fisikoren bati? Hodeian* biltegitratuta izateak kezka horretatik **aske** uzten zaitu. Izan ere, **Segurtasun-kopia*** automatiko gisa jarduten du, zure fitxategiak Interneteko gune batean biltegitratuta daude eta ez daude lan egiten duzun ordenagailuaren mende. Hala, ordenagailua hautsiz gero, informazioa galtzea ekiditen da.
- Garrantzitsua da fitxategiaren izena eta ordena: sortu **fitxategien egitura erraz eta soila**, uneoro behar duzun informazioa bizkor topatzen lagunduko dizuna.
- Pasahitza eta erabiltzaile-izena:** Erabili erraz gogoratuko dituzun izen eta gakoak, baina segurtasunez beti. Kontsultatu "Segurtasun logikoa" EIKT soluzioa.
- Sinkronizatu** zure gailu denak. Egin lan hailetako edozeinetatik eta eguneratu automatikoki gainerakoak.
- Garrantzitsua da kontuan izatea zure ekipoa (ordenagailua) gordetako informazioak segurtasun logikoko tresnaren bati lotuta egon behar duela (**antibirusa* eta backupak**) informazioa galduz gero (edozein arrazoi dela eta) berreskuratu ahal izateko; adibidez, disko gogorak akatsen bat balu edo ordenagailua matxuratuko balitz. Kontsultatu "Segurtasun logikoa" EIKT soluzioa.
- Kontuan izan behar duzu **Datuak Babesteko Lege Organikoa** (DBLO), izaera pertsonaleko datuak (euskarri fisikoan edo digitalean) erabiltzen dituzten enpresa guztiek derrigor bete behar dutena. Betebehar horiek egunean izateko, mikroenpresei modu espezifikoan zuzendutako prestakuntza-ikastaroak dituzu (kontsultatu ikastaroen agenda).
- Partekatu** dokumentazioa bezeroekin sare berean egon beharrik izan gabe eta egin lan haiekin batera denbora aurrezteko.

Laguntza eta euskarria

900 92 93 93



ZER DA?

Enpresa bateko kudeatzaileen eta langileen arteko elkarlana, hornitzaile edo laguntzaileekin, eta bezeroekin egindakoa errazten duten tresnak dira. Izan ere, elkarrekin dokumentu berberen gainean lan egitea errazten dute, toki fisiko berean kokatuta egon beharrik izan gabe.



Implantatzeko moduak



FORMAKUNTZA



INPLANTALARIAK



AUTO
INPLANTAZIOA

ZER EGITEN DU?

- Elkarrizketak berehalako testu-mezu bidez izatea ahalbidetzen dute (publikoak edo pribatuak, banakakoak edo taldekoak) DBLO beteta. Gainera, gehieneko neurria duten fitxategiak, ahots-mezuak eta bideoak (bideokonferentziak) smartphone bidez zein ordenagailutik hainbat tokitan kokatuta dauden pertsonen artean bidaltzea ahalbidetzen du.
- Beste langile, hornitzaile eta bezero batzuekin bileretako agendak, bisitak edo erreserbak partekatzea eta kudeatzea ahalbidetzen dute.



ZER EKARPEN EGITEN DIZU?

- Aurrezkia komunikazioetan; izan ere, dokumentuak zure langileekin, hornitzaileekin edo administrazio-zerbitzuekin parteka dezakezu eta haiei bidali, telefoniako edo mezularitzako inolako kosturik gabe.
- Erosotasuna eta aurrezkia joan-etorrietan; izan ere, solaskide guztiek toki berean egon beharrik gabe, zure langileekin edo hornitzaileekin hitz egin dezakezu.
- Arintasuna komunikazioan eta antolaketa langileen artean; izan ere, denek aldi berean kontsultatu eta iruzkindu ahal izango duzue lantzen ari zareten dokumentua.

NOLA FUNTZIONATZEN DU?

- Aukeratu interesatzen zaizun aplikazioa*, deskargatu Internetetik eta sortu kontu bat erabiltzailearen datuak erregistratuta.
- Partekatutako agenden kasuan, haiekin lanean hasteko beharrezkoa da informazioa partekatuko duten erabiltzaileak definitzea. Kontuan izan behar da egutegi berean hainbat pertsonarekin partekatutako agenda ezberdinak izan ditzakegula (hornitzaileekin, aholkularitza-enpresarekin, jabe beraren establezimendu batzuen artean...).
- Komunikazio-tresnak erabiltzeko (txata, audiokonferentziak eta bideokonferentziak), nahikoa da komunikazioa izan nahi dugun pertsona haiek sartzea, gonbidatzea edo haien lagun egitea haien kontaktu-zerrenda, eta bi erabiltzaileak aldi berean konektatuta egotea testu-mezuak, ahots-mezuak eta/edo bideoak partekatu ahal izateko.
- Tresna mota horiek erabiltzeko eta emaitza ona izan dadin, Interneterako sarbidea izan behar duzu segurtasun-bermeekin eta arrazoizko sarbide-abiadurarekin, arrazoi teknologikoek eragindako etenaldiak edo itxaroteak ekiditeko. *Kontsultatu "plataforma ofimatikoa"* EIKT soluzioa.
- Informazioa hainbat formatutan (audioa, testua, bideoa eta abar) parteka dezakezu posta elektronikoen* moduko tresnetara jo beharrik izan gabe.
- Zure egutegi denak sinkronizatzea (hodeikoa, smartphonekoa eta beste batzuk) eta egutegi bakarrean zure hitzordu edo gertaera guztiak formatu konfiguragarrien (kolore ezberdinak) arabera bereizita bistaratzea ahalbidetzen du.
- Bideokonferentziari esker, aurrez aurre hitz egin dezakezu beste pertsonarekin telefonoz hitz eginda baino modu errazagoan konektatuta. Horri esker, enpresa arloko lankidetzak eta akordioak modu presentzialean bezala egitea errazten da.



Katalogo honetan eskaintzen den zerrenda prestatzeko garaian laguntzaileek emandako erreferentzia baino ez da.

Soluzio hori eskaintzen duten produktuak ugari direnez, zure ohiko hornitzaile teknologikoarengana jotzea gomendatzen dizugu.

IKONOEN ESANAHIA



EUSKERA

HIZKUNTZA



ERDERA



INGELESA



KOSTUA



DOAKOA

PREZIOA

PRODUKTUAK

POSTA ELEKTRONIKOA*

[Google Apps](#)



HAINBATEN ARTEKO ELKARRIZKETA

[Skype](#)

[Telegram](#)

[Whats App Web](#)

[Hangouts](#)

[Whats App Business](#)

[Slack](#)

[Zoom](#)

[Google Meet](#)



[Pinger](#)

[Appear](#)

[Jitsi Meet](#)

[Mentimeter](#)



[Webex](#)

[Zopim](#)

[Microsoft Teams](#)



KOORDINAKETA

[Zoho Calendar](#)

[Google Calendar](#)

[Google Classroom](#)

[Sesame](#)

[Screem](#)

[Calengoo](#)

Online arbelak:

[Miro](#)

[Padlet](#)

[Jamboard](#)

[Pushbullet](#)

[Business Calendar](#)

Lan kolaboratiboa:

[Mindmeister](#)

[Whimsical](#)



Erlazionatutako produktu gehiago: www.spri.eus/euskadinnova

GOMENDIOAK



- Internetek eskaintzen dituen doako komunikazio-tresnak erabiltzen badira, zure negozioaren **telefono-faktura gutxitu egiten da**, Interneteko linearen kostu finko bakarrarekin.
- Oso erabilgarria izango da negozioa kudeatzeko garaian langileek sartzeko baimena izango duten **partekatutako dokumentu eta agendak izatea**; hala, bileretako datak, bezeroen bisitak, fakturen bidalketak eta beste lan batzuk erraz daitezke.
- Aurreztu** denbora eta dirua lekuz aldatu beharrik izan gabe behar duzun ordenagailura urrunetik konektatuta.
- Zure mugikorrean tresna** hauek erabiltzeak bulegotik ateratzen zarenean zure bezeroekin harremanetan jarraitzea ahalbidetuko dizu.
- Eskaini zure bezeroei **onlineko beste zerbitzu batzuk**.

Laguntza eta euskarria

900 92 93 93



ZER DA?

Internetera sartzeko orrialdea, zure webgune gogokoenen arabera pertsonalizatutakoa. Enpresa-jardueran ohikotasunez erabiltzen dituzun webguneetarako sarbideak multzokatzeko eta antolatzeko aukera ematen du. Idazmahai honetarako sarbidea Interneterako konexioa duen edozein gailu edo ordenagailutatik egin daiteke.



Implantatzeko moduak



FORMAKUNTZA



INPLANTALARIAK



AUTO
INPLANTAZIOA

ZER EGITEN DU?

- Internetera sartzen zarenean azaltzen den lehen orrialde hori (ordenagailuaren hasiera-orria) pertsonalizatuta egotea eta gehien interesatzen zaizkizun Interneteko edukietarako sarbidea duzun tokietan irigarri egotea ahalbidetzen du: posta elektronikoa*, agenda, albisteak, sare sozialak, txata, bideokonferentzia, trafikoa, mapak eta abar. Gainera, beharrezkoa balitz, zure pasahitzak gordetzen ditu.
- Hasiera-orri hau zure Interneteko gunean (hodeian) dago. Ondorioz, erabiltzen duzun edozein ordenagailutatik izango duzu bertara sarbidea, erabiltzaile-izen eta pasahitz banarekin zure idazmahai birtualera konektatu hutsarekin.



NOLA FUNTZIONATZEN DU?

- Lehenengo eta behin, beharrezkoa da onlineko idazmahaiko erabiltzaile* gisa erabiliko den posta elektronikoko* helbide bat izatea aukeratutako aplikazioan* altan emateko. *Kontsultatu "Onlineko komunikazioa"* EIKT soluzioa.
- Jarraian, hasiera-orria pertsonalizatzen da webguneen bilaketa-koadroa eta aplikazioetarako* edo edukietarako (interesekeko webguneak) esteka ugari instalatuta. Eskuragarri dauden esteka ugarietatik hautatzen dira.
- Pertsonalizazio hori egokitu, ezabatu edo aldatu egin daiteke estekak gehituta edo ordena aldatuta. Edukia erlaitzen arabera antolatu, itxura aldatu, idazmahaia beste erabiltzaile batzuekin partekatu eta abar egin daiteke.
- Konfiguratutakoan, Internetera sartzean, lehenengo eta behin webgune pertsonalizatu horretara sartuko gara eta, bertatik, aukeratutako edozein aplikazio* edo edukitara.

ZER EKARPEN EGITEN DIZU?

- Erosotasuna, orrialde bakar batetik honako hauetara sarbidea izateko: posta elektronikoko* postontzi ugarietara, Interneteko biltegiatze espaziora, foroetan eta zure negozioa edo sektorea hizpide duten txatetara, hornitzaile baten helbidea bilatzeko zerbitzuetara eta helbide hori mapa batean topatzeko zerbitzuetara, zure bezeroei mugikorrerako doako mezuak bidali ahal izateko zerbitzuetara eta abarretara.
- Bilaketak edo ohikoenak diren orrietara sarbidea izateko erabiltzaileak eta pasahitzak etengabe sartu behar izatea desgerraraztea.



Katalogo honetan eskaintzen den zerrenda prestatzeko garaian laguntzaileek emandako erreferentzia baino ez da.

Soluzio hori eskaintzen duten produktuak ugari direnez, zure ohiko hornitzaile teknologikoarengana jotzea gomendatzen dizugu.

IKONOEN ESANAHIA



EUSKERA

HIZKUNTZA



ERDERA



INGELESA



KOSTUA



DOAKOA

PREZIOA

PRODUKTUAK

[Netvibes](#)

IN



[Windows Live](#)

ES



[Linktree](#)

IN



Erlazionatutako produktu gehiago: www.spri.eus/euskadinnova



GOMENDIOAK

- } **Eguneratuta izan hasiera-orria** une bakoitzean behar dituzun aplikazioekin* eta estekekin.
- } **Ordenatu edukiak** gehien erabiltzen dituzun aplikazioak* lehen begiradan ikusteko moduan izateko moduan, eta ordenatu gainerakoak bi kliken bidez sartu ahal izateko erlaitzetan.
- } Gogoan izan: laneko hasiera-orria da eta, horrenbestez, **hautatu** zure lanerako beharrezkoak diren eta denbora kentzen ez dizuten **webguneak**. Lanak erraztu eta denbora aurreztu behar digun laneko tresna da; ez ezazu behar ez dituzun aplikazioekin* gainkargatu.
- } Erabili **zure lan-ingurunea edozein tokitan** nahiz eta ez egon zure ekipoen. Hala, produktiboagoa izango zara.

Laguntza eta
euskarria

900 92 93 93

AUTO IMPLANTACIÓN

- Zure negozioia Gogoe Maps-en moduko mapean ateradadin, aldez aurretik alta eman beharko duzu zure negozioa topatzea ahalbidetzen duen informazioarekin, eta informazio baliagarria zehastu: jarduera edo ezkaintzen dituzun produktu/zerbitzu motak, eskaintzak eta abar.



Katalogo honetan eskaintzen den zerrenda prestatzeko garaian laguntzaileek emandako erreferentzia baino ez da.

Soluzio hori eskaintzen duten produktuak ugari direnez, zure ohiko hornitzaile teknologikoarengana jotzea gomendatzen dizugu.

IKONOEN ESANAHIA



EUSKERA



ESPAÑOL



INGLÉS



COSTE



GRATUITO

IDIOMA

PRECIO

PRODUKTUAK

MAPA BIRTUALAK

[Google Maps](#)
[Google Maps para móviles](#)
[Google + Local](#)
[Google Earth](#)
[Códigos QR](#)
[Dynamic QR](#)
[Bing Places for Business](#)
[QR Stuff](#)

ES



IN



DOMEINUAK

[Dominios.tel](#)

IN



QR KODEAK - Bizkor sartzeko kodeak

[i-nigma QR Code](#)
[QR Droid Code Scanner](#)
[QRCode Monkey](#)

ES



Lotutako produktu gehiago : www.spri.eus/euskadinnova

GOMENDIOAK



- Eskaia bezeroei **QR kodeak irakurtzeko beharrezko programak**, zure webgunetik deskargatzeko sarbidea eskainita.
- Jarri zure QR kodea zure lokalean **erraz ikusteko tokian**, zure **txartel edo produktuetan** eta **webgunean (sare sozialetako zure profilean, zure web-atarian, erlazionatutako foro edo blogetan, mapa birtualean...)**, bezero posibleek ikusi eta haiengan jakin-mina sor dezan (marketin berritzaileko estrategia da).
- Eguneratu mapa birtuala** negozioaren berrikuntzekin, argazkiekin eta abarrekin...
- Gehitu **eskaintza birtualak** QR kodeetan, gailu mugikorretan irakurri ostean, bezeroak zure negoziara gertura daitezen eskaintza lortzeko.
- Posiziona zaitez** hobeto Interneten zure bezero ohikoenei iruzkinak eskatuta.
- QR kodea argitaratutakoan, **hedatu sareko puntuetan** (irudi gisa presentzia duzun tokietan). Kontsultatu "Sareko negozioa dinamizatzea! EIKT soluzioa.
- Tresna mota horrekin, honako hau lortuko duzu Smartphone bat duen edozein erabiltzailerengandik:
 - Zure negozioaren kokapen zehatza izatea une horretan bere posizioa zein den zehastu hutsarekin.
 - Interneten bilaketa egitea eta zure negozioa bizkor eta arin topatzea.
- Gogan izan: mapa birtualean QR kodea txertatzea komeni da.
- Erabili errealitate areagotuko teknikak zure produktuak sustatzeko eta bezeroei esperientzia berri bat eskaintzeko.

Asistencia y Soporte

900 92 93 93



ZER DA?

Zure enpresari marka-irudia eta prestigioa emango dizkion Interneteko leihoa dira; izan ere, sarea 24 orduz irekita eta munduko edozein tokitatik ikusgai dagoen ingurunea da. Bertan daude gaur egungo zure bezeroak eta, batez ere, bezero potentzialak eta, ondorioz, bezero potentzialak lortzeko toki ezin hobea da.



Ezartzeko moduak



PROVEEDOR



FORMACIÓN



INPLANTALARIAK



AUTO
INPLANTACIÓN

ZER EGITEN DU?

Erakutsi zure enpresako informazioa modu errazean, integratuan eta milioika pertsonarentzat modu irisgarrian negozioaren irudi digitalaren bidez (presentzia birtuala Interneten). Irudi hori zuk sortu eta mantendutakoa izango da, eta edozein ordu eta tokitatik Interneteko edozein erabiltzailearentzat irisgarria.

Bilatzaileetan behar bezala posizionatuta egon behar du, bezero potentzialek bizkor eta modu intuitiboan topa dezaten (ez dadin sareko beste toki bat bihurtu).

Negozioaren marka-irudiarekin identifikatuta dagoen domeinu propioa izanda, negozioa URL (Interneteko helbidea) bati lot dakioke eta horrek negozio digitalaren irudi hobea ematen du.



ZER EKARPEN EGITEN DIZU?

Produktu edo zerbitzu, eskaintza edo sustapen berrien doako sustapena bezero potentzialeei. Informazioaren eta komunikazioaren teknologietara egokituta dagoen enpresa-irudia proiektatzen du.

Produktu eta sustapen berriak hedatzeko garaian berehalakotasuna. Ugaritu egiten da hartzaile izan daitezkeen aukera. Kontsumitzaileen ehuneko handi batek, kontsumitu aurretik, sarean informazioa bilatzen du.

Zure produktu eta/edo zerbitzuez hitz egiten duten sareko tokietan presentzia

NOLA FUNTZIONATZAN DU?

Puntu bakarra eta eguneratua izatea komeni da, bezero potentzial batek zure enpresaren inguruko benetako ezagutzak eskura ditzan. Horretarako, gutxienez, negozioaren, eta eskaintzen dituen produktu eta zerbitzuen inguruko oinarritzko informazioa izan beharko du.

LSSICE Legea bete beharra dago (Informazioaren eta Merkataritza Elektronikoen Gizartearen Zerbitzu Legea). Honako hauek xedatzen ditu:

- Webgunean argi eta garbi zehaztu behar dira enpresaren izena, izen soziala, helbidea eta posta elektronikoa.
- Erregistroan izena emateko datuak.
- Identifikazio fiskala.

Hasteko, presentzia birtuala antola dezakezu, negozio hori topatu eta zer egiten duten jakiteko beharrezkoa den informazioa eskaini dezan:

- Aurkezpena: nor den, zer egiten duen, zertan bereizten den, zure harremanetarako datuak, eskaintzak, berrikuntzak, zure negozioaren inguruko munduari buruzko gaurkotasuneko albisteak, gertakariak...
- Kokapen birtuala: harremanetarako datuak eta helbidea, sarbide bizkorreko kodean barneratuta, eta mapa birtual baterako esteka, negozioa kokatu ahal izateko. Kontsultatu "Posizionamendu birtuala" EIKT soluzioa.
- Produktuen katalogoa: eskainitako produktu/eta edo zerbitzuen zerrenda, haien ezaugarri eta prezioak argi eta garbi zehaztuta.
- Webgunean igotako argazkien eta bideoen galeria, sareko punturen baten bidez lotuta. Kontsultatu "Hodeiko biltegitratzea" EIKT soluzioa.
- Negozioa Interneten posizionatuta dagoen beste edozein kanaletarako estekak. Kontsultatu "Sareko negozioa dinamizatzea" EIKT soluzioa.

Webunearen helbideak ahalik eta adierazgarriena izan behar du; hau da, enpresa ezagutzen deneko izena mantendu behar da eta, horretarako, domeinua erostea eta presentzia birtuala (web-ataria edo Interneteko beste agerraldi batzuk) bertara birbideratzea gomendatzen da. Enpresaren izenak karaktere bereziak balitu, hori egokitzen duen programaren bat erabili behar da.

Urrats horiek eman ondoren, Interneteko presentzia hobetzen jarraitu nahi baduzu, Kontsultatu "Publizitatea Interneten" EIKT soluzioa.



Katalogo honetan eskaintzen den zerrenda prestatzeko garaian laguntzaileek emandako erreferentzia baino ez da.

Soluzio hori eskaintzen duten produktuak ugari direnez, zure ohiko hornitzaile teknologikoarengana jotzea gomendatzen dizugu.

IKONOEN ESANAHIA



EUSKERA



ESPAÑOL



INGLÉS



COSTE



GRATUITO

IDIOMA

PRECIO

PRODUKTUAK

EDUKINEN KUDEATZAILEA

[Google Sites](#)



[Wordpress](#)

[Wix](#)

[Test optimización para móviles](#)



URL HELBIDEEN KUDEATZAILEA

[Punycode](#)

[Bitly](#)

[Linktree](#)

[Beacons](#)

[Tinyurl](#)

[Labur](#)



SALMENTA KATALOGOA

[ISSUU](#)



SEO EKINTZAK

[SEOmoo](#)

[SEOBook](#)

[Advanced Web Ranking](#)

[Ubersuggest](#)

[SEOpowerSuite](#)

[Woorank](#)

[Majestic](#)

[SEOquake](#)

[Semrush](#)

[Google Trends](#)

[Google Search Console](#)

[Utilidad de Google](#)

[Answer the public](#)

[WebPageTest](#)

[PageSpeed](#)

[Squooos. Compresor de imágenes](#)

[Keywords tool](#)



Lotutako produktu gehiago : www.spri.eus/euskadinnova

GOMENDIOAK

- Argitaratu produktu edo zerbitzu berriak, eskaintzak eta informazio interesgarria zure webgunea eguneratuta izateko. Gogoan izan: eguneratuta ez dagoen edo zaharkituta dagoen webgune batek bezero potentzialak atzera bota ditzake eta negozioaren irudi zaharkitua eskaini eta posizionamendua kalte dezake.
- Kontuz aukeratu zure webgunearen **domeinuaren izena**, zure enpresa ordezkatu behar duela eta gogoratzeko erraza izan behar duela kontuan hartuta. Gainera, sare sozialetan eta komertzio arloan erabilitako izenarekin bat etorri behar du zure bezeroek errazago topa dezaten.
- Webgune berriak denentzat irisgarria eta **intuitiboa** izan behar du. Argia ez bada edo atsegina ez bada, baliteke erabiltzaileak deseroso sentitzea eta ez dute gure webgunean denbora asko emango.
- Webguneak gailu guztietatik **ikusgai** egon behar du eta bertako informazioa bizkor kargatu beharko da.
- Oso garrantzitsua da eskuragarri dauden **irudi eta fitxategien kalitatea** (audioa, bideoa ...) eta, horretarako, erabili material mota hauek optimizatuko dituzten utilitateak. Kontsultatu "Utilitateak" EIKT soluzioa.
- Optimizatu webgunea **bilatzaileetako posizionamendurako** (SEO: Search Engine Optimization). Horretarako, webgunea osatzen duten orrialdeetan ekintzak bideratu behar bezala indexatu eta bilatzaileetako lehen posizioetan azal dadin.

Asistencia y
Soporte

900 92 93 93



ZER DA?

Mundura irekita dagoen erakusmahaia da eta, horren bidez, zure bezeroekin (edozein tokian daudela eta) elkarri eragingo diozue, zure negozio fisikora gerturatu beharrik izan gabe, baina zerbitzu mailari eutsita.

ZER EGITEN DU?

- Enpresaren aurkezpena eta bezero potentzialekin komunikazio zuzena eta pertsonala izateko bidea eskaintzen du salmenta potentzial bat sustatzeko eta negozioa bezeroen beharren arabera egokitzea ahalbidetzen duten eskari berriak biltzeko.
- Presentzia birtualaren antzekoa da, baina bezeroarekin elkarri eragiteko elkarriketa-kanalak gehituta.
- Elkarrekintza hori formularioen edo sare sozialetako edo foroetako profiletarako sarbidearen bidez egin daiteke. Bezeroarekin onlinekoa, berehalakoa eta doakoa den komunikazioa ahalbidetzen dute bezeroak informazioa eskatzeko (eskariak, erreserbak, aurrekontuak...) edo produktu edo zerbitzu berriak edo horien egokitzapenak eskatzeko edo iradokitzeak aukera izan dezan.



ZER EKARPEN EGITEN DIZU?

- Webgunean eskuragarri jarri dituzun kanalen bidez zurekin batera jarduten duten bezeroei buruzko datuak jasotzea eta onlineko marketina* egitea jasotako datuekin (DBLO betetzea bermatuta).
- Bezero potentzialekin harremanetan jartzea online, presentzia fisikoaren beharrik gabe. Gaur egungo bezeroak informatu ondoren egiten ditu erosketak, baina gutxiago kostatzen zaio informazioa online eskatzea establezimendura joatea baino.
- Eskaera/iradokizun/kexa bati berehala erantzutea, liskarra ekidinda.



Ezartzeko moduak



PROVEEDOR



FORMACIÓN



INPLANTALARIAK



AUTO IMPLANTACIÓN

NOLA FUNTZIONATZEN DU?

- LSSICE Legea** bete beharra dago (Informazioaren eta Merkataritza Elektronikoen Gizartearen Zerbitzu Legea). Kontsultatu "Presentzia birtuala" EIKT soluzioa.
- Bezeroarekin benetako elkarrekintza izatea ahalbidetzen duten tresnak izan behar ditu: formularioak, foroak, wikiak eta beste era bateko sustapenak:
 - Zuzendutako sustapena: berrikuntzak eta sustapenak gehitzeko aukera, horiek aldi berean posta elektronikoz* harpidetutako erabiltzaile guztiei bidalita RSSen* bidez; hala, zure atarira harpidetu diren erabiltzaileek (RSSetan harpidetuta) atarian argitaratzen dituzun eduki berri guztiak jasoko dituzte doan.*
 - Sarreraren egutegia: indarrean dagoen hilabeteko egutegia erakustea azken sustapenekin, gertaerekin, ...*
 - Inkestak: produktu-zerbitzu berrien eskaerekin lotutako laginak, iritziak... jasotzen dira bertan. ...*
 - Estekak: zure negozioarekin lotutako beste orrialde batzuekiko estekak posizionamendua hobetzeko. Kontsultatu "Marketin sektoriala" eta "Publizitatea Interneten" EIKT soluzioa".*
 - Negozioa sarean dinamizatzea: sare sozialetan enpresako profiletara estekak izatea bezeroari komunikazio-kanal dinamikoagoa emateko Kontsultatu "Sareko negozioa dinamizatzea" EIKT soluzioa".*
 - Mugikorrerako bertsioa: atariak gailu mugikorraren bidez bistaratu ahal izateko egokituta egon behar du mugikorraren bidez nabigatzen duten bezeroak (gehiengoa dira dagoeneko) ez galtzeko.*
 - Salmenta: produktu edo zerbitzuen katalogoaren argitalpenaz, sustapenez eta eskaintzez baliatuta, eta eskariak formularioen bidez jasota, ataria onlineko salmentarako kanal gisa erabil daiteke inbertsio handien beharrik gabe. Kontsultatu "eCommerce atariak", "Denda birtualetan egindako salmenta" edo "Nire onlineko denda" EIKT soluzioa".*
 - Posta elektronikotik argitaratzea*: edukiak posta elektronikotik* automatikoki eguneratzea ahalbidetzen du. Hala, albisteak edozein tokitatik igo daitezke.*



Katalogo honetan eskaintzen den zerrenda prestatzeko garaian laguntzaileek emandako erreferentzia baino ez da.

Soluzio hori eskaintzen duten produktuak ugari direnez, zure ohiko hornitzaile teknologikoarengana jotzea gomendatzen dizugu.

IKONOEN ESANAHIA



EUSKERA



ESPAÑOL



INGLÉS



COSTE



GRATUITO

IDIOMA

PRECIO

PRODUKTUAK

EDUKIEN KUDEATZAILEA

[Google Sites](#)



[Wordpress](#)

[Webbly](#)

[Facebook](#)



INKESTA PUBLIKOAK

[SurveyMonkey](#)



ONLINEKO DENDA

[HashTracking](#)



Lotutako produktu gehiago : www.spri.eus/euskadinnova



GOMENDIOAK

- › Egokitu irekita dituzun **beste kanal batzuetarako estekak** (foroak, blogak, sare sozialetako profilak...).
- › Eman denbora **harremanetarako formulario erakargarria** diseinatzen; betetzeko atal gutxi izan behar ditu, baina informazio baliotsua ateratzea ahalbidetu behar du.
- › Ez ahaztu datu horien erabilera baimentzearekin lotutako erreferentzia gehitu behar duzula, **DBLO** betetzea bermatzeko..
- › **Aztertu atariak jasotzen dituen bisiten estatistikak**: bilaketako hitzen, tokien, bilatzaileen eta abarren araberakoak..
- › Atari Interaktiboak **datu guztiak eguneratuta** izan behar ditu, baina are gehiago produktu eta/edo zerbitzuak eta eskuragarri dauden komunikazio-kanalak bezeroak izan ditzakeen beharrei ahalik eta denbora-tarte laburrenean erantzuteko.
- › **Zure bezeroen beharren inguruan** jasotako informazioarekin, zure zerbitzu/produktua haien eskaeren arabera egokitu ahal izango duzu edo, nahi izanez gero, haien eskaerei aurea hartu eta joera ezarri..

**Asistencia y
Soporte**

900 92 93 93



ZER DA?

Gai jakin bati, zure negozioari edo zure enpresa-inguruneari buruz sare guztian (orrialdeetan, blogetan edo sare sozialetako profiletan) aipatzen denaren inguruko abisuak jasotzeko zerbitzua da. Hala, webean negozioak duen irudia kudea daiteke.



Ezartzeko moduak



PROVEEDOR



FORMACIÓN



INPLANTALARIAK



AUTO
IMPLANTACIÓN

ZER EGITEN DU?

- › Zure enpresa presente dagoen kanaletan gertatzen diren eguneraketak jasotzen dituen abisua bidaltzen du posta elektronikoa* bidez (post*, iruzkin edo mezu berrien aurrean, edo beste edozein profiletako postekin eta iruzkinekin). Hala, jasotako iruzkinak kontrola ditzakezu.
- › Eskaintzen duzun produktu edo zerbitzu bati buruz ezer aipatzen den eta non argitaratzen ari diren jakitea ahalbidetzen dizu.
- › Albisteen irakurgailuak edo agregatzaileak ordenagailuan instalatuta dauden edo webgune bidez irisgarriak diren tresnak dira. Hainbat iturritatik (informazioaren jatorri diren webguneak) informazioa jasotzea ahalbidetzen dute, egokituz jotako irizpideen arabera iragazita..



ZER EKARPEN EGITEN DIZU?

- › Nahi duzun unean (egunean, astean, hilean... behin) zure enpresaren inguruan sortzen ari den informazio guztia ezagut dezakezu presentzia duzun orrialdeetan edo sare sozialetan, nahiz eta ez izan negozio-profilik, edo zure sektoreko edo lehiakideen berrikuntzak ezagutu.
- › Eskaintzen dituzun produktu eta zerbitzuei buruzko informazioa nor, non eta noiz bilatzen ari den jakitea, hala zure negozioaren erreputazioa kontrolatu (sortzen dituen iruzkinak ezagututa) eta unean bertan erantzun ahal izanda..

NOLA FUNTZIONATZEN DU?

- › Gehienetan, beharrezkoa izaten da webgune batean erregistratzea alertak* jaso ahal izateko posta elektronikoa* emanda.
- › Nahi dugun hitzarekin alerta bat sortu behar da. Bi kasu horietan, alertak jasotzeko maiztasuna, hizkuntza eta jasotzen dituzun alertak zure interesetara ahalik eta gehien egokitzea ahalbidetuko duten xehetasun batzuk ezarri beharko dira.
- › Alertak ezarri ondoren, horiek aldatzeko aukera izango duzu xehetasun berriak sartuta, maiztasuna aldatuta eta abar. Esperientziari esker, horiek gero eta eragingarritasun handiagoz konfiguratu ahal izango dituzu.
- › Albisteen irakurgailuek edo agregatzaileek interesatzen zaizkigun elementuetan modu espezifikoan zentratzea ahalbidetzen dute. Hala, aukeratu dugun iturri bakoitzean argitaratutako artikulu berriak egoten dira ikusgai, ezer berririk badagoen egiaztatzeko hainbat orrialde bisitatu beharrik izan gabe.
- › Nabigazio-barran erakusten ditu zure kontaktuen azken eguneraketak, azken mezu eta argitalpenak...



Katalogo honetan eskaintzen den zerrenda prestatzeko garaian laguntzaileek emandako erreferentzia baino ez da.

Soluzio hori eskaintzen duten produktuak ugari direnez, zure ohiko hornitzaile teknologikoarengana jotzea gomendatzen dizugu.

IKONOEN ESANAHIA



EUSKERA



ESPAÑOL



INGLÉS



COSTE



GRATUITO

IDIOMA

PRECIO

PRODUKTUAK

SAREKO ALERTEN KUDEATZAILEAK

[Twilert](#)



[Hyperalerts](#)



[Google Alerts](#)

SAREKO INFLUENTZIA KUDEATZAILEAK

[My Web career](#)



[Derecho al olvido](#)



ALBISTEEN IRAKURGAILUAK EDO AGREGATZAILEAK

[Flipboard](#)



[Kiosko y más](#)

[Feedly](#)



Lotutako produktu gehiago : www.spri.eus/euskadinnova



GOMENDIOAK

- Doitu alerta* ahalik eta gehien, eragingarria izan dadin: Zenbat eta espezifikoagoa izan bilaketa, orduan eta erabilgarriagoak izango dira jasotzen dituzun alertak. Adibidez: Zure eremuko bezeroak bilatzeko, mugatu bilaketa-distantzia kilometrotan, aukeratu interesatzen zaizkizun erabiltzaileen hizkuntza edo iruzkina egiteko garaian duten jokabidea: positiboa, negatiboa, galdera moduan eta abar.
- Erabaki alerten abisu-maiztasun errealista, aukeratu informazioa behar bezala kudeatzeko erosoak iruditzen zaizun alerten maiztasuna: iruzkinei erantzutea, bezero posibleak bilatzea...
- Tematika eta maiztasun ezberdinetako alertak konfigura daitezke; adibidez, zure enpresaren inguruan eguneroko alerta bat konfigura dezakezu, eta lehiakideen inguruan, aldiz, asterokoa.
- Erabiltzaile aurreratuentzat, beste ingurune batzuetan integratzen diren plugin interesgarriak daude. Facebookez gain, Google Chrome eta Google Calendar baldin badituzu, pluginak instalatu eta Facebookeko gertaerak Google Calendarrera gehitu ahal izango dituzu. Plugin hori erabiltzaile, zure gertaerak Googleko egutegira bidaliko dituzu eta, hala, eguna gerturatzen denean, horren berri emango dizu.
- Sortu zure enpresari buruzko alerta sare sozialetan zutaz hizketan ari diren jakiteko..

Asistencia y
Soporte

900 92 93 93

**AUTO
IMPLANTACIÓN**



- } Onlineko salmenta izatea denda birtual propiorik gabe. Izan ere, dendak garapen eta mantentze teknologiko aditua eskatzen ditu.

PRECIO

<https://www.spri.eus/es/ayudas/inplantalariak/>



ZER DA?

Interneteko salmentarako plataforma digital baten baitako gunea da; bertan, gainera, zure produktu-zerbitzuak, iragarkiak, sustapenak eta abarrak erakusteko aukera izango duzu.



Ezartzeko moduak



PROVEEDOR



AUTO IMPLANTACIÓN

ZER EGITEN DU?

- Neurrira egindako garapena sortu beharrik gabe denda birtual bat sortzea ahalbidetzen du, egokitzen jotzen dituzun aukerekin tresna pertsonalizatuta.
- Zure dendako eduki eta alderdi bat diseinatzea, enpresaren nortasuna islatu eta erosleen aurrean berehalako sinesgarritasuna eskainiko duen ingurune komertziala sortuta.
- Sareko posizionamendua eskaintzen du gure euskarri izango den salmenta-atariaren posizionamenduari esker.
- Erosketak egiteko garaian erraztasunak eskaintzen dizkio erabiltzaileari; izan ere, oro har, atari mota horiek oso intuitiboak, erabiltzeko errazak, 24 orduko presentzia dutenak eta berehalako erantzuna eskaintzen dutenak izan behar dute.
- Bisita eta salmenten portaerak ikertzea ahalbidetzen du detektatutako beharren arabera garatzen joateko. Horretarako, aplikazioek* dituzten garapen maila ezberdinak erabiltzen dira.



ZER EKARPEN EGITEN DIZU?

- Bezeroen kopuru mugagabeari zure produktu eta zerbitzuak modu interaktiboan eta denbora errealean erosteko aukera eskaintzen die, zure negozio fisikoa handitu beharrik izan gabe eta denda birtual propio batek eskatzen dituen mantentze-teknologikoak egin beharrik gabe.
- Gehienetan, ordainketak aurrez egiten dira. Estrategikoki, horrek potentzial handia ematen dizu, stock-ik gabe lan egin baitezakezu (dirua aurreratuko balizute bezala).

NOLA FUNTZIONATZEN DU?

- Onlineko salmenta zerotik sortu beharrean, onlineko salmenta-plataformetako hornitzaileekin egiten duzu lan eta zure beharren arabera nolabaiteko egokitzapen maila duen onlineko dendari alta ematea ahalbidetzen dizute. Plataforma hauek profesional baten beharrik gabe erabiltzaileak erabil ditzan bideratuta daude. Ondorioz, erabiltzeko errazak eta intuitiboak dira eta hori abantaila da neurria prestatutako garapenaren kostuak aurrezten dituzulako, baina, aldi berean, desabantaila ere badu, produktuak lehiakideekin partekatzen baitituzu. Haietako bakar bat ere ez da doakoa; salmenta bakoitzeko komisioa edo tarifa bat kobratzen dute produktu bat online* salgai jartzeagatik.
- Salmentako zure presentzia birtuala zure web-helbide batekin (url*) pertsonalizatu edo soluzio horiek lehendik eskuragarri dagoen zure webgunean gehitu ahal izango dituzu.
- Gogoan izan: ecommerce atarian bezalaxe (Kontsultatu "Ecommerce ataria" EIKT soluzioa), produktuak aplikazioan* kargatu behar dituzu eta, horretarako, produktuak izenburu adierazgarri eta argiekin izendatu eta produktuaren deskribapen zehatza egin beharko duzu eroslea produktuaren inguruan konbentzitzen laguntzeko. Ez ahaztu: argazkiak dira produktuaren erakusleioa eta argiak eta zehatzak izan behar dute. Dena den, inbentariatze-prozesuak ez du erabilitako salmenta-plataformarekin loturarik. Kontsultatu "Onlineko Nire denda" EIKT soluzioa.
- Ordainketa-aukerak erabiltzen den plataformaren arabera izango dira. Ohikoenak jasotzean ordaintzekoa (kobratze-zerbitzu seguruaren bidez) edo bankuko transferentzia bidezkoa dira.
- Produktua ordainduta dagoenean, transakzioa egiteko erabilitako plataforma edozein izanda ere, bidalketaren kudeaketa gure esku egongo da. Hala, salmenta-atariak iragarritako produktu bakoitzeko komisioa eta egindako salmenta bakoitzeko ehunekoa jasoko ditu.
- Erosketa bakoitzaren ondoren, bezeroaren datuak izango ditugu eta, datu horrekin, zerbitzuari eta etorkizuneko interesari buruzko inkesta egitera anima dezakegu, gero, informazio hori oinarritzat hartuta, etorkizunean kanpainak egin ahal izateko.
- Gogoan izan: aurreko kasuetan bezalaxe, DBLO eta LSSICE bete behar dira. Kontsultatu "Atari interaktiboa" EIKT soluzioa.



Katalogo honetan eskaintzen den zerrenda lankideek hura egiteko agintzen duten erreferentzia bat baino ez da.

Soluzio hori eskaintzen duten produktu ugari daudenez, zure ohiko hornitzaile teknologikora jotzea gomendatzen dizugu.

IKONOEN ESANAHIA



EUSKERA



ESPAÑOL



INGLÉS



COSTE



GRATUITO

IDIOMA

PRECIO

PRODUKTUAK

[Ebay](#)

[Vendingbox](#)

[Etsy](#)



Lotutako produktu gehiago : www.spri.eus/euskadinnova



GOMENDIOAK

- Gogoan izan:** denda interesgarria, parekorik ez duena eta aurrera eta atzera ibiltzeko erraza dena sortu behar duzu. Hala, bisitariei erosketak egitea erraztu eta arrakasta izateko probabilitateak areagotuko dituzu.
- Uneoro izan **zure denda eguneratuta**; gogoan izan: denda funtzionatzen hasten denean, saltzaile gisa hobetzeko teknikak eskuratu beharko dituzu. Joan Interneten nola saldu azaltzen duten ikastaroetara.
- Denda fisikoaren kasuan bezalaxe, etengabe **hobetzen** jarraitu beharko duzu; honako hauek izan daitezke ideia batzuk: salmentan edo stockean dauden artikuluen sustapenak eskaintzea, izakinak agortzeko sustapenak erabiltzea edo oporren amaierarekin lotutako sustapenak egitea, aldizkakotasunez iragarkiak aldatzea eta abar.
- Sortu zure dendarekiko interesa:** egin beherapenak, bidali posta elektronikoz* albisteen buletinak erabiltzaileei, artikulua berriak, sasoiko artikulua edo beherapenak eta abarrak nabarmenduta...
- Aurretik garatutako eta aurrez ezarritako ordenarekin tresnen barruan salmentarako gune birtualak erabili arren, denbora pixka bat eman beharko duzu tresna hau **personalizatzen**; hala, hobekuntza errazak sartu beharko dituzu eta horiek dendari itxura profesionalagoa eta zainduagoa eman eta hura nabarmenduko dute. Horri esker, erosleentzat errazagoa litzateke artikulua bilatzea eta gainerakoengandik bereiziko zara.
- Horretarako **denbora eta gogoa** baduzu, barnera zaitez horretan, denda birtual baten konfigurazioa zure negozioarako bultzada ona izan baitaiteke.
- Hasteko, **oinarrizko denda** sortzea eta mugimenduak aztertzea gomendatzen da. Hobekuntza ikusten den unean, denda hurrengo mailara arte garatzea izaten da onena; hala, salmentak ezarritako helburuak betetzen ari direla uste dugunean, maila profesionalera igoko ginateke.
- Gure **sare sozialetako trafikoa** gure denda birtualera **birbideratzea** gomendatzen da.

Asistencia y
Soporte

900 92 93 93



ZER DA? Servicio online que te permite ofrecer y vender tus productos y servicios sin intermediarios en el expositor ilimitado que te ofrece Internet, con tu imagen y con tu proceso de venta propio.



Ezartzeko moduak



PROVEEDOR



AUTO
IMPLANTACIÓN

ZER EGITEN DU?

- “E-commerce atariak” eta “Denda birtualetan egindako salmenta” EIKT soluzioek eskaintzen dituzten funtzionalitate guztiak ditu, baina salmenta-atariaren gaineko erabateko erabakiarekin eta jabetzarekin (diseinutik hasi eta kudeaketara arte).
- Zure onlineko dendaren portadak argia eta zuzena izan behar du, eta lehen begiratuan eskaintza harrigarrienak eta “modakoenak” diren erakutsi, produktuen kategoriak ikusteko moduko tokian bizkor jarrita.
- Onlineko ordainketa egiteko eskuragarri dauden mekanismoek segurtasun maila altua eskaintzen dizute.



ZER EKARPEN EGITEN DIZU?

- Zure onlineko denda irudiarekin eta salmenta-prozesuarekin onlineko denda diseinatzea ahalbidetzen du, zure enpresako salmentarako gunea areagotuta (aukeratutako sustapena, eskaria, entrega eta salmenta osteko zerbitzua kontuan izanda).
- Hala, bitartekariak saihestu ditzakezu, baina diseinua eta kudeaketa zailtzen dira eta beharrezkoa izaten da profesionalengana (teknologikoak zein onlineko estrategia komertzialekoak) jotzea emaitza egokia bermatzeko.

NOLA FUNTZIONATZEN DU?

- LSSICE Legea bete beharra dago (Informazioaren eta Merkataritza Elektronikoen Gizartearen Zerbitzu Legea). Kontsultatu “Presentzia birtuala” EIKT soluzioa.
- Profesional batengana jo dezakezu zure onlineko denda gara dezan, baina, horren aurretik, saldu behar duzun produktu edo eduki nagusiaren inguruko ideia argia izan behar duzu. Ondorioz, online* saltzeko proiektuan barneratu aurretik, aurretiazko ideia izatea eta, ondoren, aholkularitza jaso ahal izateko, enpresa garatzailearekin laneko saioak izatea gomendatzen da. Haiek dute ezagutza teknikoak, baina gogoan izan: zu zara negozioa ondoen ezagutzen duena.
- Onlineko denda aukeratuta eta muntatuta duzunean, produktuak kargatu beharko dituzu. Produktuak kargatzeko prozesua inbentarioen sistema baten antzekoa da; kategoria batean kokatu, eta kopurua, neurriak, koloreak... sartu behar dituzu.
- Portada bat jar dezakezu eskaintzekin, produktu nabarmenekin, berritzaileenekin, erositako azkenekin... Hori beti izaten da oso deigarria eta, aldi berean, zure bezeroek hilabeteko produktuen aldeko botoa eman dezaten kanpainak, zozketak, beharpenak eta abarrak egiteko aukera duzu.
- Kontuan izan onlineko erosketak eskaintzeko aukera ahalbidetzea, erosketak-prozesua modu elektronikoa osoa izan dadin, baina ez utzi jasotzean ordaintzeko aukera eskaintzeari. Kontsultatu “Kobranta eta ordainketa segurua” EIKT soluzioa.
- Paketea prozesuan dagoenean, bezeroari horren berri eman eta beti entregarako gutxi gorabeherako epe erreala eman beharko diozu. Dena den, egia da kanpoko kausak direla eta atzerapenak gerta daitezkeela. Zure paketearen jarraipena egitea ahalbidetzen duten entrega-zerbitzuak daude. Kontsultatu “Floten kudeaketa” EIKT soluzioa.
- Gogoan izan: denda birtualak funtziona dezan, behar bezala posizionatuta eta erreferentziatuta egon behar du. Kontsultatu “Atari interaktiboa” EIKT soluzioa.
- Orrialdea prest duzunean, bezero potentzialak bertara iristen direla bermatu behar duzu; ez ahaztu sustapena egitea. Kontsultatu “Publizitatea Interneten”, “Dinamizazioa sarean”, “Marketin sektoriala” EIKT soluzioa.



Katalogo honetan eskaintzen den zerrenda lankideek hura egiteko agintzen duten erreferentzia bat baino ez da.

Soluzio hori eskaintzen duten produktu ugari daudenez, zure ohiko hornitzaile teknologikora jotzea gomendatzen dizugu.

IKONOEN ESANAHIA



EUSKERA



ESPAÑOL



INGLÉS



COSTE



GRATUITO

IDIOMA

PRECIO

PRODUKTUAK

[Facebook Payment](#)



[MercApp](#)



Lotutako produktu gehiago : www.spri.eus/euskadinnova



GOMENDIOAK

- Gogoan izan:** aurreneko iritzia izaten da erosketarekin aurrera jarraitzeko konbentzitzen duena; kontsumitzaileak produktu bat topatzeko zenbat eta urrats gehiago eman behar izan, orduan eta aukera gutxiago izango dugu saltzeko. Garatu nabigazio-egitura erraza, uneoro non gauden erakusten duena. Abandonatuta dagoen denda bat kaltegarria da irudiari dagokionez (baita salmenta fisikorako ere).
- Bezeroak** paketea jaso duenean, anima ezazu eskainitako zerbitzuaren inguruko **iritzia** ematera; gehienetan, zure lana ondo egin baduzu, boto eta iruzkin positiboak izaten dira. Dena den, iritzi guztiak oso baliotsuak izaten dira: onak, bezeroen aurrean zure prestigioari eusteko, eta txarrak, hobetzeko
- Gure salmenta-atarian nola nabigatzen den bizkor jakiteko modua da **zuzenean erosleengana** jotzea. Horretarako, erosleen artean inkesta erraz bat (intrusiboa edo nekagarria ez dena) bidera dezakegu haien iritzia jasotzeko..
- Identifikatu** zein diren eroslea erregistratzeko behar diren gutxieneko datuak; saiatu lehen puntu honetan datu gutxi eskatzen, gogaikarriak diren erregistratze-prozesuak ekiditeko. Dena den, erosketa-prozesua egitean, erabiltzaileak bere profila eguneratu beharko du iruzurrak ekiditeko datu zehatzak emanda.
- Eduki **denda eguneratuta**. Gorde produktu bakoitza bere kategorian, eguneratu irudiak eta saiatu errealitatearekin bat datorrenak izaten..
- Eskaini** bezero potentzialekin **harremana** ezartzeko moduak: gomendio edo trikimailuak, erabilgarritasunak doan eta aldizkako buletina, lehiaketak... haien e-maila ematearen truke. Hala, bezero izan daitezkeenekin harreman iraunkorra izango duzu. Ehuneko oso altu batek egingo ditu zure gunean erosketak intereseko doako informazioa eta zerbitzuak ematen badizkiezu.
- Gogoan izan:** irudi batek mila hitzek baino gehiago balio dute, baina horien neurria zaindu beharko da gure orrialdea mantsotu ez dezaten.
- Sare sozialak** erabil ditzakezu zure denda birtuala sortzeko, ezer programatu beharrik izan gabe.
- Gogoan izan: zure produktuen stocka bi salmenta-kanalen bidez aldatu egingo da orain. Ondorioz, gomendagarria izan daiteke **STA** aldatzea bi sistemak sinkroniza ditzan. Kontsultatu "Negozioaren kudeaketa integrala" EIKT soluzioa.
- Eman informazioa** uneoro bezeroari egon daitezkeen atzerapenen inguruan; seguru asko, hala, bere haserrea txikiagoa izango da eta entregan gertatu den desfase horren eragilea zu ez zarela ulertzeko bezain zentzuduna izango da.
- Garapeneko ezagutzak badituzu, zu zeu ausart zaitezke onlineko salmentarako **zure ataria sortzera**. Aukeratutako programaren arabera, zailagoa edo errazagoa izan daiteke..
- Ataria posizionatzeaz** arduratu behar duzu; ez du ezertarako balio onlineko denda bat izateak inork bisitatzen ez badu.

Asistencia y
Soporte

900 92 93 93



ZER DA? Bezeroei onlineko erosketaz zerbitzua errazteko utilitateak dira eta, negozioetatik, eskaintako zerbitzuarekiko balio erantsi gisa eskaintzen dira.



Ezartzeko moduak



PROVEEDOR



AUTO
IMPLANTACIÓN

ZER EGITEN DU?

- Negoziaren presentzia osatzen dute, onlineko salmenta erraztuta.
- Bezeroari dagokionez **erraztasuna eta onlineko erosketarekin eta harremanarekin lotuta konfiantza ematea** dute helburu, kanal horren bidez salmentak areagotzeko.
- Ordainketa-izapidetzeak errazten eta bermatzen dituzte. Ikus xehetasunak Onlineko ordainketa-kobrantza EIKT soluzioan. Onlineko ordainketa egiteko eskuragarri dauden mekanismoek segurtasun maila altua eskaintzen dizute.



NOLA FUNTZIONATZEN DU?

Bideratzaile bakoitzak hainbat funtzionalitate baliagarri eskaintzen du eta horiek onlineko salmenta hainbat eratan osatzen dute:

- Bezeroaren arreta-zerbitzuaren soluzioaren bidez, bezeroak enpresaren deia jaso beharko du botoi bat sakatuta eta bere telefono-zenbakia utzita.
- Bezeroaren arreta-zerbitzuaren soluzioaren bidez, bezeroak enpresaren deia jaso beharko du botoi bat sakatuta eta bere telefono-zenbakia utzita..
- Onlineko ordainketa-bideratzaileen bidez, onlineko ordainketa segurtasunez eta arintasunez kudea daiteke.

ZER EKARPEN EGITEN DIZU?

- Bezeroari onlineko erosketaz egiteko konfiantza eta bultzada emateko erraztasunak eskaintzea ahalbidetzen du.
- Balio diferentziala eskaintzen du onlineko erosketaz bultzatzen duten azken belaunaldiko soluzioak dituelako.



Katalogo honetan eskaintzen den zerrenda lankideek hura egiteko agintzen duten erreferentzia bat baino ez da.

Soluzio hori eskaintzen duten produktu ugari daudenez, zure ohiko hornitzaile teknologikora jotzea gomendatzen dizugu.

IKONOEN ESANAHIA



EUSKERA



ESPAÑOL



INGLÉS



COSTE



GRATUITO

IDIOMA

PRECIO

PRODUKTUAK

ONLINE TRANSAKZIOKO BIDERATZAILEAK

[Google wallet](#)



[Sello de confianza](#)

ZERBITZU OSTEKO BIDERATZAILEAK

[Servicio de atención al cliente: Click to call](#)



BEZEROARI ARRETA EMATEKO BIDERATZAILEAK

[AutoresponderWA](#)



Lotutako produktu gehiago : www.spri.eus/euskadinnova

GOMENDIOAK



- Ez ahaztu zure negozioan ezartzen dituzun soluzioen joera eta aldaketa berrien inguruko **informazioa** izan behar duzula; izan ere, azken belaunaldiko soluzioak direnez, etengabe berrikusten eta hobetzen ari dira eskaeren arabera egokitzeko eta funtzionamenduan egon daitezkeen akatsak desagerrarazteko.
- Gogoan izan: ROPO ("Research online, Purchasing offline") eraginaren moduko joerak ohiko **joerak** dira aurrez Interneten produktuaren inguruko informazioa jaso duten (gero denda fisikoetan erosteko) internauten artean. Azkenaldian, aurkako eragina ikusten ari gara; hau da, ROBO eragina ("Research offline, Buy Online"). Horren arabera, erabiltzaileek produktua ingurune fisikoan "probatzen" dute eta erosketa onlineko denda batean burutzen dute prezio onenen bila edo, besterik gabe, erosotasuna dela eta. Horregatik, toki-ingurunean zure presentzia funtsezkoa den arren, beharrezkoa da bezeroari erosketa edo eskaria online egiteko aukera ematea.
- Ecommerce izeneko **salmentarako beste modu bat da** eta ez du salmenta fisikoa ordezkatu beharrik; dena den, onlineko kontsumitzaileak honako hauek eskatzen ditu: gertutasuna, prozesuak erraztuta dituen erosketa-espereientzia, 24x7 irisgarritasuna, gailu mugikorrerako egokitzapena, tratu eskusiboa eta pertsonalizatua eta edukien biralitatea sustatzea; hau da, sare sozialen moduko kanalen bidez, informazio gehiago eskatzea edo jasotzea, eta informazio hori beste batzuei bidaltzea.

Asistencia y Soporte

900 92 93 93



Zer da?

Profil profesionalak sare sozialetan onlineko marketina* egiteko. Horrek zure egungo eta etorkizuneko bezeroekiko harremana bultzatu, gerturatu eta dinamizatuko luke, eta zure enpresaren inguruan bezero potentzialen komunitatea handitu zure produktu eta zerbitzuak Interneten sustatzeko.



EZARTZEKO MODUAK



FORMAKUNTZA



INPLANTALARIAK



AUTO EZARPENAK

ZER EGITEN DU?

- ┌ Zure bezero potentzialentzat topaketa-puntu bat sortzea ahalbidetzen du sare sozial bateko negozio-profilaren bidez. Hala, ehunka eta milaka lagunek osatzen dituzten komunitateekin esperientziak eta ideiak partekatzeko aukera ematen du.
- ┌ Zure produktu eta zerbitzuak erabiltzaileen sare segmentatu bati ezagutarazten dizkio. Gainera, erabiltzaile horiek informazio horrekiko erabat harkorrak dira, gailuei esker denbora errealean jarraitzen dituzte eta haiekiko elkarrekintza dute.
- ┌ Zure jarraitzaile edo bezeroek eta zure markak elkarri eragitea ahalbidetzeko formularioak edo inkestak egitea ahalbidetzen du.



ZER EKARPEN EGITEN DIZU?

- ┌ Zure enpresaren sustapena eta publizitatea Interneten kostu oso txikiarekin edo kosturik gabe, modu zuzen eta informalean. Bezeroekiko gertutasuna sortu eta distantziak gutxitzen ditu.
- ┌ Bezero potentzialen kopuru handira sarbidea; izan ere, zure mezuak jaso ditzaketen bezeroen aukera biderkatu egiten da zure iruzkinak haien profil pertsonaletan partekatzeko lortuz gero. Horrek, gero, salmentak sortzeko gaitasun handiagoa dakar berekin.
- ┌ Bizkortasuna eta berehalakotasuna bezeroari eskaini beharreko produktuen / zerbitzuen katalogoan sortzen diren berrikuntzei buruzko informazioa emateko.

NOLA FUNTZIONATZEN DU?

- ┌ Zure negozioa sare sozialekin dinamizatzeko, zure enpresaren profila sortzeaz gain, argi eta garbi bereizi beharko duzu hizketan ari dena negozioa dela, eta ez partikular bat:
 - Zehaztu estrategia eta helburuak: gaiak, zer erabiltzaile mota duzun jomugan eta abar.
 - Pertsonalizatu zure kontua; erabili zure enpresaren koloreak, logotipoak... Gainera, garrantzitsua da zure profila bisita-txartelekin, karteekin eta abarrekin sustatzea.
 - Sortu jarduera eta beti erantzun negozioaren profilari jarraitzen dioten "jarraitzaileen" iruzkinei. Hala, zure bezeroei erakutsiko diezu zure negozioaren eta haien eskaeren gainean zaudela.
 - Sare sozialeko zure kontuak zure negozioaren webgunearekiko osagarria izan behar du. Horretarako, argitaratu sare sozialean webgunean xehetasun gehiagoz garatuko dituzun edukien laburpena.
 - Saiatu sare sozialean zure profilerako ahalik eta jarraitzaile gehien eskuratzen. Saritu sustapenekin, beharpenekin...
 - Atera etekin handiena iragarkiei zure negozioa zabaltzeko. Gainera, erabili funtzionalitate berriak argitalpenak sustatzeko eta, hala, biralitate handiagoa lortzeko.
 - Aprobetxatu bezeroek egindako iritziak kanpaina berriak egiteko, jarraitzaile kopurua handitzeko eta merkatua hobeto ezagutzeko.
- ┌ Gehitu iruzkinak eta iritziak beste blog eta profil sozial batzuetan. Hala, askoz ere jende gehiagok ezagutuko zaitu eta Interneten zure negozioak duen posizionamendua hobetuko duzu.
- ┌ Egin iruzkinak aldizkakotasunez eta erantzun haiei maiztasun berarekin; gogoan izan: ez da beharrezkoa ordenagailu baten aurrean egotea negozio bat dinamizatzeko.
- ┌ Funtsezkoa da sare sozialetan duzun erreputazioa behar bezala kudeatzea. Zure inguruan esaten dena monitorizatzen lagunduko dizuten tresnak eskuratzeko, kontsultatu: "Sareko alertak" EIKT soluzioa.



Katalogo honetan eskaintzen den zerrenda prestatzeko garaian laguntzaileek emandako erreferentzia baino ez da.

Soluzio hori eskaintzen duten produktuak ugari direnez, zure ohiko hornitzaile teknologikoarengana jotzea gomendatzen dizugu.

IKONOEN ESANAHIA



EUSKARA



GAZTELANIA



INGELESA



KOSTUA



DOAN

HIZKUNTZA

PREZIOA

PRODUKTUAK

SARE SOZIALAK

[Facebook](#)

[Twitter](#)

[LinkedIn](#)

[Instagram](#)

[Google +](#)

[Pinterest](#)



KUDEAKETA BATERATUA:

[HootSuit](#)



[Buffer](#)



INKESTAK SAREETAN

[Polls for Facebook](#)



ANALISIA

[LikeAlizer](#)



DINAMIZATZEKO BITARTEKOAK

[SocialMention](#)



[Name checker](#)

ZUZENEKO TRANSMISIOA ETA MONETIZAZIOA

[Dacast](#)



[Patreon](#)

[Vimeo](#)

[TWITCH](#)

[USTREAM](#)



[Zuzenekoak Youtube-n](#)

[Zuzenekoak Instagram-en](#)

GOMENDIOAK



- ✧ **Aukeratu zure xede-bezeroa zer saretarantz bideratzen den**, eta sortu negozio-profila hautatutako sare sozialean.
- ✧ Sare sozialetan presentzia izateak inpaktu positiboa du zure negozioa Interneten posizionatzeko; izan ere, areagotu egiten du sarean duzun presentzia, eta zure webgunerantz kalitatezko trafikoa sortzen laguntzen du.
- ✧ Kontuan izan **aukera** ederra dela zure bezeroak zure bila dabiltzan edo zutaz hizketan ari diren tokian egoteko.
- ✧ Gogoan izan: **aktibo jarraitu** behar duzu sare sozialetan, eta mezuak argitaratu behar dituzu aldi-aldi, zure negozioari buruz edo zure bezeroentzako interesgarriak diren gaietaz buruz. Abandonaturik utzitako profil bat kaltegarria da.
- ✧ Ez ahaztu Interneteko emaitzak ez direla berehalakoak. Finkatu helburuak, neurtu emaitzak eta, beharrezkoa bada, birbideratu zure ekintzak. Zure argitalpenen estatistikek esango dizute zuzen ari zaren.
- ✧ Sare sozialen bidezko inkesten kasuan, **egin benetako galderak**, ez zeure burua sustatze hutsera bideratuak. Eskatu kritika eraikitzaileak zure produktu edo zerbitzuei buruz, eta argi izan zergatik egiten duzun galdeketa hori. Erabaki zer lortu nahi duzun galderekin: fidelizazioa, atzeraelikadura, zure marka ikusgarri egitea...
- ✧ Egin lehiaketak eta sustapenak zure bezeroak **fidelizatzen**.

Laguntza eta euskarria

900 92 93 93



ZER DA?

Formatu digitaleko komunikazioa, zure produktuak eta zerbitzuak berehala eta masiboki sustatu ahal izateko; hari esker, iragarkiak non kokatu eta nola sailkatu jakingo duzu, lehiakideenak baino lehenago agertu daitezten.



EZARTZEKO MODUAK



FORMAKUNTZA



INPLANTALARIAK



AUTO EZARPENAK

ZER EGITEN DU?

- Web bilatzaileetan zure enpresaren iragarkiak jartzeko aukera ematen du, baita erabiltzaile batek nabigatzen duen beste webgune batzuetan ere. Iragarkiak hainbat eratakoak izan daitezke: banner bat, zure webgunerako esteka bat, testu bat, argazki bat, bideo bat edo Interneten ikus daitekeen antzeko edozein baliabide.
- Hari esker, zure negozioak eskaintzen duen horren bila ari direnek topatu egingo zaituzte.
- Interneten egiten dituzun publizitate-lanaren emaitzak neurtzeko aukera ematen du, eta une oro azter ditzakezu zure ekintzak, egindako inbertsioaren itzulera hobetzeko.
- Erraz bidal ditzakezu zure bezeroen gailu mugikorretara zure presentzia birtualeko eskaintzak.



ZER EKARPEN EGITEN DIZU?

- Marka sortzea iragarki grafikoaren edo ikus-entzunezkoaren bidez, baliabide tradizionalak baino kostu txikiagoarekin eta irismen handiagoarekin.
- Kanpaina bat definitzea aurrekontu jakin batekin eta guztion eskura ipiniz.
- Ondo zuzenduz gero, bezero potentzial berrien arreta bereganatzen du; erakarri egingo dituzu zure webgunera edo sare sozialetako profiletara, eta, hala, zure produktuak edo zerbitzuak aurkeztuko dizkie. Ipini zure negozioa ikusgarriago egungo bezeroen aurrean, bai eta bezero berri potentzialen aurrean ere.

NOLA FUNTZIONATZEN DU?

- Bilatzaileetan publizitatea sortzeko, lehenik eta behin zeure buruari galdetu behar diozu zer publiko lortu nahi duzun. Beharrezkoa eta kritikoa da publikoa eta haren beharrak definitzea, komunikazio-kanalak (bilatzaileak) aukeratzeko orduan.
- Bezero potentzialek zure iragarkiak aurki ditzaten, behar bezala hautatu behar dituzu iragarkiarekin loturiko gako-hitzak (enpresarekin lotutako esaldiak edo terminoak), bilatzaileek katalogatu ditzaten. Bilatu zer terminok bereizten duten zure negozioa lehiakideengandik. Badira hainbat tresna, zure negozioarekin lotutako gako-hitzak aukeratzeko laguntzeko: eraginkorrenak, bilatuenak.
- Iragarkiak hainbat irizpideren arabera konfiguratu daitezke.
 - Ordu-tegiak: iragarkiak noiz argitaratu adieraz dezakegu.
 - Eremua: iragarkiak zein hiri, eskualde edo herrialdetan argitaratzen diren adieraz dezakegu.
 - Adina: iragarkiak zein adin-tarteri bideratu nahi dizkiogun aukeratu dezakegu (mugatua).
- Bezero potentzial batek bilatzailean gako-hitz horietako bat erabiltzen duenean, iragarkia bilaketaren emaitzekin batera agertzen da, kontratatutako formatuan; horrela, erabiltzaileek iragarkian klik egite hutsarekin eskuratuko dute zure negozioaren gainera informazioa.
- Kontuan izan sistema horrek erabiltzaileen sarbide-zenbakien arabera fakturatzeko duela; beraz, behar bezala definitu beharko dituzu iragarkiak, zure negozioarako tresna errentagarria izan dadin.
- Tresna jakin batzuen bidez, iragarleek eta publizitate-euskarriek "elkar ikusteko" aukera dute, eta iragartzeko proposamenak egiten dituzte.
- Publizitate-tresna batzuekin, iragarleak hainbat euskarri ditu publizitatea argitaratzeko. Iragarlea bera hainbat euskarritan egon daiteke ikusgai (publizitatea egiteko kanalak), eta euskarri horiek eskaintzen diote publizitate-espazioa.



Katalogo honetan eskaintzen den zerrenda prestatzeko garaian laguntzaileek emandako erreferentzia baino ez da.

Soluzio hori eskaintzen duten produktuak ugari direnez, zure ohiko hornitzaile teknologikoarengana jotzea gomendatzen dizugu.

IKONOEN ESANAHIA



EUSKARA



GAZTELANIA



INGELES



KOSTUA



DOAN

HIZKUNTZA

PREZIOA

PRODUKTUAK

[Google Adwords](#)

[Google Adwords Express](#)

[Facebook Iragarkiak](#)

[AD Exchange](#)



[Google Analytics](#)

[Google Adsense](#)

[Interneteko publizitate-kanpaina](#)



Produktu gehiago: www.spri.eus/euskadinnova



GOMENDIOAK

- Kontuan izan** aukera ederra dela zure bezero potentzialak zure bila dabiltzan edo zutaz hizketan ari diren **tokian egoteko**.
- Ez ahaztu**: finkatu helburuak, neurtu emaitzak eta, beharrezkoa bada, birbideratu zure ekintzak. Izan ere, gerta liteke kanpaina gaizki diseinatuta egotea edo hobeto segmentatu ahal izatea.
- Aztertu zure publizitate-ekintzen emaitzak** eta aldatu beharrezkoa den guztietan, ahalik eta eraginkorrenak izan daitezzen.
- Sustatu zure sare sozialak**, bezero gehiago erakartzeko eta zure marka- edo negozio-irudiaren gaineko interesa sortzeko.
- Iragarki horiek **ahalik eta hobekien bideratuta egon daitezzen zure xede-publikoarengana**, zure webgunerako sarbideak aztertu behar dituzu, zure webgunera zer bezero mota sartzen den jakin, eta horren arabera bideratu. Ez da gauza bera adinekoentzako eta publiko gaztearentzako iragarkiak egitea; kasu horretan, beharbada bi iragarki behar dira, hartzailearen arabera.
- Aprobetxatu etengabeko bilakaera**, bai formatuetan (telebista digitalerako iragarkiak, bereizmen handiko bideoak*, bideo-plataformetako iragarkiak), bai publizitatea kudeatzeko ereduetan, zeuk ahalbidetzen baituzu zure orrian publizitatea ipintzeko aukera eta aukera ematen baituzu haren truke kobratzeko.

Laguntza eta
euskarria

900 92 93 93



ZER DA?

Online egiten den marketin mota bat da; bezeroei posta elektronikoz helarazten zaie publizitatea eta informazioa. Hala, epe luzerako harremana sortzen da eta hartzaileak markaren edo produktuaren benetako preskribatzaile bihurtzen dira; izan ere, kontaktuei birbidaltzea sustatzen da, zuzeneko efektu birala eraginez.



EZARTZEKO MODUAK



HORNITZAILEA



FORMAKUNTZA



INPLANTALARIAK



AUTO EZARPENAK

ZER EGITEN DU?

- Publizitate- eta marketin-kanpainak egiteko aukera ematen du posta elektronikoen bidez, hainbat formatutan (albisteak, buletina edo newsletterra, ekitaldiren batera gonbidatzea, harpidetzak, deskontuak, eskaintzak, eta abar).
- Mezu elektronikoa* edo emailak hartzaile ezagunei eta zure bezeroei masiboki bidaltzea errazten du, eta, hala, eskaintzak, berriak, eta halakoak jakinarazten dira, dela salmentak areagotzeko, bezeroak atxikitzeko, bezero berriak lortzeko edo marka-irudi bat eratzeko.



ZER EKARPEN EGITEN DIZU?

- Bezeroekin komunikatzeko azkartasuna eta eraginkortasuna; izan ere, berehala jasotzen dute mezu elektronikoa*, eta iragarri nahi duzun produktu edo zerbitzuei buruzko informazioa eskuratzen dute.
- Bizkor segmentatu ahal izango duzu sustapen jakin batekin informatu nahi dituzun bezeroen lagina.
- Kostuak aurreztuko dituzu, ez baitago liburuxkak, txartelak eta deskontu-kupoak inprimatu beharrik: elektronikoki bidal ditzakezu.
- Zure bezeroekin hitz egiteko bidea irekitzen dizu, eta, bertan, bidaltzen diezun informazioa jasotzeaz gainera, berehala erantzun dezakete bide beretik.

NOLA FUNTZIONATZEN DU?

- Kanpaina bakoitzerako, helburu errealistak zehaztu behar dituzu, bai eta sormen-ekintzak diseinatu ere.
- Nahi beste kontaktu antola ditzakezu, bai eta taldeak sortu ere, informazioa nori bidali nahi diozun (helbide elektronikoen multzoa*). Funtsezkoa da bezeroak segmentatzea; erabili zure bezeroei buruz dituzun datu guztiak zure datu-basea* talde homogeneotan segmentatzeko. Talde horiek erosketa-ohiturak partekatzen dituzte eta antzeko marka hautematen dute, kontuan harturik datuen jatorria (bezero harpideduna, iturri publikoa...). Informazio horren arabera pertsonalizatuko da emailaren edukia.
- Mezuak pertsonalizatu egin daitezke pertsona edo kolektibo bakoitzarentzat, agertzen den beharraren arabera. Hainbat fitxategi erantsi daitezke (testua, irudia, bideoa, audioa eta abar).
- Hartzaileak erabakiko du mezuaren edukia irakurri edo ezabatu nahi duen. Halaber, aukera eman behar zaio komunikazio mota hori gehiago ez jasotzeko: mezuan adieraziko da aukera duela baja emateko, eta, hala eskatuz gero, banaketa-zerrendatik ezabatuko dugu.
- Aplikazio batzuek* dituzten funtzionalitateei esker, bidalketak jaso eta irakurri dituzten hartzaileen jarraipen zehatza egin daiteke. Iragazi bezero ez-aktiboak (zure mezuak irekitzen ez dituztenak) eta eskaini haiei kanpaina bereziak, ulertzeko zergatik utzi dioten emailak irekitzeari eta, hala, haien interesa berriro pizten saiatzeko.
- Mailinga aplikazio* espezifikoaren beharrik gabe egin daiteke; nahikoa da ohiko posta elektronikoko aplikazioan* banaketa-taldeak sortzea.
- Bermatu behar duzu betetzen dela Informazioaren Gizartearen Zerbitzuei eta Posta Elektronikolari buruzko Legea. Lege horrek eskatzen du hartzaileen alde aurreko baimena lortu behar dela posta elektronikoz* komunikazio masiboak egiten hasi aurretik. Hona hemen beste eskakizun batzuk:
 - Argi eta garbi identifikatzeko moduko komunikazioak.
 - Komunikazioa zein pertsona juridiko edo fisikoren izenean egiten den identifikatzea.
 - Emailaren hasieran "publizitatea" hitza sartzea.
 - Lehiaketetan, sustapenetan eta abarretan, argi eta garbi zehaztu behar dira baldintzak.



Katalogo honetan eskaintzen den zerrenda prestatzeko garaian laguntzaileek emandako erreferentzia baino ez da.

Soluzio hori eskaintzen duten produktuak ugari direnez, zure ohiko hornitzaile teknologikoarengana jotzea gomendatzen dizugu.

IKONOEN ESANAHIA



EUSKARA

HIZKUNTZA



GAZTELANIA



INGELES



KOSTUA



DOAN

PREZIOA

PRODUKTUAK

[Eaglemailer](#)

[Real Mailing](#)

[YMLP](#)



[Benchmark](#)

[Acumbamail](#)



[Mailchimp](#)



Produktu gehiago: www.spri.eus/euskadinnova

RECOMENDACIONES



- } Garrantzitsua da **gure bezeroen datu-basetik inportatutako posta-zerrenda** bat izatea* (zerrenda pribatua).
- } **Mailingaren diseinuak erakargarria izan behar du**, iragarkian klik egiteko aukerak areagotzeko.
- } **Jo pertsonalki hartzailearengana**, pertsonalizatu posta elektronikoaren edukia. Tratatu hartzaileak bezero gisa, ez helbide elektroniko huts gisa.
- } **Eman informazio erabilgarria hartzaileari**; interesa pizten duen informazioa sortu behar da.
- } **Esaldiek laburrak izan behar dute** eta ideia bakarra adierazi behar dute esaldi bakoitzeko.
- } **Argudio gutxi batzuk baino ez aukeratu**, eta aurkeztu hainbat modutan testuan zehar.
- } **Jokatu positibo** eta amaitu **sinadura pertsonalarekin**. Sustatu zure presentzia webean (presentzia birtuala, web-ataria, profil sozialak eta abar).
- } Bezeroarekin interakzio hori izateko, harekin harremanetan jartzeko datuak bildu behar dituzu (baimenarekin), Datu Pertsonalak Babesteko Legea betetzen duzula bermatzeko. Obligazio horiekin egunean egoteko, prestakuntza espezifiko duzu mikroenpresetarako. Kontsultatu ikastaroen eta beste zerbitzu batzuen agenda.
- } Informazioa email ez bidaltzeko bezeroen banaketa-zerrenda horrek bizia izan behar du, eta aukera eskaini behar du hartzaileak gehitzeko edo kentzeko denboran zehar. Geratu zure informazioa jaso **nahi duten hartzaileekin bakarrik**.
- } Agian, banaketa hori **newsletter edo informazio-egunkari** gisa bidera daiteke; beraz, gomendagarria da doako email-txantiloia sortzeko tresnetan oinarritzea.
- } **Ez gehiegi erabili** teknika hori, bezeroak ez nekatzeko.

Laguntza eta
euskarria

900 92 93 93



ZER DA?

Sektore bakoitzaren berezko kanaletan garatutako eta kontsumitzaile jakin bati zuzendutako sustapen-estrategiak eta -ekintzak biltzen ditu.



EZARTZEKO MODUAK



HORNITZAILEA



FORMAKUNTZA



INPLANTALARIAK



AUTO EZARPENAK

ZER EGITEN DU?

- › Zure negozioari buruzko informazio-, sustapen- eta salmenta-ekintzak egin ditzakezu komunitate sektorialetan eta beste atari espezializatu batzuetan; alegia, zure bezero potentziala zure bila ibil daitekeen tokietan.
- › Oso garrantzitsua da kritika onak jasotzea **kontsumitzaileek era guztietako produktu eta zerbitzuei buruzko iritzia partekatzen duten atarietan (Social Shopping)**; izan ere, iritziak emateaz gainera, erabiltzaileek eskaerak ere egiten dituzte haietan zuzenean.
- › Gune horietan, parte-hartzaileek **informazio erabilgarria, gomendioak eta antzeko produktuen arteko konparazioak** eskaintzen dituzte, beste batzuei erosketa-erabakiak hartzen laguntzeko.



NOLA FUNTZIONATZEN DU?

- › Marketin sektoriala egiteko, alta eman behar duzu gehien interesatzen zaizun atari sektorialean. Atari sektorialak hainbat aukera ematen ditu:
 - Informazioa eguneratuta edukitzea une bakoitzean. Gehienetan zu zeu arduratuko zara atari sektorialetan zure sustapen-ekintzak eguneratuta edukitzeaz; pasahitzak izango dituzu horretarako.
 - Atariaren mugimendua, bisita kopurua eta jatorria aztertzea. Interneteko beste sustapen-ekintza batzuetan bezala, atariaren mugimendua aztertu behar da, eta jasotzen diren bisitak egiaztatu, irudia hobetzen jarraitu ahal izateko.
- › Gogoan izan: irudi bera izan behar dute atari horietan egiten duzun sustapenak eta negozioa kokatuta dagoen Interneteko gainerako puntuetan eginikoak.
- › Utzi erabiltzaileei zerbitzuaren eta/edo produktuaren gaineko iritzia ematen, bai zurearen gainekoa, bai lehiakideenari buruzkoa.
- › Gogoratu: Interneten presentzia onuragarria lortzeko beharrezkoa da irudi gaurkotua izatea eta informazio eguneratua eskaintzea, gaizki-ulerturik edo akatsik ez eragiteko. Informazioa eguneratuta egon ezean, litekeena da bezeroa galtzea.

ZER EKARPEN EGITEN DIZU?

- › Kostu minimoarekin edo are kosturik gabe sustatzea eta iragartzea zure produktuak eta zerbitzuak.
- › Informazioa jasotzen duten pertsona kopuruaren hazkunde esponentziala.
- › Zure bezeroekin zuzenean konektatzea eta bezero berri ugari eskuratzea. Saltzeko gaitasun handiagoa.
- › Zure negozioaren irudi profesionala eta kalitatezkoa eskaintzea.

PREZIOA



ZER DA?

Zerbitzuoi esker, salmenta-gune berrien bidez iristen da bezeroengana, eta produktuak erosteko eskaintzak erakusten zaizkie. Bere burua zabaltzen duen publizitatea da, bata bestearekin loturik saltzea bilatzen baitu.

Ahoz ahokoa, baina Internetera eramana.



EZARTZEKO MODUAK



HORNITZAILEA



FORMAKUNTZA



AUTO
EZARPENA

ZER EGITEN DU?

- › Zure negozioiko produktuen informazioan, sustapenean eta salmentan jarduten du, onlineko salmenta-atarian alta emanda dauden pertsonen bidaltzen zaien informazio-txantiloen baten bidez.
- › Eskaintza horrek denbora-tarte mugatu baterako balioko du, edo bonu kopuru jakin baterako, bestela.
- › Haren bidez, merkataritza-mezu bat azkar transmititzea bultzatuko duen estrategia bat ezarri ahal duzu, eta, hala, mezu horren edukia hazkundera biderkatuko duzu.



ZER EKARPEN EGITEN DIZU?

- › Zure negozioa handitzea edo stocka likidatzea, azkar eta erraz; izan ere, eskaintzak salmenta kolektiboko atarietan* edukita, gero eta jende gehiagok ezagutuko zaitu.
- › Sustapena jasotzen duten pertsona kopuruaren hazkunde esponentziala, zure produktuak/zerbitzuak onlineko sustapen kateatu baten bidez ezagutarazten baitituzte. Sustapen-enpresara harpidetutako pertsonak aprobetxatzea, eta haiei helaraztea zure eskaintzak eta sustapenak.
- › Denbora aurreztuko duzu; izan ere, hainbat txantilo dituzu aukeran, diseinu-ezagutzarik izan gabe ere zure publizitatea taxutzeko.

NOLA FUNTZIONATZEN DU?

- › Marketin biralean parte hartzeko*, alta eman behar duzu* zure produktuak eta zerbitzuak sustatzen eta banatzen dituzten salmenta kolektiboko atarietan.
- › Hornitzailearekin negoziatu behar dituzu salmenta-baldintzak, eta salmenta-atariaren arabera oinarrituko da lankidetzak, dela salmenten gaineko ehuneko batekin, dela prezio finkoan.
- › Bezero berriak nola erakarri nahi dituzun pentsatu beharko duzu, eta horretara bideratutako sustapena sortu:
 - inbentarioko soberakina murriztea;
 - salmentak errepikatzea, salmenta gehiago sortzea;
 - gehiegizko edukiera eskaintzea;
 - publiko gaztea erakartzea, modan jartzea...
- › Azkenik, eskaintza indarrean jar dadin, beharrezkoa da erabiltzaile kopuru jakin bat erregistratzea, eta horrek zure enpresari buruz hitz egitera bultzatzen ditu erabiltzaileak.
- › Erabiltzaile horiek bezero bihurtzeko, erabakigarria izango da eskaintzen zaien zerbitzua, bai eta une horretatik aurrera lantzen den ibilbidea ere.
- › Aprobetxatu atari horietan sartzen duzun eskaintza oro, eskura dituzun komunikazio-kanal guztien bidez zeure burua ezagutarazteko: presentzia birtuala, onlineko salmenta*, sare sozialak, eta abar.

PREZIOA



<https://www.spri.eus/es/ayudas/inplantalariak/>



ZER DA?

Aplikazio* bat edo batzuk, beren artean integratuak, negozioa modu integral eta ezin hobean kudeatzea ahalbidetzen dutenak; hala, bikoiztasunak ezabatzen dira eta efizientzia handiagoa lortzen da administrazio-lanetan.



Ezartzeko moduak



HORNITZA



INPLANTALARI

ZER EGITEN DU?

- Salmenta-txartelak sortzeko eta inprimatzeko aukera ematen du, zure jarduerak eskainitako produktuaren edo zerbitzuaren erreferentzia batean oinarriturik.
- Automatikoki eguneratzen du inbentarioa salmenta baten aurretik, eta erraztu egiten du hornitzaileei eskaerak, albaranak eta dagozkien fakturak sortzeko lana.
- Bezeroei buruzko informazioa erregistratzen du (fakturazio-datuak, harremanetarako datuak...), bai eta izaniko transakzioen historia ere (eskaerak, salmentak, fakturak, saldu ostekoak, beste erosketa edo eskaera batzuk, egindako zerbitzuak...).
- Erraztu egiten du lan-aginduekin lotutako informazio eguneratuaren eskuragarritasuna (egindako eta egiteke dagoen lanaren kontrola, lan-eskuaren orduak, materialak, lanerako behar diren piezak edo materiala online* identifikatzea, materiala jasotzea, eta abar).



ZER EKARPEN EGITEN DIZU?

- Denbora aurreztea, saihestu egiten baitu inbentarioaren berrikuspenak eskuz etengabe egin beharra.
- Lehiakortasun handiagoa, bezero bakoitzaren premiei aurrea hartu ahal izango baitiezu; izan ere, transakzioen, zerbitzuen edo emandako produktuen historia izango duzu, eta bezeroaren beharrei pertsonalizatutako zerbitzua eskaini ahal izango diezu.
- Denbora aurreztea, formatu digitalean edukiko baituzu zure negozioarako beharrezkoa den dokumentazioa.

NOLA FUNTZIONATZEN DU?

- Salmenten kudeaketa:** Aukera ugari izango dituzu: hainbat kutxa kudeatzea; zain daukazun tiketak, eta tiketak egiaztariari inprimatzea; tiketak bereizi eta batzea; tiketak barra, mahai edo egongelara mugitzea; kontsumorako edo gonbidapenerako tiketak esleitzea; txarteekin ordaintzea; dagokion faktura sortzea, eta abar. Salmentan zehar, saldu beharreko produktua identifikatu ahal izango da barra-kodearen bidez.
- Erosketen kudeaketa:** Automatikoki sortu ahal izango dizkiezu eskaerak hornitzaileei, zure biltegian zehaztu dituzun gutxieneko stocken arabera. Ondorengo urrats gisa, dagozkion albaranak eta fakturak sortuko dira. Aldez aurretik, ordea, **zure negozioko produktuak eta zerbitzuak identifikatu** behar dituzu. Horretarako, erosketa-tarifa, salmenta-tarifa, zure negozioko produktuaren identifikatzailea eta hornitzailearen sistemetan produktuaren identifikazioa zehaztu beharko dituzu.
- Kutxaren itxiera partzialak eta totalak egitea,** ateratzen den eskudirua kutxan fisikoki dagoen diruarekin bat datorrela egiaztatzeko. Informazio hori bereizita aurkeztu beharko da: eskudirua, txartelak eta ordaintzeke dagoena.
- Lan-aginduak kudeatzea:** Tresna mota horri esker, dagokion konponketa-agindua sortu ahal izango duzu, adibidez, bezeroak autoa tailerrean uzten duenean. Horretarako, autoa, kalteak eta bezeroaren datuak identifikatzen dira, eta dagokion aurrekontua onartzen da.
- Bezeroen kudeaketa:** Bezero bakoitzari emandako zerbitzuak erregistratzen dira (automobilaren gainean egindako lanak, ostatu-erreserbak, zer hitzordura joaten den, eta abar). Zerbitzu horiei esker, bezero bakoitzaren ohiturak aztertu eta haren beharretara bideratutako promozioak eskaini ahal izango dituzu, lotutako produktuen eskaintzak, zerbitzuak edo bisitak gogoratzeko kanpainak, hitzorduak eta abar eginez (dela emailaz, dela SMS bidez)...
- Soluzio hori hodeira* sartuta erabil daiteke, ordenagailuan bertan instalatu beharrik gabe eta saltokiko terminala (ST) erosi gabe. **Onlineko negozioaren kudeaketa (hodeian)** oso egokia da banatutako dendak edukitzeko edo instalazioekin konplikatu nahi ez izateko.



Katalogo honetan eskainitako zerrenda erreferentzia bat baino ez da, kolaboratzaileek berek emana agiri hau prestatzeko garaian.

Soluzio hori eskaintzen duten produktu ugari daudenez, gomendatzen dizugu zure ohiko hornitzaile teknologikoarengana jotzea.

IKONOEN ESANAHIA



EUSKERA GAZTELANIA INGELESA
HIZKUNTZA



KOSTUA DOAN
PREZIOA



PRODUKTUAK

SALTOKIKO TERMINALA

[Ars-software](#)
[Tecnisoft](#)
[Infotronic](#)
[Prosicar](#)
[Posiflex](#)
[Tpv-online](#)
[Gestión Tpv](#)
[Grupo Power Shop](#)
[Software Delsol](#)
[ICG](#)
[TPV Fácil](#)
[Que etiquetas](#)
[AIG kudeaketa-softwarea](#)
[Esferalia](#)
[GT motive](#)
[Gemicar](#)
[Audatex](#)
[AudaPlusFeatures](#)
[ContaSimple](#)
[Gestion de Tickets](#)



[Open Bravo](#)
[Scanpet](#)
[Pelunova](#)



[Lausan](#)
[Ivafree](#)



TPV EN LA NUBE*

[Ongest.com](#)
[Cuentica](#)
[Factura Directa](#)
[Tpv en la nube](#)
[Prestashop](#)



Erlazionatutako produktu gehiago: www.spri.eus/euskadinnova



GOMENDIOAK

- Trebatu langileak alde zurretik tresna horiek behar bezala erabil ditzaten, eta, hala, askoz efizienteagoa izango da haien lana.
- Tresna horiek efikazak izan daitezen, egunero sartu beharko duzu haietan informazio guztia.
- Tresna horiek hartzen dute eguneroko jardunaren zama; beraz, saiatu hautatutako hornitzaileak tokiko banatzaile izan dezan, laguntza-zerbitzua berehalakoa izan dadin eta zure negozioak zerbitzu-etenaldirik izan ez dezan.
- Bezeroen datuak izanez gero, ziurtatu betetzen duzula Datuak Babesteko Lege Orokorra. Betebehar horien gaineko informazio eguneratua izateko, hartu parte mikroenpresei berariaz zuzendutako ikastaroetan.
- Eduki automatizazioa erraztuko duten gailu fisikoak, hala nola saltokiko terminala, tiket-inprimagailua, datafona*, kutxa-zorroa. Puntu honetan, "adimendunak" nabarmentzen ditugu (lapurreten aurkako mekanismoekin, automatikoki itzultzen baitute bueltatu beharrekoa, tiradera ireki beharrik izan gabe...), bai eta haiekin loturiko aplikazioak* ere.
- Kontrolpean edukiko dugu gure negozioan gertatzen den guztia, eta, hala, zehatzago eta azkarrago hartuko ditugu erabakiak.

Laguntza eta euskarria

900 92 93 93



ZER DA?

Sistema honen bidez, erraztu egiten da zereginak planifikatzea, dokumentuak partekatzea, lan-kargen banaketa eta jarraipena egitea, baita hainbat erabiltzaileekin elkarrizketak izatea ere, beste hainbat alderdiren artean.



Ezartzeko moduak



HORNITZAILEA



NORBERAK

ZER EGITEN DU?

- › Lana antolatzeke eta egiteke ditugun lan eta mugarri guztiak planifikatzeko aukera ematen du.
- › Langileen lan-txandak eta ordutegiak sortzeko eta aldatzeko aukera ematen du, egun libreak, oporrak, bajak, ekitaldiak eta erreserbak kontuan hartuz. Halaber, eguneratuta eduki daiteke informazio hori, bai eta interesatuekin partekatu ere.
- › Bermatzen du betetzen direla aldez aurretik zehazten diren lan-hitzarmeneko zenbait arau, eta aparteko orduak, jaiegunak, gauekoak, sindikalak eta abar kudeatzeko modua eskaintzen du.
- › Mezuak trukatzeko, zereginak esleitzeko eta web-orriak sortzeko aukera ematen du, jakintza lantaldearen artean banatzeko.



NOLA FUNTZIONATZEN DU?

- › Aplikazioa* ordenagailuan instalatu ondoren, langileen datuak gaineratzen dira, bai eta haien lan-txandek bete behar dituzten ezaugarriak ere.
- › Txanden eta ordutegien koadranteak lortzen dira, enplegatuek kontsultatzeko moduan.
- › Aplikazioari esker, noiznahi eskuratu eta aldatu ahalko da txanden eta ordutegien gaineko informazioa.
- › Txandak tresna hauen bidez kudeatzeak dinamismoa ematen du, errazago eta arinago konpondu baitaitezke ezustekoak.
- › Txandak kudeatzeko lehen hurbilketa bat izan daiteke onlineko komunikazio-tresnak erabiltzea, egutegiak partekatuz taldeak koordinatzeko. Kontsulta ezazu *"Onlineko komunikazioa"* izeneko EIKT soluzioa.

ZER EKARPEN EGITEN DIZU?

- › Langileen txandak kudeatzea eta kontrolatzea errazten du.
- › Areagotu egiten du negozioaren produktibitatea, modu orekatuan banatuko baita lana langileen artean.



IKONOEN ESANAHIA



EUSKERA GAZTELANIA INGELESA

IDIOMA



KOSTUA



DOAN

PREZIOA

Katalogo honetan eskainitako zerrenda erreferentzia bat baino ez da, kolaboratzaileek berek emana agiri hau prestatzeko garaian.

Soluzio hori eskaintzen duten produktu ugari daudenez, gomendatzen dizugu zure ohiko hornitzaile teknologikoarengana jotzea.

PRODUKTUAK

ATAZEN KUDEATZAILEA

[Laborplan](#)



[Cea Ordenadores Monday](#)



[Actitime](#)

[Redbooth](#)

[Evernote](#)

[Atazen kudeaketa](#)



[Microsoft TODO](#)

[AirTable](#)

[Asana](#)

[Notion](#)



EGITEKOEN ETA DENBOREN KONTAGAILUA

[Remember the milk](#)

[Trello](#)

[Kanboard](#)



[Clocking IT](#)



[GANTT Project](#)



[OpenProj](#)

[ProjectLibre](#)

[Toggl](#)

[Rescue Time](#)

[GTimeReport](#)



[Bixpe. Control horario](#)



Erlazionatutako produktu gehiago: www.spri.eus/euskadinnova



GOMENDIOAK

- Antolatu **txandak eta ordutegiak** negozioaren eta langileen premien arabera.
- Gaineratu langile bakoitzeko txandei buruzko iruzkinak**, iritziz gero batera jaso beharrekoak direla.
- Inprimatu eta banatu koadranteak**, eta utzi langileen bistan, ordutegiak eta txandak gardenagoak izan daitezen.
- Kudeatu** lanak edo proiektuak begiratu batean, eta esleitu zereginak zure taldeari
- Antolatu** zure negozioa zereginen kudeatzaile on batekin, dena kontrolpean izateko.
- Ez arduratu** negozioan egunero sortzen diren ehunka lanekin gogoratu beharrarekin.

Laguntza eta euskarria

900 92 93 93



ZER DA?

Zerbitzuon bidez, negozioek gune bakarrean eros ditzakete hornigai orokorrak, online eta erosketa-bolumenaren kostua aurrezteko aukerarekin.



Ezartzeko moduak



HORNITZAILEAK



INPLANTALARIAK



NORBERAK

ZER EGITEN DU?

- Hainbat hornidura orokor batera erosteko aukera ematen du.
- Norberaren izenean lortuko ez liratekeen eskaintzak ematen ditu.
- Hornidura orokorren hornitzaileekin zuzenean negoziatzea eta hautatzea saihesten du.
- Hornidura orokor guztiak kudeaketa bakar batean erosteko aukera ematen du.



NOLA FUNTZIONATZEN DU?

- Informatu behar bezala baldintzei eta balizko deskontuei buruz.
- Eskatu erreferentziak edo galdetu beste negozio edo elkarte batzuei ea ezagutzen dituzten horrelako atariak eta gustatuko litzaiekeen erosketak elkarrekin egitea.
- Aztertu erositako hornigai orokorrak, ebaluatzeko komenigarria ote den atari horien bidez erostea.
- Eskatu informazio eta azterketa xehatuak atari zentralizatu hauen bidez erosketetan lortuko duzun aurrezpenari buruz.
- Aztertu zehatz-mehatz baldintzak eta eskatu agertoki posibleak, aurreztu ahal izateko gutxieneko erosketa-bolumenak zein diren jakiteko.
- Posible izanez gero, erregistratu erabiltzaile bezala proba-aldi batean.
- Aztertu aldian-aldian ea lortzen duzun aurreikusitako aurrezpena.

ZER EKARPEN EGITEN DIZU?

- Kostuak aurreztea, negoziazio-ahalmen handiagoa duen erosketa-atari zentralizatu baten parte izateari esker, erosketa-bolumen handia biltzen baitu.
- Denbora aurreztea, ez baita beharrezkoa dedikazio pertsonala hornitzaileekin negoziatzen aritzeko.
- Zerbitzuaren baldintzak hobetzea, baldintza hobeak lortzen baitira erosketa-atari baten parte izateagatik eta erosle bakar ez izateagatik.



Katalogo honetan eskainitako zerrenda erreferentzia bat baino ez da, kolaboratzaileek berek emana agiri hau prestatzeko garaian.

Soluzio hori eskaintzen duten produktu ugari daudenez, gomendatzen dizugu zure ohiko hornitzaile teknologikoarengana jotzea.

IKONOEN ESANAHIA



EUSKERA GAZTELANIA INGELESA

HIZKUNTZA



KOSTUA



DOAN

PREZIOA

PRODUKTUAK

[Erosketen ataria](#)



[20mil productos](#)

Erlazionatutako produktu gehiago: www.spri.eus/euskadinnova



GOMENDIOAK

- › Zure negozioak eskatzen dituen hornidura orokorrak aztertzen ditu, halako soluzioak eskaintzea **komeni ote den ala ez** erabakitzeko.
- › Komenigarria izan daiteke beste negozio batzuekin **batera erostea**, erosketa-bolumen handiagoa duten atari horietan sartzeko; hala, deskontu handiagoak lortu daitezke.

Laguntza eta
euskarria

900 92 93 93



ZER DA?

Zerbitzuak edozer eratako kudeaketak egiteko Internet bidezko administrazio-izapideak, zeinak eskuragarri baitaude administrazio publiko askok dagoeneko eskaintzen dituzten Administrazio Elektronikoen* bidez, baita finantza-erakundeen webguneetan eskuragarri dauden banku-izapideak ere.



Ezartzeko moduak



PRESTAKUNTZA



INPLANTALARIAK



NORBERAK

ZER EGITEN DU?

- Eroso, erraz eta etxetik mugitu gabe egin ahalko duzu edozein transakzio elektronikoa (adibidez, banka elektronikoen bidez ordaintzea* edo administrazioarekin izapideak egitea, hala nola errenta-aitorpena aurkeztea edo laguntza eskatzea).
- Ziurtagiri digitalaren bidez, pertsona edo enpresa gisa identifikatuko zara, eta onlineko izapideak* egin ahal izango dituzu, dagokion erakundean fisikoki aurkeztu beharrik gabe.
- Eskaini bezeroei ordainketa-metodo seguru bat, iruzurraren aurkako teknologia aurreratuarekin eta zure onlineko negozioan ordainketarako plataforma konplexurik* instalatu beharrik gabe; hala, konfiantza emango diezu bezeroei.



ZER EKARPEN EGITEN DIZU?

- Erosotasuna: hainbat izapide egin ahal izango dituzu urrunetik, edozein ordutan, administrazioaren bulegoetara edo banku-erakundeetara joan gabe. Beraz, ez duzu izango zure negoziotik irten beharrik, eta murriztu egingo dituzu kostuak eta denborak.
- Bidalketaren segurtasuna bermatzen dizu, ez baituzu inoiz partekatuko zure finantza-informazioa.
- Konfiantza eskaintzen dizu mundu zabalean, eta ardura hartzen dute eskaera iristen ez bazaizu.

ZELAN FUNTZIONATZEN DU?

- Dena delako izapide edo kudeaketa administratiboa egiteko, erabiltzailea eta pasahitza behar dira, edo, kasu batzuetan, ziurtagiri elektronikoa, dagokion erakunde edo banku-erakundearen webgunera sartu ahal izateko.
- Zure ziurtagiri digitala egiaztatzen duen programa instalatu beharko duzu, baita zure ordenagailura konektatutako ziurtagiri elektronikoen irakurgailu bat ere.
- Ziurtagiri digitala erabiliz, ezinezkoa da beste pertsona batek zure nortasuna baliatzea.
- Banka elektronikoen bidez*, hainbat eragiketa egin ahalko dituzu, hala nola ordainagiriak pagatu, mugikorra kargatu, korrespondentzia edo mugimenduak kontsultatu... Banku-erakundearen webgunearen bidez egitean bezalaxe, bermaturik izango duzu segurtasuna.
- Hainbat banku-erakundek administrazio-kudeaketekin loturiko soluzioak ipintzen dituzte eskura ziurtagiri digitala erabiliz. *Kontsultatu "Negozioaren kudeaketa integrala" izeneko EIKT soluzioa.*
- Onlineko ordainketa- eta kobrantza-prozesurako:**
 - Erosleak nahi duen ordainketa-metodoa aukeratzeko.
 - Sistemak modu seguruan bidaltzen du dirua eta hartzaileak jaso egiten du.
 - Zure onlineko* salmenta-atarian integratzen da sistema.
 - Erosleak sistemaren bidez ordaintzen du.
 - Dirua jasoko duzu, ordainketatik deskontatzen den zerbitzuagatik komisio bat aplikatu ondoren.
- Erosketak eginez gero (*kontsultatu "Erosketa zentralizatuen kudeaketa" izeneko EIKT soluzioa*), kudeaketa arindu dezakezu onlineko ordainketaren bidez.
- Onlineko salmenta baduzu (*Kontsultatu "Denda birtualetan saltzea" izeneko EIKT soluzioa*), ordainketak online egiteko bitarteko bizkorra eta segurua izan behar duzu.



Katalogo honetan eskainitako zerrenda erreferentzia bat baino ez da, kolaboratzaileek berek emana agiri hau prestatzeko garaian.

Soluzio hori eskaintzen duten produktu ugari daudenez, gomendatzen dizugu zure ohiko hornitzaile teknologikoarengana jotzea.

IKONOEN ESANAHIA



EUSKERA GAZTELANIA INGELESA

HIZKUNTZA



KOSTUA



DOAN

PREZIOA

PRODUKTUAK

SINADURA DIGITALEKO PLATAFORMAK

[Diputación Foral de Álava](#)

[Diputación Foral de Bizkaia](#)

[Diputación Foral de Gipuzkoa](#)

[Gobierno Vasco](#)

[Factura electrónica-Ef4ktur](#)

[FakturaBAI](#)

[HazTuFactura](#)

[FakturAraba](#)

[LROE Bizkaia](#)

[AutoFirma](#)

[Firm@](#)



ZIURTAGIRI DIGITALAK

[Izenpe](#)



[DNI](#)



ORDAINKETA ETA KOBRANTZA SEGURUA

[Paypal](#)

[Placetopay](#)

[Visa Europe](#)

[Setpay](#)

[Bizum](#)

[Verse](#)

[Twip](#)

[Skrill](#)



Erlazionatutako produktu gehiago: www.spri.eus/euskadinnova

GOMENDIOAK

- Gogoratu ziurtagiri digitalak babes-metodo aurreratua direla. Ziurtagiri digitala konfiantzazko ziurtapen-agintaritza* batek emandako dokumentu edo txartel digitala da, eta **herritar edo enpresa baten nortasuna egiaztatzen du**; hala, bermatzen du hark bakarrik eskura dezakeela bere informazio pertsonala.
- Ziurtatu **komunikazio-protokolo seguruarekin** egiten dituzula egin beharreko izapide telematikoak; hau da, Interneteko helbideek **https://** dutela hasieran.
- Aurreztu** denbora eta joan-etorriak izapide telematikoekin; klik bakar batekin egin ahal izango dituzu zure negozioarako beharrezko kudeaketak.
- Gogoratu online ordaintzeko bitartekoak erabiliz **mundu osoko hornitzaileengana jo dezakezula**, dibisak kudeatzeko arazorik gabe.
- Zure negozioaren atea **beste merkatu batzuetara zabaltzeko**, nazioartean onartutako eta zure produktuak modu globalean saldu ahal izateko konfiantza transmititzen duten sistemak behar dituzu.
- Erosketa-prozesua** ondo amaitzen dela eta entrega egiten dela ziurtatzeko **ardura duen erakunde bat** izango duzu. Garrantzitsua da onlineko dendan kobratzeko metodo hori izatea, **erraz eta konpultsiboki errostera** gonbidatzen baitu.

Laguntza eta euskarria

900 92 93 93



ZER DA?

Zerbitzuok aurrez aurreko edo onlineko trebakuntza eskaintzen dute, enpresatik mugitu gabe eta ordutegi-murritzetarik gabe, ikaskuntza elektronikoko plataforma baten bidez.



Ezartzeko moduak



INPLANTALARIAK



NORBERAK

ZER EGITEN DU?

- † Hari esker, Internet bidez prestakuntza jasotzeko modua izango duzu, irudituz gero garrantzitsua dela negozioa ondo garatzeko edo eskaintzen dituzun zerbitzuak eta produktuak hobetzeko.
- † Zure langileak online* trebatzeko erraztasunak ematen ditu, aurrez aurreko eskoletara joan beharrik gabe.
- † Laguntza eta ikasgaien azalpenak eskaintzen dizkizu, onlineko tutoretzen bidez*.
- † Ikastaro gehienetan irakasleak dituzu eskura, eta oso erraza izaten da haiekin harremanetan ipintzea, hainbat mekanismo baitaude harremanetan jartzeko: posta elektronikoa, txata edo telefonoa.



NOLA FUNTZIONATZEN DU?

- † Nahikoa da onlineko ikastaroa* eskaintzen duen webgunean erregistratzea (beharrezkoa denean), eta eskaintako ikastaroen katalogoan sartzea.
- † Zure negozioaren premietara edo informazioa jaso nahi duzun eremura hobekien egokitzen den ikastaroa aukeratu ahal izango duzu (adibidez, nola erabili tresna informatikoak, nola hobetu bezeroarenganako arreta, eta abar).
- † Aukeratu zalantzak argitzeko laguntza-materiala edo onlineko euskarria* dutenak.
- † Ikastaro jakin bat hautatu ondoren, nahikoa da hasi eta jarraibideei segitzea, kapitulu edo ikasgai bakoitza gaingiduz.
- † Ikastarora joan izanaren egiaztatzea behar baduzu, ziurtatu jasotzen duzula dagokion diploma edo egiaztatzea ikastaroa amaitu ondoren.
- † Onlineko prestakuntzari* esker, arian-arian eta zure erritmoan egon ahal izango zara informatuta eta prestatuta, zure negozioarako beharrezkoak diren gaietan.

ZER EKARPEN EGITEN DIZU?

- † Denbora eta kostuak aurrezteak, alferrikako joan-etorriak saihestuta.
- † Ordutegien malgutasuna eskaintzeak ematen duen erosotasuna; izan ere, ez duzu joan beharko aldez aurretik finkatutako egunetan eta orduetan, eta ondoen datorkizunean egin ahal izango dituzu ikastaroak. Eskura egoten dira Interneten beti.
- † Eguneratuta egotea teknologia berriei edo zure sektorearekin zerikusia duten joeretan.



Katalogo honetan eskainitako zerrenda erreferentzia bat baino ez da, kolaboratzaileek berek emana agiri hau prestatzeko garaian.

Soluzio hori eskaintzen duten produktu ugari daudenez, gomendatzen dizugu zure ohiko hornitzaile teknologikoarengana jotzea.

IKONOEN ESANAHIA



EUSKERA GAZTELANIA INGELESA

HIZKUNTZA



KOSTUA



DOAN

PREZIOA

PRODUCTOS

KZgunea

Euskadi + Innova



Hobetuz

Lanbide

Aktíbatu en Googlen



Sareko trebatzaileak



Video4elearning



Erlazionatutako produktu gehiago: www.spri.eus/euskadinnova



GOMENDIOAK

- › Ez ahaztu denbora faltaren ondorioz azken planoan geratzen duela **jakintza arloan birziklatzea**, jakinik oso garrantzitsua dela, bai langileei begira, bai zuzendariei begira.
- › Gogoratu prestakuntzaren onura ez dela langilearentzat bakarrik, baita enpresarentzat ere; izan ere, bientzat da **inbertsioa** etorkizuneko erronkei aurre egiteko, dela kostuari begira, dela denborari dagokionez.
- › **Noiznahi eta nonahi** presta zaitezke, zeuk aukeratzen baituzu non eta noiz egin ikastaroa.
- › Prestakuntza ona izanez gero, **denbora asko aurreztu dezakegu**, tresna efizienteagoak izango baititugu lanerako.

Laguntza eta euskarria

900 92 93 93



ZER DA?

Bezeroen hitzorduak edo erreserbak kudeatzen dituzten aplikazioak eta zerbitzuak -dela bezeroek berek, dela enpresak-, zerbitzuen agenda erraz eta modu praktikoan antolatzeko.

ZER EGITEN DU?

- Agenda bat erraz, garbi eta azkarrago antolatzeko aukera ematen du, hainbat gailu eta egutegi sinkronizatzen baititu.
- Egunen, asteen, hilabeteen eta abarren arabera ikuspegi globalizatua izatea lagungarria da ideia orokorrak edukitzeko, bai eta epe labur, ertain eta luzerako plangintza argia izateko ere.
- Bezeroei automatikoki bidali ahalko dizkiezu hitzorduen oroiarriak.
- Tresna hodeian badago*, bezeroak online eskatu edo aldatu ahal izango du hitzordu edo erreserba bat, noiznahi (egunean 24 orduz) eta negozioarekin zuzenean harremanetan jarri beharrik gabe. Zerbitzuen onlineko* erreserba horrek, malgutasun handiagoa ematen die bezeroei inora bertaratu beharrik gabe, eta kalitate handiagoa ematen dio zure zerbitzuari.
- Errazago bidaltzen dira bezeroarentzat baliozko informazioa ematen duten agenda, ordutegiak edo bestelako datuak, dela hurrengo bisitarekin loturik, dela jaso beharreko zerbitzu planifikaturako.



ZER EKARPEN EGITEN DIZU?

- Efizientzia handiagoa; izan ere, erraztu egiten du erreserben eta hitzorduen kudeaketa eta kontrola, ikuspegi argiagoa eta zereginen plangintza hobea baitauka.
- Denbora aurrezten da, ez baita behar dedikazio pertsonalik erreserbari edo hitzorduari telefonoz erantzuteko.
- Bezeroari balio erantsia duen zerbitzu bat eskaintzen zaio, eguneko edozein ordutan erreserba edo hitzordua eskatzeko aukera ematen baitu, zure negozioaren ordutegian horretaz arduratu beharrik gabe.



Ezartzeko moduak



HORNITZAILEA



INPLANTALARIAK



NORBERAK

NOLA FUNTZIONATZEN DU?

- Hitzorduak eta erreserbak bi modutan kudea daitezke: online* edo ordenagailu lokal batean instalatuta.
- Localean:** Erraza da lokalean instalatzea, eta aldian-aldian instalatzen dira softwarearen eguneratzeak, aurreko bertsioek izan ditzaketen akats posibleetatik babesteko. Segurtasun-kopiak* egiteko aukera ematen du, bai eta kalteak jasateko probabilitate txikiagoa duen leku batean gordetzeko ere -hodeian* adibidez-. Ez du uzten hitzorduak online kudeatzen.
- Online*:** Erosotasun handiagoa ahalbidetzen du, ez baitu behar instalaziorik eta Internet bidezko erregistro batean oinarritzen baita. Nonahitik sartu daiteke, edozein kokapen geografikotatik; horrela, zure hitzorduen agenda kontsulta dezakezu, baita bulegotik kanpo ere. Negozioaren webgunetik bezeroek erreserba edo hitzordua online eskatu ahal izateko aukera eskaintzen du.
- Bezeroarekin interakzio hori izateko, harekin harremanetan jartzeko datuak bildu behar dituzu (baimenarekin), eta bermatu behar duzu betetzen duzula datuak babesteko erregelamendu berria.
- Oroiariak izanez gero, ziurtatu 24 ordu lehenago jasotzen direla, bermatzeko bezeroak egokitzen duela agenda oharraren arabera.
- Pertsona edo kolektibo bakoitzarentzako mezuak pertsonalizatzeko denbora inbertitzen du, agertzen den beharraren eta lotutako zerbitzuaren arabera. Hainbat fitxategi erantsi daitezke (testua, irudia, bideoa, audioa eta abar).

DOAN
EZIOA

- <https://www.spri.eus/es/ayudas/inplantalariak/>



ZER DA?

Aplikazio* hauen bidez, erraz eta bizkor kudeatuko dituzu zure negozioko administrazio-lanak, bai eta bezeroari arreta emateko eginkizunak ere, eta arrazoizko kostuekin, gainera.

ZER EGITEN DU?

- Modu erraz, integratu eta irisgarrian eraman ahal izango duzu zure negozioaren kontrola nonahitik, eta, horri esker, edozer gai konpondu ahal izango duzu negozioa bertaratu beharrik gabe.
- Tresna berarekin eraman ahal izango duzu kudeaketa osoa (plangintza, fakturazioa, bezeroak, gastuen kontrola, polizia-fitxa, eta abar).
- Zure bezeroek online egin ahal izango dituzte erreserbak webgunean, zeina zure barne-erreserben sistemarekin integratuta egongo baita.
- Bezero bakoitzaren datuak eta emandako zerbitzuak biltzen ditu hainbat formatutan, ondoren erabili eta ustiatzeko; hala, eskaintako zerbitzuaren jarraipena egin daiteke.
- Negozioaren merkataritza-kudeaketako edozein programatan sartu daitezke datu guztiak.



ZER EKARPEN EGITEN DIZU?

- Azpiegitura sinplifikatzea, bai eta bezeroak kudeatzeko prozedurak eta negozioko beharrezko jarduera ere.
- Erosotasuna, nonahitik sartu ahal izango baitzara zure sistemara, negozioan fisikoki egon beharrik gabe.
- Denbora aurrezte, erreserba bat klik batekin gehitu edo luzatu ahal izateari esker.
- Efizientzia handiagoa, toki bakarrean izango baituzu bezeroaren informazio guztia.
- Papera kentzea eta zereginak sinplifikatzea.

Ezartzeko moduak



HORNITZAILEA



NORBERAK

NOLA FUNTZIONATZEN DU?

- Ostatuetako bezeroak kudeatzera bideratutako soluzioak honako alderdi hauek biltzen ditu:
 - Erreserbak hartzea, sarrera- eta irteera-erregistroak, fakturazioa. Negozioa kudeatzeko sistemarekin integratuta, erraztu egin behar ditu administrazio-izapideak, hala nola fakturen kudeaketa (kontsultatu "Negozioaren kudeaketa integrala" izeneko EIKT soluzioa).
 - Ostatu-hartzaileak erregistratzea.
 - Logelak kudeatzea.
 - Kargu gehigarriak kudeatzea, hala nola gosariak, otorduak, aparkalekua, loreak, eta abar.
 - Fakturak eta proformako fakturak PDF formatuan sortzea, inprimatzeko edo postaz bidaltzeko.
 - Berehala lortzen dira txostenak okupaturiko egun, aste, hilabete, hiruileko edo urte bakoitzeko, baita fakturatutako zenbatekoak, zergak eta gehiago ere.
 - Internet bidez erakusten ditu eskuragarritasun-datuak; hala, bezero potentzialek zure webgunearen kontsulta dezakete (Kontsultatu "Atari interaktiboa" izeneko EIKT soluzioa), edo informazio hori eskuratzeko beste webgune baten bidez.
 - Zerbitzu medikoen bezeroen kudeaketa klinikako bezeroari bestelako zerbitzu bat ematera bideratuta dago:
 - Datuak modu intuitiboan, erabilerraz eta oso nabigazio erakargarriarekin sartzea; horrekin, pazientearentzat izapide erraza eta azkarra izango da.
 - Pazienteak intimitatea eta erosotasuna irabazten ditu bere datuak itxarongelan ematean, eta klinikak murriztu egiten du erakusmahaiaren emaniko denbora, langileek arreta pertsonalean denbora gehiago eman dezaten, eta ez administrazio-lanetan.
 - Gainera, iPad a eta aplikazio* erabat pertsonalizatua erabiltzeak irudiaren eta marketina hobetzen ditu, eta beste klinika eta zentro medikoetatik bereiztea ekartzen du.
 - Bildutako bezeroen datuek eta emandako zerbitzuen erregistroak sustapen-estrategia elikatu behar dute, "Mailinga eta bezeroentzako abisua" izeneko EIKT soluzioaren bidez.



Katalogo honetan eskainitako zerrenda erreferentzia bat baino ez da, kolaboratzaileek berek emana agiri hau prestatzeko garaian.

Soluzio hori eskaintzen duten produktu ugari daudenez, gomendatzen dizugu zure ohiko hornitzaile teknologikoarengana jotzea.

IKONOEN ESANAHIA



EUSKERA GAZTELANIA INGELESA
HIZKUNTZA



KOSTUA DOAN
PREZIOA



PRODUCTOS

[Ruralgest](#)

[Book at Once](#)

[Gestión Secre aplimedia](#)



[Redforts](#)

[Prestige Saas](#)

[VCardmaker](#)



[Oddo](#)

[Twinia](#)

[Euroges](#)

[Holded](#)



[Suma CRM](#)

[Hubspot](#)



[Sugar CRM](#)

[ZohoCRM](#)



[Quoters](#)



Erlazionatutako produktu gehiago: www.spri.eus/euskadinnova

GOMENDIOAK



- } **Gogoratu** zure beharretara gehien egokitzen den softwarea aukeratzeaz. Hasteko eta behin, negozioaren kudeaketa hobetzeko zer behar den aztertu behar da, eta, zehaztu ondoren, zer aplikaziok* balio dizun ikusi, kalitate-prezio erlazio onarekin.
- } **Wifi teknologia** erabiltzeak erosotasun eta mugikortasun handiagoa ematen du. Baliteke hainbat gailu egotea Internetera konektatuta, kable bidez lotu beharrik gabe.
- } Aplikazioa **web-zerbitzari batean instala dezakezu**, eta, horri esker, edozein lekutatik edo gailutatik eskura daiteke informazioa, noiznahi.
- } Erabili baimen informatuak eta bezeroek sinatutako datuak babesteko fitxak automatikoki **digitalizatzeko**, eta guztia kudeaketa-programan enkriptatuta* gordetzeko.

Laguntza eta
euskarria

900 92 93 93



ZER DA?

Aplikazio hauen bidez, kontrolaturik izango dituzu banaketa-ibilgailuak, instalazioak edo desplazamendua eskatzen duten elementuak.



Ezartzeko moduak



HORNITZAILEA



NORBERAK

ZER EGITEN DU?

- Bezero batengandik gertuen dagoen ibilgailua aurkitzen du, eta errazago esleitzen ditu premiazko entregak.
- Langileek gidatzen emandako denbora kudeatzen du, baita atsedendiak, geldialdiak, jaiegunetako joan-etorriak eta ibilbideetako denbora ere.
- Kargak garraiatzen ditu bidean produktu guztien jarraipen zehatza behar duten bezeroentzat.
- Gure intereseko pertsonak denbora errealean kokatzeaz gain, soluzio hori baliatu daiteke posta elektronikoz konektatzeko, SMS bat bidaltzeko, onlineko elkarrizketa bat edo txat bat izateko edo, besterik gabe, deitzeko.



NOLA FUNTZIONATZEN DU?

- Flotak kudeatzeko sistema baten funtzionaltasun nagusia ibilgailuen jarraipena da, normalean GPS* sistema batean oinarrituta.
- Sistemak ibilgailuaren informazioa jasotzen du, eta sistemaren kudeatzaileari transmititzen dio. Hark, berriz, denbora errealean erakusten dio bezeroari.
- Jarraipenari, kokapenei, geldialdiei, denborei eta abiadurei buruzko datuak biltzen dituen txosten bat sortzeko aukera eskaintzen du.
- Gidaria une oro komunika daiteke sistema zentralarekin, lan-parteen, aurrez definitutako mezuen eta abarren bidez. Hartara, saihestu egiten da etengabe telefono-deiak egitea.
- Era berean, bezeroak geografikoki erreferentziatuta eduki ahal izango ditu interesgune guztiak, bai eta atxikitze aukera duten eremuak eta istripu arrisku handia duten eremuak ere.
- Badira hainbat soluzio pertsonen (langileen) kokapen zehatza jakiteko eta haiekin komunikatzeko.
- Oso intuitiboak izaten dira, eta forma aldetik konfiguragarriak. Hasieratik erraz landu daitezke.

ZER EKARPEN EGITEN DIZU?

- Segurtasuna, une oro lokalizatuta eduki baitituzu salgai guztiak.
- Kostuak aurrezte, benetako informazioa izango baituzu produktibitatea hobetzeko, eta ehuneko handi bat aurreztuko duzu negozioaren kostuetan.
- Gidarien eta garraioaren segurtasuna zaintzea, eta denbora errealean kontrolatzea ezarritako gehieneko abiadurak gainditzen ote diren.
- Lasaitasuna, une oro jakin baitaiteke langileak non dauden zehatz-mehatz.
- Soiltasuna da tankera honetako aplikazioen gakoetako bat*.



Katalogo honetan eskainitako zerrenda erreferentzia bat baino ez da, kolaboratzaileek berek emana agiri hau prestatzeko garaian.

Soluzio hori eskaintzen duten produktu ugari daudenez, gomendatzen dizugu zure ohiko hornitzaile teknologikoarengana jotzea.

IKONOEN ESANAHIA



EUSKERA GAZTELANIA INGELESA

IDIOMA



KOSTUA



DOAN

PREZIOA

PRODUKTUAK

[MobileFleet](#)

[Flotasnet](#)

[Moviloc](#)

[Ibilbideak GPS* bidez kontrolatzea](#)



Erlazionatutako produktu gehiago: www.spri.eus/euskadinnova



GOMENDIOAK

- › Zure **ibilgailuek emandako datuak ondoz ondo aztertzea** lagungarria izango da enpresaren errendimendu ekonomikoa hobetzeko.
- › Bilatu beti **biderik onenak**, premia handiena duten bezeroengana iristeko.
- › Ahal den neurrian, eduki **bide alternatiboak**; izan ere, gerta liteke bideetako bat kolapsatuta egotea.
- › Jakinarazi **bezeroei aldian-aldian** beren salgaiak non dauden.

Laguntza eta
euskarria

900 92 93 93



ZER DA?

Gailu multzo honi esker, erraztu egiten da negozioak eskaintzen duen zerbitzuaren jarraitutasuna, nahi ez diren etenak saihestuz eta, hala, eskaintzen den zerbitzua bizkortuz.

ZER EGITEN DU?

Hainbat gailu mota biltzen ditu, eta guztiek balio erantsia eskaintzen diote egungo zerbitzuari:

Bideozaintza:

- } Bideokameretako irudiak grabatzen ditu, negozioan gauden ala ez kontuan hartu gabe. Hartara, erregistratuta geratzen da edozein mugimendu. Aukera horiek normalean konfiguratu egin daitezke.
- } Denbora errealean ikus daiteke kamera bakoitzaren ikus-eremu barruan gertatzen dena. Horri esker, zainduta eduki daiteke areto edo gela bakoitza, eta, hala, instalazioen ikuspegi orokorra izan dezakegu.

Irekiera automatikoa eta esku libreak:

- } Eskaintzen ari zaren zerbitzua ez eteteko gailu fisikoak. Bezeroari arreta ematen jarraitu ahal izango duzu, eta, aldi berean, beste zeregin batzuk ere egin ahal izango dituzu.
- } Beste bezero batzuei arreta ematen jarraitu ahalko duzu, egungoari zerbitzua emateari utzi gabe, eta, horrela, hobetu egiten da zerbitzuaren efizientzia.



ZER EKARPEN EGITEN DIZU?

- } Segurtasuna, kontrolaturik baitauzkazu instalazioak une oro eta nonahitik.
- } Gertatutako guztia erregistratuko duzu, eta disko gogor batean izango duzu noiznahi eskura.
- } Negozioaren ikuspegi modernoa eskaintzea.
- } Eskaintzen ari zaren zerbitzuan etenak saihestea, eta bezero berriak artatu ahal izatea.

Ezartzeko moduak



HORNITZAILEA



NORBERAK

NOLA FUNTZIONATZEN DU?

- } Bideozaintzarako sistema batek bideokamerak eta grabagailu digital bat izaten ditu oinarri.
- } Bideokamerek irudiak hartu eta grabagailu digitalera igortzen dituzte.
- } Irudi horiek sarearen bidez ematen dira, eta Internetarako sarbidea duen ordenagailu batetik ikusi ahal izaten dira.
- } Grabagailu digitalean jasotako irudiak euskarri batean gordetzen dira -adibidez, disko gogor batean-, behar izanez gero aztertu ahal izateko.
- } Aldi berean, grabagailu digitalak beste funtzionalitate interesgarri batzuk ere baditu:

- **Hainbat kanal:** Hainbat kanal aldi berean grabatu eta bistaratu daitezke. Grabagailu bakoitza gauza da aldi berean 4, 8 edo 16 kamera ikusteko eta grabatzeko, modeloaren arabera.
- **Sare konexioa:** Ethernet sare-konexio bat eta doako software bat izaten dituzte, grabagailua modu lokalean konektatutako ordenagailu batetik kontrolatu ahal izateko. Hori oso baliagarria da, adibidez, grabazioak bulegoko ordenagailu batetik ikusteko, aparatua makina-gelan fisikoki instalatuta edukita. Horretaz gainera, kamerak inork jakin gabe konfiguratu ditzakegu, baita kamerak bistaratu edo segurtasun-kopiak* egin ere, monitore nagusian ikusten ari dena gorabehera.
- } Gutxienez, bideozaintzako kita, esku libreen kita eta irekitze automatikoko kita behar dira.



Katalogo honetan eskainitako zerrenda erreferentzia bat baino ez da, kolaboratzaileek berek emana agiri hau prestatzeko garaian.

Soluzio hori eskaintzen duten produktu ugari daudenez, gomendatzen dizugu zure ohiko hornitzaile teknologikoarengana jotzea.

IKONOEN ESANAHIA



EUSKERA GAZTELANIA INGELESA

HIZKUNTZA



KOSTUA



DOAN

PREZIOA

PRODUKTUAK

[Seguridad Plus](#)

[Cámaras Wifi](#)

[Espía 007](#)

[Securitas Direct](#)

[Seprogin](#)



Erlazionatutako produktu gehiago: www.spri.eus/euskadinnova

GOMENDIOAK



- Instalatu kamerak zure negozioko **leku estrategikoetan**. Pasabide erabakigarriak, salgaiak biltegitratzeko lekuak, kutxa gotorretara bideratuak...
- Eduki **ikusteko moduko tokian**; zaintza-objektuak izaki, ikaraturik sentituko da inguruko jendea eta jokabidea zainduko dute.
- Horrelako soluzioak **lapurren kontrako disuasio-metodoa** dira. Zainduta sentitzeak saihestu egiten ditu hainbat ekintza bandaliko; saihetsezina da hori psikologikoki.
- Kamera-modelo batzuek irudia ez ezik **audioa ere grabatzen dute**.

Laguntza eta
euskarria

900 92 93 93



ZER DA?

Bezereen itxaronaldia edo zerbitzuan igarotako denborak atseginagoak eta errentagarriagoak egiteko modua egiten duten sistemak eta aplikazioak.



Ezartzeko moduak



HORNITZAILEA

ZER EGITEN DU?

- Itxaronaldiak kudeatzea:** Bezereen joan-etorria bideratzea eta kudeatzea du helburu, negozioarekin lehen harremana duenetik harik eta eskatutako zerbitzua eman arte.
- Illarak kudeatzea:** Txanda gerturatzeko zaionean, SMS bat bidaliko zaio bezeroari, eta, hala, alferrikako itxaronaldiak saihestuko ditu, eta, bien bitartean, beste gestio batzuk egingo ditu.
- Kartel dinamikoak:** Pantaila batean informazio-kanal bat (telebista, adibidez) eta/edo publizitate-kanal bat (negozioaren zerbitzuak) eskaintzen ditu, eta, aldi berean, txanden gaineko informazioa erakusten du.



ZELAN FUNTZIONATZEN DU?

Bezereen fluxuaren kudeaketak (*Custom Flow Management*, CFM) hainbat onura eskaintzen ditu:

Itxaronaldiak kudeatzea

- Erraz instalatzen da, eta aise egokitu daiteke bezerearen beharretara, sistema autonomoa baita eta ez baitu ekipamendu informatikorik behar.
- Sistema horrek hiru gune ditu: harrera-gunea (bezereak beren beharren arabera eta unean bertan antolatzeak aukera ematen du), itxarote-gunea (deituriko zenbakiak adierazten ditu, bai eta non artatuko diren ere) eta arreta-gunea (arreta-postu desberdinak, zerbitzu hobea eskaintzeko eta akatsak gutxitzeko).

Illarak kudeatzea

- Datu-base* bat ezartzen da, baita hornitzaileak emaniko txanda-kudeatzaile bat ere.
- Bezereak telefono mugikorraren zenbakia sartzen du negozioan dagoen gailuan, eta egin beharreko gestioak egitera irteten da. Bere txandarako bizpahiru txanda geratzen direnean, SMS bidezko jakinarazpen bat jasoko du, horren berri emanez.
- Horri esker, itxarote-denborak murriztu eta are desagerrarazi egiten dira, edo bezerearentzat atseginak eta negozioarentzat produktiboak bihurtzen dira; izan ere, "alferrikako denbora" horiek enpresaren produktuak eta zerbitzuak sustatzeko aprobetxatu daitezke.

Kartel dinamikoak

- Bideoak, irudiak edo aurkezpenak aurkezten ditu Power Point formatuan, negozioaren irizpideei jarraikiz, txanda emateko adierazlearekin batera (dela TFT pantailetan, dela telebistetan).

ZER EKARPEN EGITEN DIZU?

- Kalitatezko zerbitzua eskaintzen dio bezeroari, eta, beraz, gogobetetasuna eta salmentak areagotzen ditu.
- Langileen lan-baldintzak hobetzen ditu jendeari begira, eta pertsona bakoitza modu individualizatu eta ordenatuan artatzea ahalbidetzen du, bezerearen konfidentzialtasuna errespetatuz.
- Negozioaren irudia hobetzen du eta komunikazio korporatiboa sustatzen, bezeroari profesionaltasuna eta efikazia eskaintzen baitio.



Katalogo honetan eskainitako zerrenda erreferentzia bat baino ez da, kolaboratzaileek berek emana agiri hau prestatzeko garaian.

Soluzio hori eskaintzen duten produktu ugari daudenez, gomendatzen dizugu zure ohiko hornitzaile teknologikoarengana jotzea.

IKONOEN ESANAHIA



EUSKERA GAZTELANIA INGELESA

HIZKUNTZA



KOSTUA



PREZIOA

PRODUKTUAK

ITXARONALDIAK KUDEATZEKO SISTEMA

[IDM](#)

[Qsystem](#)

[Simplybook.me](#)



ILARAK KUDEATZEA

[Quenda](#)

[Qmatic](#)



Erlazionatutako produktu gehiago: www.spri.eus/euskadinnova

GOMENDIOAK



- › Zure bezeroen **itxarote-denborak saihestearen** aldeko apustua egin dezakezu, SMS bidezko abisu-zerbitzu batekin; bestela, denbora huts horiek aprobetxatu ditzakezu, zure produktuak eta zerbitzuak sustatzeko eta, horri esker, errentagarritasuna areagotzeko.
- › Gailu bat baldin baduzu bezeroak bere telefono mugikorraren zenbakia sartzeko eta txanda hurbiltzen zaionean hari abisatzeko, jarri **ikusteko moduko leku batean** eta **sustatu** ahal duzun guztia, bezeroek ezagutzeko eta amortizatzeko.

Laguntza eta
euskarria

900 92 93 93



ZER DA?

Soluzio hauei esker, zauden tokira eramango dituzu zeure negozioa, bulegoa eta agenda, erabateko mugikortasunez; halaber, errealitate areagotuaren eta birtualaren aukerak aprobetxatu ahal izango dituzu.

ZER EGITEN DU?

- **Bulego mugikorra:** Azkar eta erraz eskaneatzen eta sinatzen ditu agiriak, baita oharrak hartu ere; hala, denbora eta kostuak aurrezten ditu gailu mugikor batetik aritzeari esker, bulegoan egon beharrik izan gabe.
- **Kudeaketa mugikorra:** Hari esker, zauden lekutik administratu ahal izango duzu negozioa, eta elkarlanean kudeatu ahal izango dituzu zereginak; gailuan espazio paralelo bat klonatuz, erabilgarri dauden aplikazioak areagotu eta urrunetik sartuko zara zure informazioa edo sistemetara. Hala, automatizatu egingo dituzu zerbitzuak edo Interneteko erantzuna.
- **Geolokalizazioa:** enpresak lokalizazioaren arabera aurkitzeko eta ezagutzeko modua bizkortzeko aukera eskaintzen du, eta, hari esker, zure bezeroak zure negozioari buruzko eskaintzak edo informazioa jasoko ditu, gertuko kokapenaren arabera.



Ezartzeko moduak



HORNITZAILEA



INPLANTALARIAK



AUTO
INPLANTAKETA

NOLA FUNTZIONATZEN DU?

Bulego mugikorra

- › Aplikazioa instalatu ondoren, eta nahiko intuitiboak direla kontuan hartuta, eskaneatu edo sinatu beharreko dokumentua aukeratu eta sinadura txertatu besterik ez da egin behar, dela eskuz, dela dagoeneko jasota dagoen irudi gisa. Gure oharrak modu digitalean jaso daitezke, paperean eginak balira bezala.papel.

Kudeaketa mugikorra

- › Zereginak eta haien egoera online eta mugikortasunez partekatzeko aukera ematen du, bulegoko taldearen aurrean egon beharrik gabe. Hala, agindutako zereginak zer aurrerabide duten jakin daiteke.
- › Interneteko atazak edo zerbitzuak automatizatzen ditu, zerbitzu batean zerbaiz gertatzen denean, beste batean erreplika jakin bat egon dadin (If This Then That), kokapen bidezko sarbide-erregistro gisa, ekintza baten ondoren informazioa edo irudiak erregistratzeko.
- › Galdu edo lapurtuz gero, mugikorrean dagoen informazioa urrutitik ezabatzea.
- › Mugikorraren ispilu-espazio bat klonatzea, aplikazio bereko hainbat instantzia instalatu ahal izateko, hala nola Facebookeko profilak, WhatsAppeko hainbat erabiltzaile, eta abar.

Geolokalizazioa

- › Gailu mugikor baten kokapenaren berri izateko eta harekin elkarreragiteko aukera ematen du, dela negozioari buruzko mezuak edo informazioa bidaliz, dela gailu horretatik igortzen den kokapen zehatzaren, egoeraren edo informazioaren berri izanez (sare sozialetako mezuak).

ZER EKARPEN EGITEN DIZU?

- › Bizkorrago egin daitezke administrazio-lanak, gailu mugikor batetik, bulegoan egon beharrik gabe.
- › Urrutitik edo mugikor bidez automatizatu daitezke atazak eta izapideak, edozein lekutatik.
- › Errealitate aberatsagoa eskaintzen digu, inguratzen gaituen guztia aurkitu eta bistaratu ahal izango baitugu, guk geuk ikusi ezin dugun informazioa erakutsiz; halaber, etorkizuneko egoerak simulatu ahal izango ditugu, ustekabeko egoera orori arrakastaz aurre egin ahal izateko.
- › Hurbileko kokapenaren arabera, negozioak edo interes komun edo baliozkoak dituen pertsonarik ba ote dagoen jakitea edo jakinaraztea.



Katalogo honetan eskaintzen den zerrenda prestatzeko garaian laguntzaileek emandako erreferentzia baino ez da.

Soluzio hori eskaintzen duten produktuak ugari direnez, zure ohiko hornitzaile teknologikoarengana jotzea gomendatzen dizugu.

IKONOEN ESANAHIA



EUSKARA GAZTELANIA
HIZKUNTZA



DOAN
PREZIOA

PRODUKTUAK

BULEGOA/KUDEAKETA MUGIKORRA

[Penultimate](#)

[Scannable](#)

[Office Lens](#)

[Notificaciones habladas](#)

[Cudasign](#)

[Sign Easy](#)

[Army Knife](#)

[AppBox Pro](#)

[CallX](#)

[AVD Screen Recorder](#)

[Adobe Fill & Sign](#)

[Your Phone](#)

[Speechify](#)



GEOLOCALIZACIÓN

[Terminalen urruneko](#)

[ezabaketak](#)

[IOS / Android](#)

[Foursquare](#)

[Parallel Space](#)

[Life360](#)

[Wikitude](#)

[Layar](#)

[Parallel Space](#)

[LockWatch \(lapurreten aurka\)](#)

[Conan Mobile \(Babesa\)](#)

[Waze \(Nabigatzailea\)](#)



Erlazionatutako produktu gehiago: www.spri.eus/euskadinnova



Gomendioak

- › Zure produktuen edo zerbitzuen katalogoa zabal dezakezu, informazio digitalarekin eta URLetarako sarbidearekin, gailu mugikor baten bidez informazio gehiago eskaintzen duen katalogo areagotu bat eskainiz, bai eta datu eguneratuak emanez ere, berriro inprimatu beharrik izan gabe.
- › Nonahitik banatu daitezke lanak eta jakin daiteke zer aurrerabide duten, eta ez da beharrezkoa bulegoan fisikoki egotea edo bazkide edo laguntzaileekin aurrez aurreko harremana izatea.
- › Errealitate birtualarekin errazten da makineria kritikoaren erabilerari buruzko prestakuntza, erabilera simulatuz eta, hala, matxurak eragiten dituzten erabilera okerrak saihestuz.

Laguntza eta
euskarria

900 92 93 93



Zer da?

Soluzio hauei esker, **Industry 4.0**ekin lotutako **potentzialtasunak** eskura daitezke, eta, hala, **produktibitatea** bera ez ezik **produktua/zerbitzua** entregatzeko **kalitatea** ere **handitzen da**, **funtsezko prozesuak digitalizatzen** eta **konektatzen** baitituzte; **horren ondorioz, fabrikazio arinagoa, malguagoa eta bezeroentzat hautemangarriagoa lortzen dira.**

Zer egiten du?

- **Fabrikazio gehigarria eta 3D inprimaketa:** 3D inprimaketa eta fabrikazio gehigarria ez dira gauza bera. **Fabrikazio gehigarriak** materiala gehituz egiten diren eta osagai konplexu eta iraunkor berriak sortzeko erabiltzen diren fabrikazio-teknika guztiei egiten die erreferentzia; **3D inprimaketak**, berriz, prototipatze azkarraren oinarri gisa, azken modeloak edo piezak azkar baina mugatuta fabrikatzeari egiten dio erreferentzia, eta, normalean, teknologia gehigarri mota jakin batera mugatzen da.
- **Fabrikazio adimenduna:** Kontzeptu honen barruan, automatizazio eta sentsorizazio gaiak sartu dira (Gauzen Internet eta Biga Datako elementuak, esaterako), eta, behar bezala integratuta, datuak jasotzea, biltzea eta ustiatzea ahalbidetzen dute, sistemak egokiago kudeatzeko eta, ondorioz, enpresaren lehiakortasun hobea lortzeko.
- **Errealitate areagotua eta birtuala:** Lehen errealitateari balioa ematen saiatzen da, ekintza jakin batzuk edo erabakiak hartzea errazteko, eta errealitatearekin konbinatzen diren informazioa eta irudi artifizialak gainjartzen ditu, errealitatearekin tratu hobea eskaintzeko. Birtualari dagokionez, errealitatea ordeztzen du, eta, hala, egoera ez-errealak "bizitzeko edo sentitzeko" modua egiten du; horiei esker, egoera horiekiko etorkizuneko benetako interakzioetarako prestatzen gara (makineriarekin loturiko trebakuntza prestakuntza, fobien aurreko erreakzioak, eta abar).



ZER EKARPEN EGITEN DIZU?

- Tresna eta praktika horien bidez, mikroenpresetan Industry 4.0 soluzioak txertatu nahi dira, negozio-prozesu erabakigarrietan modu errealistan aplikatu ahal izateko, inbertsio eta gaikuntza handirik gabe, baina horrelako soluzioek enpresa ertain eta handiei sortzen dizkieten berrikuntza eta aldaketei atak irekiz -jakinik dagoeneko txertatuta dauzkatela beren prozesuetan-.
- □ Produktu edo zerbitzu bat merkaturatzeko denbora automatizatu, arindu eta murriztu nahi da, eta moldagarritasuna, malgutasuna eta eraginkortasuna lehenetsi nahi dira egungo merkatuan bezeroen beharrei erantzuteko.



PROVEEDOR



INPLANTALARIAK



AUTO
IMPLANTACIÓN

Modos de implantación

Nola funtzionatzen du?

Fabrikazio gehigarria eta 3D inprimaketa:

- Helburuaren (ekoiztea edo prototipatzea) eta, eskatutako diseinuaren edo aholkularitzaren arabera, mota bat edo bestea aukeratu behar da.
- Plataformek edo soluzioek hainbat aukera eskaintzen dituzte: inprimaketa hutsa, inprimaketaren diseinua edo egokitzapena, edo are produktuaren produkzio-prozesu eta bizitza-prozesu osoa definitzeko aholkularitza.

Fabrikazio adimenduna:

- Sentsoreak sartzeko eta Biga Dataren bidez sistemetan integratzeko, funtsezko segurtasun-betekizunak aztertu behar dira, objektuek sarearen bidez bildutako datuak transferitzeko duten gaitasunari arriskurik gabe etekina ateratzeko eta, horietatik abiatuta, enpresaren jardura kontrolatu eta kudeatzeko.
- Big Datako sentsore eta aplikazioak ekoizpen-sistema motaren arabera aukeratu behar dira; beraz, aholkularitza behar da alde aurretik, bideragarritasunaren eta kostu-onuraren analisia oinarritutako aukerak aztertzeko.

Errealitate areagotua eta birtuala

- Errealitate birtualerako teknologia eta osagarriak behar dira, hala nola errealitate birtuala eta birtualitateko kaskoak, baita jantziak, agintek edo entzungailuak ere. Horiek guztiak estimuluak transmititzen dizkigute, eta horiek ematen digute errealitate birtualaren esperientziak gozatzeko aukera.
- Errealitate areagotuan, gailu baten bidez, gailuak erakusten duen errealitateari informazioa gehitzen zaio (geruzak), eta gure inguruneari buruzko ezagutza garrantzitsua ematen duten esperientziak sortzen ditu; gainera, denbora errealean jasotzen dugu informazio hori.



Katalogo honetan eskaintzen den zerrenda prestatzeko garaian laguntzaileek emandako erreferentzia baino ez da.

Soluzio hori eskaintzen duten produktuak ugari direnez, zure ohiko hornitzaile teknologikoarengana jotzea gomendatzen dizugu.

IKONOEN ESANAHIA



EUSKARA



GAZTELANIA



INGELES



HIZKUNTZA



DOAN

PREZIOA

Produktuak

FABRIKAZIO GEHIGARRIA

[Printernet](#). Onlineko 3D inprimaketarako plataforma

[Domotek](#). Prototipoak eraikitzea



[Addimen](#). 3D diseinua sortzea eta material metalikoak inprimatzea

FABRIKAZIO ADIMENDUNA

Gauzen Internet - Automatizazioa:

[IFTTT](#)

[Zapier](#)

[Rebot.me](#)



[Sensorización de ubicación y stocks](#)

[Sensorización de valores ambientales](#)

Mi Led Smart Bulb y mydlink - Enchufes inteligentes

[Kentu](#): Sensorización IoT

[Imatek](#): Automatización y

Sensorización de aforos, ruidos, ...



Big Data

[Innguma](#)

[Power BI](#)

[Data studio Google](#)



ERREALITATE AREAGOTUA ETA BIRTUALA

[BeitxuStudios](#)
[Basque Games Lab](#)
[GTS](#)



[Layar Creator](#)



ZERBITZU AURRERATUAK

[Blockchaim](#)

[Metron](#)

[Bilbao As fabrik](#)



Erlazionatutako produktu gehiago: www.spri.eus/euskadinnova

GOMENDIOAK



- Errealitate birtualarekin errazten da makineria kritikoaren erabilerari buruzko prestakuntza, erabileraren simulatzea eta, hala, matxurak eragiten dituzten erabileraren okerrak saihestuz.
- Ekoizpena, kokapena eta ingurumen-egoera automatizatzeari eta sententziazatzeari esker, berehala hartu daitezke erabakiak aldaketan aurrean.
- Eredu ukigarri moduan prototipatzeak -are behin betiko materialarekin, alegia, 3D inprimaketa-, produktua ebaluazioa eta testatzea ahalbidetzen du, eta horrek bermatu egiten du ondoren baliozkotzea eta onartzea.

Laguntza eta
euskarria

900 92 93 93

Eranskina

EIKT soluzioak ezartzeko ereduak

Enpresa-jarduera motaren eta EIKTak erabiltzeko gaikuntzaren arabera, mikroETEaren lehiakortasunari ekarpen handiena egiten dioten EIKT soluzioak ezartzeko bideak (ereduak) ezar daitezke.

EIKT soluzioen katalogo honetan gomendio gisa ezarritako ezarpen-ereduak **EIKTen erabilera-mailak eta EIKTen erabilerarekin lotutako lehiakortasuna hobetzeko helburuek** emaniko ardatzetan ulertu behar dira.

EIKT erabilera-maila

OINARRIZ KOA	Bada komunikatzeko eta Interneten sartzeko gailu bat, bai eta aplikazioak instalatzeko eta erabiltzeko aukera ere (ekipamendu informatikoa, Interneterako sarbidea duen gailu mugikorra edo antzekoak), baina enpresa-jarduerari aplikatutako EIKTak erabili gabe.
TARTEKOA	EIKTak erabili ohi dira enpresa-jardueran eta 2.0 bitartekoen ustiapenean, baina negozio-ikuspegiarik gabe edo erabilera integratu eta jarraiturik gabe.
AURRERA TUA	EIKTak modu aktiboan eta ohikoan erabiltzen dira, egungo joeretara egokitze beharrarekin eta inplikazioarekin. Lan egiteko modua sektoreko EIKT joeretara egokitze gaitasuna.

EIKTen bidez lehiakortasuna hobetzea

EIKTak ezartzeko prozesuak negozioa hobetzeko helburua izan behar du, eta horrek lehiakortasunean eragin behar du. Negozioak hainbat bidetako lehentasunak ezarri behar ditu:

KOSTUAK/DEN BORA AURREZTEA

EIKTen erabilerak egungo kostuak ezabatuko ditu, murriztu egingo ditu zeregin errepikakorrek egiteko denborak eta, ondorioz, erraztu eta arindu egingo ditu administrazio- eta kudeaketa-lanak.

BEZERO GEHIAGO

EIKTak erabiliz, mikroenpresen produktuak eta zerbitzuak bezero potentzialei modu proaktiboan erakustea, haien eskaeretara egokiturik, onlineko salmentak ahalbidetzeko.

SALMENTA GEHIAGO

EIKTak erabiliz, egungo bezeroei mikroenpresen produktuak eta zerbitzuak online eskuratzeko modua eskaintzea.

FIDELIZAZIOA

EIKTak erabiliz, bezeroen etengabeko interesa bereganatzea, produktuak eta/edo zerbitzuak beren eskaeretara egokituz eta pertsonalizatuz, eta are haien premiei aurea hartuz, gehiago saltzea lortzeko, bai offline, bai online.

EFIZIENTZIA

EIKTak erabiliz, negozio-katearen barne-kudeaketa efizienteagoa eta integratuagoa lortzea (salmentak, stocka, eskaerak, eragiketa, saldu osteko zerbitzua), eta horrek eragina izango du mikroenpresen zerbitzuan eta emaitzetan.

BEREIZTEA

EIKTak erabiliz, mikroenpresa lehiakideengandik bereizteko aukera izatea, bezeroari zuzendutako balio-zerbitzuak eskaintzen dituelako eta sektoreko aldaketa eta joeren aurrean abantailekin posizionatzen delako. Sektorearen, lehiaren eta joeren mende dago neurri handi batean.

Eranskina

EIKT soluzioak ezartzeko ereduak

Patroien matrizeak ezarpen-ibilbide posibleak erakusten ditu. Horiei esker, mikroenpresa batek helburuen eta abiapuntuaren arabera ezaipena egin dezake, EIKTen erabilera-maila kontuan hartuz.

EIKT-EN ERABILERA-MAILA EIKT-EI ESKER LEHIAKORTASUNA HOBETZEA	OINARRIZKOA	TARTEKOA	AURRETATUA
KOSTUAK/DENBORA AURREZTEA	Utilitateak Onlineko komunikazioa Onlineko prestakuntza Onlineko mahaigaina	Hodeian biltegitratzea Izapide telematikoak Onlineko prestakuntza Bulego mugikorra	Ordainketa eta kobrantza segurua Onlineko prestakuntza Erosketen kudeaketa Kudeaketa mugikorra
BEZERO GEHIAGO	Posizionamendu birtuala Presentzia birtuala Dinamizazioa	Posizionamendua + dinamizazioa Presentzia birtuala + emailinga Marketina Interneteko publizitatea	Dinamizazioa + Alertak sarean Marketin sektoriala + Publizitatea Interneten Errealitate areagotua
SALMENTA GEHIAGO	Atari interaktiboa Dinamizazioa	Marketin birala Merkataritza elektronikoko atariak	Denda birtualetan saltzea Nire onlineko denda
FIDELIZAZIOA	Negozioa dinamizatzea	Emailinga Marketina Atari interaktiboa Hitzorduen eta erreserben kudeaketa Bezeroentzako abisuak	Bezeroarentzako zerbitzuen kudeaketa Alertak geolokalizazio-sarean
EFIZIENTZIA HANDIAGOA	Kudeaketa integrala Onlineko prestakuntza Onlineko komunikazioa Hodeian biltegitratzea	Alertak sarean Kudeaketa integrala Onlineko prestakuntza Txanden kudeaketa Hitzorduen/erreserben kudeaketa Zerbitzua bizkortzea Mugikorraren bidezko kudeaketa	Kobrantza eta ordainketa segurua Onlineko prestakuntza Kudeaketa integrala + Bezeroarentzako zerbitzuen kudeaketa Erosketa zentralizatu en kudeaketa Errealitate birtuala
BEREIZTEA	Zerbitzua bizkortzea	Flotak kudeatzeko zerbitzua bizkortzea Hitzorduak eta erreserbak kudeatzeko Bezeroentzako abisuak Mugikorraren bidezko kudeaketa	Bezeroarentzako zerbitzuen kudeaketa Bezeroen fluxuen kudeaketa Ordainketa eta kobrantza segurua Nire onlineko denda Errealitate areagotua Errealitate birtuala

Eranskina

EIKT soluzioen fitxen edukiaren deskribapena (jarraipena)

Jarraian, proposatutako EIKT soluzioak aurkezten dira, bai eta soluzio horietako bakoitza deskribatzeko fitxa osatzen duten elementuen deskribapena ere.

EIKT soluzioak

NIRE ENPRESA INDUSTRY 4.0 BIHURTZEN DUT



Zer da?

Soluzio hauei esker, Industry 4.0ekin lotutako potentzialtasunak eskura daitezke, eta, hala, produktibitatea bera ez ezik produktua/zerbitzua entregatzeko kalitatea ere handitzen da, funtsezko prozesuak digitalizatzen eta konektatzen baitituzte; horren ondorioz, fabrikazio arinagoa, malguagoa eta bezeroentzat hautemangarriagoa lortzen dira.

Zer egiten du?

- **Fabrikazio gehigarria eta 3D inprimaketa:** 3D inprimaketa eta fabrikazio gehigarria ez dira gauza bera. **Fabrikazio gehigarriak** materiala gehituz egiten diren eta osagai konplexu eta iraunkor berriak sortzeko erabiltzen diren fabrikazio-teknika guztiei egiten die erreferentzia; **3D inprimaketak**, berriz, prototipatze azkarraren oinarri gisa, azken modeloak edo piezak azkar baina mugatuta fabrikatzeari egiten dio erreferentzia, eta, normalean, teknologia gehigarri mota jakin batera mugatzen da.
- **Fabrikazio adimenduna:** Kontzeptu honen barruan, automatizazio eta sensorizazio gaiak sartu dira (Gauzen Internet eta Biga Datako elementuak, esaterako), eta, behar bezala integratuta, datuak jasotzea, biltzea eta ustiatzea ahalbidetzen dute, sistemak egokiago kudeatzeko eta, ondorioz, enpresaren lehiakortasun hobea lortzeko.
- **Errealitate areagotua eta birtuala:** Lehen errealitateari balioa ematen saiatzen da, ekintza jakin batzuk edo erabakiak hartzea errazteko, eta errealitatearekin konbinatzen diren informazioa eta irudi artifizialak gainjartzen ditu, errealitatearekin tratatu hobea eskaintzeko. Birtualari dagokionez, errealitatea ordeztzen du, eta, hala, egoera ez-errealak "bizitzeko edo sentitzeko" modua egiten du; horiei esker, egoera horiekiko etorkizuneko benetako interakzioetarako prestatzen gara (makineriarekin loturiko trebakuntza prestakuntza, fobien aurreko erreakzioak, eta abar).

Nola funtzionatzen du?

Fabrikazio gehigarria eta 3D inprimaketa:

- Helburuaren (ekoiztea edo prototipatzea) eta, eskutatako diseinuaren edo aholkularitzaren arabera, mota bat edo bestea aukeratu behar da.
- Plataformek edo soluzioek hainbat aukera eskaintzen dituzte: inprimaketa hutsa, inprimaketaren diseinua edo egokitzapena, edo are produktuen produkzio-prozesu eta bizitza-prozesu osoa definitzeko aholkularitza.

Fabrikazio adimenduna:

- Sentsoreak sartzeko eta Biga Dataren bidez sistemetan integratzeko, funtsezko segurtasun-betekizunak aztertu behar dira, objektuek sarearen bidez bildutako datuak transferitzeko duten gaitasunari arriskurik gabe etekina ateratzeko eta, horietatik abiatuta, enpresaren jardura kontrolatu eta kudeatzeko.
- Big Datako sentsore eta aplikazioak ekoizpen-sistema motaren arabera aukeratu dira; beraz, aholkularitza beharko da aldeaz aurretik, bideragarritasunaren eta kostu-onuraren analisian oinarritutako aukerak aztertzeko.

Errealitate areagotua eta birtuala

- Errealitate birtualerako teknologia eta osagarriak beharko ditugu, hala nola errealitate birtualeko betaurrekoak edo kaskoak, baita jantziak, aginteak edo entzungailuak ere. Horiek guztiak estimuluak transmititzen dizkigute, eta horiek ematen digute errealitate birtualaren esperientziak gozatzeko aukera.
- Errealitate areagotuan, gailu baten bidez, gailuak erakusten duen errealitateari informazioa gehitzen zaio (geruzak), eta gure inguruneari buruzko ezagutza garrantzitsua ematen duten esperientziak sortzen ditu; gainera, denbora errealean jasotzen dugu informazio hori.

EIKT soluzioaren izena

Zerbitzua ezartzeko eta modu efizientearen erabiltzen laguntzeko moduak

EIKT soluzioaren deskribapena

EIKT soluzioaren funtzionamendua

EIKT soluzioak eskaintzen dituen ekintzen ezaugarriak

Negoziari ekar diezazkiokeen onuren azalpena

ZER EKARPEN EGITEN DITUZU?

- Tresna eta praktika horien bidez, mikroenpresetan Industry 4.0 soluzioak txertatu nahi dira, negozio-prozesu erabakigarrietan modu errealistan aplikatu ahal izateko, inertsio eta gaikuntza handirik gabe, baina horrelako soluzioek enpresa ertain eta handiei sortzen dizkieten berrikuntza eta aldaketek ateak irekiz -jakinik dagoeneko txertatuta daukatela beren prozesuetan-.
- Produktu edo zerbitzu bat merkaturatzeko denbora automatizatu, arindu eta murriztu nahi da, eta moldagarritasuna, malgutasuna eta eraginkortasuna lehenetsi nahi dira egungo merkatuan bezeroen beharrei erantzuteko.



Eranskina

EIKT soluzioen fitxen edukiaren deskribapena (jarraipena)

Soluzio bakoitza kolore batez adierazten da, dagokion arloaren arabera.

EIKT soluzioak

NIRE ENPRESA INDUSTRY 4.0 BIHURTZEN DUT



KT soluzioaren izena

Katalogo honetan eskainitako zerrenda erreferentzia bat baino ez da, kolaboratzaileek berek emana agiri hau prestatzeko garaian.

Soluzio hori eskaintzen duten produktu ugari daudenez,

IKONOEN ESANAHIA



Ikonoen esanahia

Produktuak

FABRIKAZIO GEHIGARRIA

[Printernet](#). Onlineko 3D inprimaketarako plataforma

[Domotek](#). Prototipoak eraikitzea

[Addimen](#). 3D diseinua sortzea eta material metalikoak inprimatzea

E



FABRIKAZIO ADIMENDUNA

Gauzen Internet - Automatizazioa:

[IFTTT](#)

[Zapier](#)

[Rebot.me](#)

[Sensorización de ubicación y stocks](#)

[Sensorización de valores ambientales](#)

Mi Led Smart Bulb eta mydlink - Entxufe adimendunak

Big Data

[Innguma](#)

[Power BI](#)

[Data studio Google](#)

E

E



E

E



E

E



EIKT soluziorako eskuragarri dauden produktuak eta horien ezaugarriak (doakoa edo ordainpekoa, eta hizkuntza)

ERREALITATE AREAGOTUA ETA BIRTUALA

[BeitxuStudios](#)
[Basque Games Lab](#)
[GTS](#)

ES



[Layar Creator](#)

IN



ZERBITZU AURRERATUAK

[Blockchain](#)

[Metron](#)

[Bilbao As fabrik](#)

ES

IN



Erlazionatutako produktu gehiago: www.spri.eus/euskadinnova

GOMENDIOAK

Errealitate birtualarekin errazten da makineria kritikoaren erabilerari buruzko prestakuntza, erabilera simulatuz eta, hala, matxurak eragiten dituzten erabilera okerrak saihestuz.

Ekoizpena, kokapena eta ingurumen-egoera automatizatzeari eta sentzorizatzeari esker, berehala hartu daitezke erabakiak aldaketan aurrean.

Eredu ukigarri moduan prototipatzeak -are behin betiko materialarekin, alegia, 3D inprimaketa-, produktua ebaluazioa eta testatzea ahalbidetzen du, eta horrek bermatu egiten du ondoren baliozkotzea eta onartzea.

Soluzio bakoitza modu efizienteagoan erabiltzeko aholkuak

Laguntza eta
euskarra

900 92 93 93

Ikastaroei eta
bestelako laguntza-
programei buruzko
informazioa

A

- » **Administrazio elektronikoa:** administrazio publikoak eta herritarrak bitarteko telematikoen bidez harremanetan jartzeko modua (informazioa, eskaerak, zergak, eta abar).
- » **Alertak:** posta elektronikoz jasotzen diren aldizkako abisuak, zehaztutako terminoak webgunean argitaratzen direnean.
- » **Antibirusa:** ordenagailu bat "erasotzen" duten birusak detektatu eta ezabatzeke edo isolatzeko gai den aplikazioa.
- » **Aplikazioa:** programa edo softwarea; ordenagailuak egin behar dituen ekintzak kontrolatzea helburu duen jarraibide multzoa, ordenagailua helburu jakin batekin erabili ahal izateko.
- » **Ziurtapen-agintaritza:** konfiantzazko erakunde bat, sinadura elektronikoan erabiltzen diren ziurtagiri digitalak edo ziurtagiriak emateko eta baliogabetzeko ardura duena (Izenpe, NAN elektronikoa, Camerfirma, eta abar).

B

- » **Banku elektronikoa:** bankuek bezeroei eskaintzen dieten zerbitzua, zeinaren bidez banku-kontuetan sartu eta eragiketak Internet bidez egin baitaitezke.
- » **Datu-basea:** testuinguru berekoak diren eta ondoren erabiltzeko sistematikoki biltegitratutako datuen multzoa.

C

- » **Karpeta:** ordenagailuaren disko gogorreko espazioa, fitxategietan normalean izen baten bidez identifikatutako informazioa duena (adibidez, "Nire dokumentuak").
- » **Konprimatzea:** fitxategi edo karpeta bat edo gehiago fitxategi bakar batean paketatzea, leku gutxiago har dezaten eta sarean elektronikoki bidaltzeko denbora gutxiago behar izan dadin.
- » **Segurtasun-kopiak:** sisteman gordetzen den informazioaren kopia, jatorrizko informazioa kaltetzen edo ezabatzen bada eskuratu ahal izateko. Babeskopia ere deitzen zaio (backup, ingelesez).
- » **Posta elektronikoa:** email ere esaten zaio, eta erabiltzaileen artean mezuak trukatzeko aukera ematen du.

D

- » **Datafonoa:** bezeroei kreditu- edo zordunketa-txartelaren bidez kobratzeko aukera ematen duen gailua da. Normalean, establezimenduaren jabearekin lan egiten duen bankuak edo kutxak ematen du.

E

- » **Enkriptatzea:** datuak euskarri elektroniko batean sartzeko karaktereen orde bestek batzuk erabiltzea -irakurri ezin direnak-, nahi ez diren sarbide eta irakurketak saihesteko.

G

- » **GPS:** mundu osoan objektu baten posizioa zehazten duen sistema.

H

- » **Hashtaga:** Twitterreko mezuaren barruan ipintzen diren etiketak. # zeinua dute hasieran, eta mezuari zentzua ematen dion hitz bat izaten du ondoren. Adib.: #TurismoaEuskadin

Eranskina

EIKT

Hiztegia (jarraipena)

M

» **Marketin birala:** Internet, sare sozial eta bestelako bitarteko elektronikoen bidez eginiko sustapen- eta salmenta-ekintzak, informazioa jasotzen duten pertsonen kopurua esponentzialki areagotzeko.

» **Onlineko marketina:** Internet bidez gertatzen den komunikazio-modua da, eta, haren bidez, negozioko mezuak transmititu daitezke, produktuak eta zerbitzuak informatzeko, sustatzeko eta saltzeko, egungo bezeroak fidelizatze eta bezero berriak erakartzeko.

N

» **Hodeia:** ingelesezko Cloud Computing, zerbitzuak online emateko eredu bat da; hau da, hornitzaile batek web bidez zerbitzu jakin bat eskaintzen digu, eta, hala, munduko edozein lekutatik sartu ahal izango gara zerbitzu horretara, baldin eta Internetarako konexioa badugu. Kontzeptu horrek zerbitzarien multzo bat inplikatzeko du. Interneteko toki bat, informazioa edo aplikazioak kokatzeko..

O

» **Online:** sarearen bidez erabiltzailearekin interakzioa sortzen duen zerbitzua; Internet, kasu.

P

» **Salmenta kolektiboko atariak:** negozio-eredu horrek deskontu handiak eskaintzen ditu kontsumitzaileentzat, eta merkatarientzat, berriz, publizitatea, presentzia eta salmentak. Horien artean nabarmentzen dira, esaterako, Groupon, Grupalia, Letsbonus, Colectivia...

» **Posta:** ohar moduko testu txikia, blogetan edo sare sozialetan argitaratzen dena eta iruzkinak jaso ditzakeena.

» **Ordainketa-plataforma:** negozio elektronikotarako ordainketak baimentzen dituen merkataritza elektronikoko zerbitzuen hornitzailea. Saltokiko terminal (ST) fisiko baten baliokidea da. Ordaintzeko plataformek informazio sentikorra zifratzen dute (enkriptatu), informazioa bezeroaren eta saltzailearen artean modu seguruan igarotzen dela bermatzeko.

» **Ikaskuntza elektronikoko plataforma:** Internet bidez prestakuntza-jarduera bat egiteko behar diren mekanismoak eskaintzen dituen programa informatikoa.

R

» **Bereizmena:** irudi batek duen xehetasun-maila identifikatzen du. Zenbat eta bereizmen handiagoa, orduan eta irudi zehatzagoa esan nahi du.

» **RSS (Really Simple Syndication):** formatu honen bidez, informazio eguneratua helarazten edo zabaltzen zaie maiz nabigatzaile baten beharrik gabe eduki-iturri bateko harpidetza egin duten erabiltzaileei.

S

» **Sistema Eragilea:** ordenagailu baten oinarriko softwarea da (fitxategiak, aplikazioak); haren bidez hasten da ordenagailua funtzionatzeko, eta, hari esker, ordenagailuak egokiro baliatzen ditu osagaiak.

T

» **Onlineko tutoriala:** Internet bidezko ikaskuntza-sistema bat da; irakaslea ordeztan du, eta erabiltzaileari programaren baten funtzionamendua edo jarduera jakin bat egiteko urratsak erakusten dizkio.

W

» **Web 2.0:** komunikazio partizipatiboko eredu bati jarraitzen dioten web erabileren eta aplikazioen multzoa. Eredu horretan, web orri zehatzaren sustatzaileak ez ezik, hura erabiltzen edo bisitatzen duten pertsona guztiek ere sortzen dituzte edukiak, formatu eta jatorrizko iturri desberdinetako edukiak partekatuz eta integratuz.

**Informazio gehiago
eskuratzeko, SPRI.**

Telefonoa: 900 92 93 93.

Helbide elektronikoa:
info@spri.eus

**2021ko abendua.
Gobierno Vasco-Eusko
Jaurlaritza.**

**SPRI-Enpresen Garapenerako
Euskal Agentzia**



Creative Commons lizentzia